

Herriko bestak
Doneztebe, Arizkun,
Erratzu eta Saldias

BERA → 23
Altzateko bestak
ortziraletik larunbatera

DONEZTEBE → 29
Mendi Abesbatzaren
urteurrenako kontzertua

LEITZA → 40
Berdintasun Plana
lantzen ari dira

SARA → 48
Mendi bizikleta ibilaldia
ekainaren 24an



**HONDAKINEN BILKETA → BAZTAN,
BORTZIRIAK ETA MALERREKA-BERTIZARANA**

LAU AUKERA

ERREPIDE NAGUSITIK HURBIL DAUDEN HERRIETARAKO

1. Bosgarren edukiontzia
2. Atez ate errefusa bakarrik biltzea
3. Atez ate errefusa eta hondakin organikoak biltzea
4. Atez ate errefusa, organikoak, papera eta enbaseak biltzea

Errepide nagusitik hurbil dauden herrietan lau aukera izanen dituzte

Urrutiago daudenetan konposta egitea aurreikusi dute

Baztan-Bidasoaldeko udal eta mankomunitateek uztailaren 4rako landua beharko dute izan gaia, etorkizunean zein bilketa sistema hautatzen duten ikusteko. Izan ere, **Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralak** gai organikoen bilketa berezia ezarriko du, eta 2011n sortu zen materia organikoaren erdia bildu beharko da 2020rako.

ERREPORTAJEA → 4-5

ZUGARRAMURDI → 49

Sorginaren Egunerako Ikuskizun andana prest

Trikitalari gaztetxoek saioak, hitzaldi eta liburu aurkezpenak, karrika animazioak, txalaparta jotzen ikasteko tailerrak, dantzariak, artisauak, Akelarrearen antzespina... Ikuskizun andana prest larunbat honetarako.



Bittoriano ARZUAGA | Artilea lantzen duen urroztarra

«Lehenago gehiago saltzen zen azoketan»

Bittoriano 14 urterekin hasi zen haria egiten eta 87 urte bete berrian etxean ikasitakoari eusten dio. Omenaldia eginen diote Urroren ekainaren 16an.

ELKARRIZKETA → 3



ZOKKETAK → 59



Txartela egiteko
deitu **948 63 54 58**
telefonora



www.mueblesordoki.com

Plaza Zaharra, 27 | Erakusketa: Otsango industrialdea, 5 | LESAKA
T. 948 637 780 | e-posta: info@mueblesordoki.com



SUKALDEAK

ERAKUSKETA BERRIA



- DEKORAZIO PROIEKTUAK -
- EGONGELAK -
- LOGELAK -
- ARMAIRU ENPOTRATUAK -
- ILUMINAZIOA -
- SOFAK -
- OSAGARRIAK -

ZOZKETA
ekainak 29
1500€
banatuko dira

*Lesakako Zerbitzuen Elkarteak
50€ko 30 bale zozketatuko ditu.*

*Sari banaketa ekainaren 30ean
egingo da 13:30ean plazan.*

*(Saria jasotzera etortzen ez
denak, saria galduko du).*

*Baleak gastatzeko azken eguna
2012ko uztailak 5.*



Artilea lantzeagatik egin da ezagun Bitoriano Arzuaga urroztarra. 14 urterekin ikasi zuen haria egiten eta 87 urte bete berrian etxean ikasitakoari eusten dio.

Ahari iletik abiatu eta haria egin ondotik, txanoak, txalekoak, zapinak, kuleroak, tangak, bularretakoak... Denetarik egiten du eta etxean zein azoketan saltzen ditu

bere produktuak. Larunbat honetan, ekainak 16, Urrozen lehenbiziko aldiz egingen den Eskulagintza Egunean herriaren omenaldia jasoko du Arzuagak.

Bitoriano ARZUAGA | Artilea lantzen duen urroztarra

«Orain jendeak ez du lehen bezala zapinak erosteko ohiturarik»

G. PIKABEA | URROZ

Noiz hasi zinen artilea lantzen?

14 urterekin hasi nintzen, amaxiri ikusita. Egunez etxetik kanpo aritzen nintzen lanean, eta amak egunez ilea harrotu eta prestatu egiten zidan nik gauzez haria egiteko. 15-16 urte nituenean, bertze emakume batekin tratua egin nuen. Berak zapinak saltzen zituen eta nik haria egiteagatik zapin bakoi-tzeko hiru duro eta berak bertze hiru duro har-tzeko tratua egin genuen. Urte batean 50 pare egin genituen. Soldaduskara joan arte, urtero aritu nintzen zapinak egiten eta soldaduskara joateko nik haria prestatu eta arrebak txaketa ere egin zidan. Garai hartan, barride batzuk ere lan horretan aritzen ziren eta elkarrekin aritzen ginen. Gero, haiek hemendik [Urroztik] joan ziren eta bakarrik gelditu nintzen. Handik goiti, lauzpabortz urtez arrunt gutti aritu nintzen haria egiten. Niretako arropa urtero egiten nuen, galtzerdiak eta txaketa, baina bertzeendako ez. Gerora berriz hasi nintzen. Behin, etxe batean peoi nengoela, txaketa egiteko haria ote nuen galdetu zidaten. Eta haria egin eta txaketa ere egin nien. Orduan, artilearekin



ARGAZKIA: TTAPI-TTAPA

Bitoriano Arzuaga haria egiten.

egindako txaketa luxu bat izaten zen.

Nondik lortzen duzu artilea? Eta nola egiten duzu haria?

Arraioztik ekartzen dut ilea, eta ahariaren ilea izaten da, ardiarena baino hobe delako. Behin ekarrita, ileari zikina kentzen diot. Gero ur epelean eta xaboiarekin garbitu egiten dut. Espuma bezala harrotzen da ilea eta ondotik, parreta gainean paratzen dut idortzeko, eguzkitan. Horretarako eguraldi ona behar da, eguzkitsua. Ordu batzuren buruan buelta ematen diet eta arratsalde alde-

SALMENTAK BEHERA

«Lehen gehiago saltzen zen azoketan, eta norabait joan aldiro dirua ere ematen ziguten. Orain, ordea, jendeak ez du lehen bezala zapinak erosteko ohiturarik eta zenbait tokitan lehen ematen zutena ere kendu dute. Baina ni edozein tokitara gustura joaten naiz. Normalean, Oizko Migel Urroz kutxaragilea eta Juan Pedro Goñi kaikuegilea elkarrekin joaten gara ferietara».

ra bildu. Ilea garbia dagoenean haria egiten hasten naiz. Artile multzo bat hartu eta nire kasuan, ni ezkerra naizelako, mutur bat eskuineko eskumuturrean lortzen dut, eta bertzea txabila edo maratilari lotzen diot. Ezkerreko eskua rekin haria ateratzen joaten naiz. Haria egitetik akitzean, prest dago arropak orratzekin egiteko. Denbora gehiena haria egiten joaten da, baina ni ez naiz apuruan aritzen, lasai hartzen dut. **Noiz hasi zinen azoketara joaten?**

Egun batean, soldaduskan elkarrekin ibili ginen

Oizko lagun baten galtzerdiak ikusi zizkidan eta nork eginak ote ziren galdetu zidan. Neronek eginak zirela erran, eta haria nola egiten nuen galdetu zidan, maratila rekin ala rokarekin egiten ote nuen. Maratila rekin aritzen nintzela erran nionean Baigorri-eraman behar ninduela erran zidan, Nafarroaren Eguna. Eta hura xe izan zen nire lehenbiziko irteera, orain dela 30 bat urte. Haren ondotik, hurrengo ateraldia Leitzara egin nuen, eta han amerikano batek lau pare zapina erosi zizkidan, 3.000 pezetetan. Kontent etorri nintzen eta handik goiti kanpora ateratzen hasi nintzen. Lan honetan gelditu gabe, 30 urte baino gehiago daramazkit.

Azokek badute indarra oraindik?

Lehen gehiago saltzen zen, eta norabait joan aldiro dirua ere ematen ziguten. Orain, ordea, jendeak ez du lehen bezala zapinak erosteko ohiturarik eta zenbait tokitan lehen ematen zutena kendu dute. Baina ni edozein tokitara gustura joaten naiz. Normalean, Oizko Migel Urroz kutxaragilea eta Juan Pedro Goñi kaikuegilea elkarrekin joaten gara ferietara. Noizean behin etxera ere etortzen zaizkit erostera.



ARGAZKIA: IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA

Auzoko konpostaren eredia da hau, Iruñerriko Mankomunitateak Subizan egindako esperientziaren adibidea.

HONDAKINEN TRATAMENDUA→ BAZTAN, BORTZIRIAK ETA MALERREKA-BERTIZARANA

Ez birziklatzea birziklatzea baino garestiagoa izanen da

2020rako joan den urtean sortu zen materia organikoaren erdia bildu behar dela dio Nafarroako Planak eta helburu horrekin hainbat aukera proposatu dituzte

Herri haundietan eta errepide nagusitik hurbil daudenetan lau aukera paratu dituzte mahai-gainean: 5. edukiontzia edo atez atekoaren hiru

eredu. Herri ttikietan edo errepidetik urrutiago daudenetan konposta egitea proposatu dute. Orain, Mankomunitateei dagokie erabakitzea.

G. PIKABEA

«Gai organikoaren biltzea bereizia ezarriko da Nafarroan. Hiri hondakinak %10 murriztu behar dira eta 2011n sortu zen materia organikoaren erdia bildu beharko da 2020rako». Halaxe dio, berteak berte, Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralak (NHKPI).

Organikoa murrizteko bidean, gaur egun, konposta da Baztan, Bortziariak eta Malerreka-Bertizaranan martxan dagoen ekimena, eta joan den urtera arte banatu ziren konpostontziekin 76 Tona bildu ziren konposta egiteko. Baina 10.000 Tona zabor sortu ziren eta datu horiek kontuan hartuta, kopurua ez da hain

haundia. Txomin Elgorriaga Bortziriako Hiri Hondakin Mankomunitateko teknikariaren arabera, «konpost kanpainarekin hondakin organikoa murriztu da, baina gure zerbitzuetan ez du eragin». Beraz, NHKPI dioena bete nahi bada, eta azken urteotako birziklapen tasa «geldirik» dagoela ikusita, Baztan,

Bortziariak eta Malerreka-Bertizaranan materia organikoa murrizteko hainbat aukera paratu dituzte mahai-gainean. Txomin Elgorriaga da proposamenak ikertzen ari denetako bat eta berak eman dizkigu xehetasunak: herri ttiki edo errepide nagusitik urrutiago daudenentzat edo errepide nagusitik hurbil daudenentzat eredu desberdinak proposatu dituzte.

HERRI TTIKIAK

Herri ttikietan edo errepide nagusitik urrutiago daudenetan, konposta egitea proposatu dute, etxeko konposta edo auzokoa. Izan ere, Elgorriagak azaldu digunez, «errepide nagusitik urruti izanda, haraino kilo gutti batzuk biltzera joateak dirutza gastatzea ekarriko luke». Horrek merezi ez lukeela iritzita, Baztango 13 herritan, Malerreka-Bertizaranako 13 herritan eta Bortziriako 3 herritan konpostaren aukera indartu nahi dute. «Etxeko konposta zabal-tzen saiatuko gara, bako-

tzak berea egin dezan, eta ezin duenak, pisuetan bizi delako edo, auzokoa egiteko aukera izanen luke». Horretarako, ordea, Hiri Hondakin Mankomunitatean bada-kite kanpaina indartsua egin beharko dutela, «ahalik eta jende gehien animatzen saiatuko gara, baina boluntarioa izanen da, ezin baitugu inor konpost-ontzia etxean paratzera behartu», dio.

HERRI HAUNDIENAK

Herri haundienetan edo errepidetik hurbil daudenetan, bertzelako aukerak dituzte esku artean. Bera, Lesaka, Sunbilla, Doneztebe, Irurita eta Elizondorako lau aukera proposatu dituzte: **1. Bosgarren edukiontzia.** Hondakin organikoak biltzeko bosgarren edukiontzi marroia paratuko litzateke, giltzarekin. Hau ere boluntarioa izanen litzateke, eta nahi duenak Mankomunitatean edukiontziko giltza eskatu beharko luke. Etxean erabiltzeko ontzi ttiki eta poltsa konpostagarri



ESALDIA

«Teknikoki atez atekoarekin bilduko da gehien, baina ikusi behar da bilduko denak gastua konpentsatzen duen»

Txomin ELGORRIAGA
Hiri Hondakinen teknikaria

batzuk hartuko lituzke.

2. Atez ate errefusa bakkarik biltzea (birziklagarriak ez diren hondakinei deritze errefusa: hautsa, hautsitako platerak eta edalontziak, pixoihalak...): karrikan poste batzuk paratuko lirateke, eta familia bakoitzak kaxa bat izanen luke. Kaxa horietan errefusa atera beharko lukete eta postean zintzilikatu. Astean behin bilduko litzateke, baina bildu baino lehen, ontzi barrenean zer dagoen ikusiko lukete eta birziklagarria den zerbait ikusiz gero, ez litzateke bilduko. Honen harira, zera gehitu digu Elgorriagak: «gaur egun birziklatzen ahal ez dena bilduko litzateke atez ateko aukera honekin». Kasu honetan, edukiontzi berdea kenduko litzateke, edukiontzi marroia paratu eta orain dauden edukiontzi urdinak eta horiak mantendu.

3. Atez ate errefusa eta hondakin organikoak biltzea (sukaldata nahiz sukaldata gabeko janari soberakinak dira organikoak): kanpoan postea egonen lirateke, eta etxe bakoitzean behar den kaxa edukiko lukete, batetik errefusa, eta bertetik hondakin organikoak

biltzeko. Hortaz aparte, enbasea, papera eta beiraren edukiontziak mantenduko lirateke. Kontrolaren aldetik, «aitzinekoa baino hobea» dela dio teknikariak, «bi gauza, errefusa eta organikoak, kontrolatuko liratekeelako. Eta behar ez den zerbait atera duenari ez liokete kaxa bilduko».

4. Hondakin organikoak, errefusa, papera eta enbaseak atez ate biltzea: beira ez gainera guztia atez ate bilduko litzateke, kanpoan dauden posteetan tokatzen dena utzi beharko bailuke jendeak. «Hemen kontrola haundia izanen litzateke», dio Elgorriagak.

Atez ateko aukeren kasuan, organikoak astean bi aldiz guttienez bilduko litzateke, eta errefusa, enbasea eta papera astean behin. Asteko egun jakin bakoitzeko, hondakin mota bat atera beharko lukete herritarrek. Aipatzekoa da, bertetik, herri hauetan, herritik aparte dauden etxe eta basearrietan konpostaren aldeko apustua egin dutela. Lau aukera hauek herri-gunerako dira.

Elgorriagaren irudiko, proposatu diren neurrien artean, «argi dago teknikoki atez atekoarekin bilduko dela gehien, kontrola haundiagoa izanen delako eta nolabait errateko, jendea behartua egonen delako bereiztera. Baina bilduko denak gastua konpentsatzen duen ikusi behar da». Hasiara batean, sei herrietarako egin da proposamena edo ikerketa baina horrek ez du erran nahi errepidetik hurbil dauden bertze herrietan aukera hauek baztertuak direnik.

Proposatu diren neurrien artean deus erabaki aitzinetik, alternatiba bakoitzarekin zenbat bilduko litzatekeen eta zenbat kostako litzatekeen ikusteko azterketa egin dute, bideragarria izan dai-

tekeen ala ez jakiteko. Elgorriagak Hirusta Ingurumen Hezkuntza enpresaren laguntzarekin egin du lan hau eta emaitzak ekainaren 5ean aurkeztu zituen Donezteben udal ordezkarien aitzinean.

Proposamenak mahai gainean daudela, orain mankomunitate edo udal bakoitzari dagokio zein neurri komeni den erabakitzea. «Zonaldeka bakoitzak erabaki behar du berea, baina Baztan, Bortziriak eta Malerreka-Bertizaranan denen artean zerbait egiten saiatu behar genuke, bakoitza bere aldetik eginez gero, aunitz garestituko delakoz. Halere, erabaki politikoa da eta hor gu ez gara sartuko». Neurri berria noizko egonen den indarrean oraindik ez dakite, baina udal eta mankomunitateko ordezkariak uztailaren 4an egingen dute hurrengo bilera eta ordurako gaia sakonduta, udal eta mankomunitate bakoitzak solastutakoa paratuko du mahai gainean.

Aukera edozein dela ere, «herritarrentzat aldaketa» izanen da Hiri Hondakinen Mankomunitateko teknikariaren irudiko: «orain arte bakoitzak nahi duenean bota izan du



Materia organikoa biltzeko bosgarren edukiontzia, itxia.



Atez ateko sistemarekin, poste batean bakoitzak dagokion kaxa utziko luke.

zaborra edukiontzira. Bosgarren edukiontzia-ekin aldaketa ez da hainbertzerakoa izanen, nahi duenak egingen du eta nahi ez duenak ez. Baina atez ateko sistemarekin

egun jakin batean atera beharko dituzte hondakinak». Herri ttikietan proposatutako ereduarekin ere, «ohiturak aldatu beharko direla» adierazi du.

IKERKETA GASTUAK ETA BILKETA BIDERAGARRIAK DIREN IKUSTEKO

«Zaborra bereizteko lana etxean eginda, merkeago aterako zaigu»

«Ez birziklatzea birziklatzea baino garestiagoa izanen da». Hori ere nabarmendu digu Txomin Elgorriagak: «orain arte bezala segitzen badugu zabor tasak igoko dira». Katalunian, adibidez, zabortegian sartzen den Tona bakoitzeko kobratu izan dutenaz gain, orain, 20 euroko kanona gehitu diote. Gaur egun, Iruñerriko zabortegian sartzen den Tona bakoitzeko 45 euro inguru ordaintzen dugu eta Katalunian bezala 20 euroko kanona paratuz gero, 65 euro izanen lirateke. Gipuzkoan, ordea, Tonako 143 euro ordaintzen dute. Nafarroan oraindik ez dute erabaki, «baina ziur gaude garestituko dela, jendea birziklatzera behartzeko». Joan den urteko datuak adibide modura aipatu ditu Elgorriagak: «iaz 10.300 Tona inguru bildu genituen guztira, horietatik 2.700 inguru selektiboki bildutakoak izan ziren eta gainerako 7.600 Tonatik goiti edukiontzi berdeetakoak. Beraz, %70etik goiti Iruñerriko zabortegira joan zen eta Tonako ordaintzen den 45 euroko prezioa igotzen bada, eta horri 7.600 Tona biderkatuta, prezioa aunitz igoko da. Ez badugu deus egiten ere, aunitz garestituko da. Birziklatzen badugu bilketa zerbitzua garestiagoa izanen da, baina tratamendu plantan sartzearatik tasa merkeagoa izanen da organikoak zabortegian sartzeko tasa baino. Bereizteko lana etxean hartzen badugu, merkeago aterako zaigu, birziklatzen ez den zaborra hagitz garestia izanen baita».

**Nire txanda**

Luis GARDE

Greziarra naiz, eta?

Aspaldian, oso aspaldian, eskolara joaten nintzeneko garaian (probetxamendu eskasarekin, antza), Grezia mendebaldeko humanismoaren gurasoa dela erakusten ziguten, duela hiru mila urteko greziarrek demokrazia (herriaren agintea) asmatu zutela eta abar. Oraindik gogoan dut *Periklesen Atenas* edo Partenongo irudia. Geroztik ez dut berririk izan Greziari buruz, lagunaren baten bidaiaren kontaketa ez bada, eta horrelako kontaketei orokorrean berriak ixten dizkiet. Egunotan, hala ere, Greziarekin gosalduta, bazkaldu, afaldu egiten dugu: Europako ekonomia %3a izaki (ekonomia asko ikasten ari gara!), greziar gaixoei europar guztiak amilde gira eta hondamendira eraman behar omen gaituzte. Alferrak, iruzurtiak, anti-demokratak, gastatzaileak, etxekalteak, matxinatuak? Pelikula triste honen gaiztoak? Ez, eskerrik asko, Merkel-Rajoy-Barcina, ez naiz espainiarra ez alemaniarra: gaur greziarra nauczue.

«Merkel-Rajoy-Barcina, ez naiz espainiarra ez alemaniarra: gaur greziarra nauczue»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Nik ere buelta eman nahi diot

Guri irakaskuntza liburuak kobratu, irakasleak eta medikuak kendu, lanetik kanporatzea merketu, erretiro adina 67 urtera eta BEZa igo bitartean, Bankiari 23.000 milioi euro eman (gureak noski). «Ez da Bankiari emandako diru laguntza, kapitala baizik, beraz ez dugu itzuli behar» erran du lasai demonio Goirigolzarri presidenteari. Ole! Guk ere kapitala nahi dugu, ez laguntza!

Nabarmentzekoak

**Pedro URRUTIA**
Saldiasko alkate 32 urtez**Salvador YANCI**
Beti Gaztek omendua**Ignacio LARRA**
Berako margolaria saritua

Malerrekako Eguneako ospakizunak hasteko omenaldia eskaini zitzaion 32 urtez Saldiasko alkate izan denari. Aurrekua dantzatu zioten eta zapi zuria eskaini.

Kasik hiru hamarkada Lesakako elkarteko zuzendaritza batzordean eta azken 16 urteak presidente kargua bete duenak omenaldia jaso zuen Mastegin maiatzaren 26an.

XXI. Cultura Viva arte plastikoaren saria jaso du margolariak ekainaren 1ean Madril. Marga Irazoki emaztearekin eta Berako senide eta lagunekin joan zen Madrilera.

Atzera begira → 2001.06.14 / TTIPI-TTAPA 304. zbk



Bozaten museoa egiteko Xabier Santxotenaren lehen urratsak

1997tik Gorrienea museoan bere zenbait lan jarri zituen, baina abudo oharu zen bertan ez zegoela bere lan guztiak sartzeko lekurik. Hala, Bozateko errepide bazterrean Jesuitek belagi bat saldu ziotenetik museo erraldoi baten proiektuan buru belarri sartu zen. 33.000 metroko ibilbidean 8 borda eraikitzeak asmoa zuen eta bakoitzaren barnean eskultura familia bat jarri. Horixe zen egitasmoaren erdigunea. Baztango Udalak begi onez ikusi zuen proiektua, bailararen ekonomiarako onuragarria izanen zelakoan. Hameka urte beranduago, Santxotena museoa Arizkun gehien bisitatzen den lekua da.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Andueta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usua Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontzi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Martin Larraide, Juan Mari Barriola.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Sempereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2012ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	38€	Europa	56€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	32€
Ipar Euskal Herria	56€	Amerika eta Australia	124€	Leitza	16€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Nola dantzatu euripean

Xanti BEGIRISTAIN

Goiz mugitu batean, zortzi eta erdietan, 80 urte inguruko gizon zahar bat iritsi zen ospitalera, hatz lodi batetik puntuak ken ziezazkioten. Gizonak, larri eta estu zegoela esan zuen, eta hitzordu bat zeukala bederatzietan.

Bere bizi-seinaleak egiaztatu nituen, eta esertzeko eskatu nion, jakinda, agian, ordubete baino gehiago pasa litekeela, norbaitek kasu egin ahal izan baino lehen.

Bere erlojuari begira ikusi nuen, eta une horretan beste inongo gaixorekin ez nengoenez lanpetuta, erabaki nuen bere zauria miatu ahal nuela.

Miaketaren bitartez egiaztatu nuen sendatuta zegoela, eta, orduan, doktoreetako bati zenbait tresna eskatu nizkion, josturak kendu eta bere zauria osatzeko.

Sendaketak egiten nizkion bitartean, galdetu nion ea goiz hartan beste hitzordurik ote zuen beste sendagileren baten batekin, oso larri eta estu ikusten bainuen.

Gizonak esan zidan ezetz, geriatrikora joan behar zuela, emaztearekin gosaltzeko.

Haren osasunaz galdetu nion.

Agureak erantzun zidan, emaztea aspalditik zegoela han, alzheimerra zuelako.

Geroago, galdetu nion ea haserretuko ote zen, berandutxo iristen baldin bazen.

Gizonak erantzun zidan, emazteak aspaldi hontan ez zekiela nor zen bera, bazirela bost urte, emazteak jadanik ezin zuela bera ezagutu.

Harritu egin nintzen, eta ordun zera galdetu nion, «Eta zuk goizero jarraitzen duzu joaten, nahiz eta emazteak ez jakin nor zaren zu?».

Agureak irribarre egin zuen, eta eskua laztandu zidan. Orduan honako hauxe erantzun zidan:

«Hark ez daki nor naizen ni, baina nik oraindik badakit nor den hura».

Larruazala laztu egin zitzaidan, eta negar-malkoei eutsi egin behar izan nien, berak alde egiten zuen bitartean, eta zera pentsatu nuen:

«Hauxe da nik nahi dudan Maitasun mota nire Bizitzan».

Benetako Maitasuna ez da fisikoa, ez eta erromantikoa ere.

Benetako Maitasuna da onartzea den guztia, izan dena, izanen dena eta izanen ez dena.

Jenderik zoriontsuenak ez dauka, nahi eta nahi ez, dagoen hoberena; beraiek, soilik, egin beharrekoa egiten dute ahal duten modurik hoberenean.

«Bizitzan kontua ez da nola biziraun erauntsi batean, baizik eta nola dantzatu euripean!».

«Benetako maitasuna da onartzea den guztia, izan dena, izanen dena eta izanen ez dena»

Krisia

Jexux BULDAIN

Gaur egun, krisia hitza, gure etxeko sukalderraino sartu da eta dauzkagun albisteen arabera, denboraldi luze baterako izango dela ematen du. Bizilagun berri hau, nolabait esateagatik, gure ondoan edukitzeak, urduritasuna eta kezka sortzen digu eta berarekin borrokan hasten baldin bagara, menderaezina ematen du!

Krisia, ondoan daukagu eta gainetik ezin dugunez kendu, bere ondoan bizitzen ikasteak, aukera bat izan daiteke.

Horrelako egoera zail baten aurrean, bizitzari buruz daukagun ikuspegia, oraindik objektiboagoa egin beharra daukagu eta gauzak, modu zabalagoan ikusi. Baliteke, krisiak, guk orain ikusten ez dugun aukera on bat ekartzea eta itxaropentsu egon beharra daukagu. Hau esanda, badirudi une honetan ez dudala ezer konpontzen baina gauzak beste modu batera ikusteko manera da. Ikuspegia aldatzen badugu, egoera aldatzeko aukera dugu eta egoera aldatzen badugu, krisia gainditzeko aukera dugu. Krisiari aurre egiteko, gure barruan dagoen komunikazioa entzun behar dugu eta gure buruarengan konfidantza gehiago izan.

Krisiari aurre egiteko, nire esperientzia oinarritzen naiz, eragiketa mentalak egitea beharrezkoa dela esateko. Gaizki zaudenean, erraza da amore ematea eta batzuetan, amore ematea komeni da. Baina gauza batetan amore emateak ez du esan nahi aukera gehiago ez ditugula. Aukera berriak hor daude eta modu batera ez bada, beste modu batera saiatzea ezin bestekoa da.

Gauza berriak egiteak eta jende berria ezagutzeak, asko laguntzen du gure egoera pertsonala eta profesioanala hobetzen. Garrantzitsua da pentsatzea zer gustatzen zaigun. Gustatzen zaiguna egiten badugu, errazago egingo dugu aurrera. Egoera profesionalak konpontzeko, lehenik egoera pertsonalak konpondu behar ditugu. Gure buruan dauden gora-beherak orekatu behar ditugu eta horretarako ezin bestekoa iruditzen zait, barkatu behar duguna barkatzea. Barkatzen dugunean, nahiz batzuetan zaila izan, aurrepausu handi bat ematen dugu eta egoera berriak bizitzeko, prestatzen gara. Krisia dela eta, enpresa asko itxi dira eta jende asko langabezian dago. Enpresa bat ixtea zaila egiten da eta lana galtzea ere bai. Zerbait ixten denean ez du betirako izan behar! Etorriko dira garai berriak! Enpresa berriak irekitzeko aukerak eta lan-postu berriak aukeratzeko garaia ere ailegatuko dira. Baina, garai berriak eta aukera berriak ailegatzen direnean, ikusteko prest egon beharra dugu eta ikusteko gaitasuna izateko, lanean jarraitu behar dugu. Prestatuak baldin bagaude, prestatu gabe daudenak ikusten ez dutena, prestatua gaudenak ikusiko dugu eta hor dago ezberdintasuna. Guk, euskaldunak, badakigu zer den pilota-jokua eta adibide bezala, eskuz-banakako final batean, batek 22 tanto egingo ditu eta besteak gehienez 21. Desberdintasuna tanto batekoa da bainaa emaitza, batek txapela buruan eta besteak lanean jarraitu beharra, txapela lortu nahi badu.

Gaur egun eta bizitza heldu den bezala ikusita, desberdintasunak gero eta txikiagoak dira eta izango dira. Muga zaila horietan bizitzeko prestatu behar dugu. Prestatu eta begia zorroztu.

Irakurleak mintzo

Osasun kontseilariaren bisitaren harira

Migel Mari Irigoien (Etxalarko alkatea), Jaime Iturria (Arantzako alkatea) eta Marisol Taberna (Berako alkatea)

Marta Vera Kontseilariak Osasun arloko murrizketen inguruan alkateekin egindako bilerraren ondoren argibideak eman nahi ditugu sinatzen dugunok:

1. Gobernuaren eta UPNren erabilera alderdikoia.

Ildatzi hau sinatzen dugun alkateek salatu nahi dugu Nafarroako Gobernua, eta bereziki UPN, osasun murrizketen berri emateko egiten ari den bileren erabilpen politikoa eta manipulazioa.

Batetik, hagitx larria iruditzen zaigu Osasun Sailburuak udalekin bilerak deitzea eta udalen ordezkari mugatzen duen bitartean alderdikideei inolako arrazoi teknikorik gabe bertan egoten uztea. Hainbat udal ordezkari sarrera debekatu zaien bitartean, UPNko kide bati bertan egoten utzi zaio, 'Kontseilariaren alderdi berekoa' denaren aitzakian. Ondorioz, udalei azalpenak emateko eskualdean antolatutako bilera hauetan bere alderdikideen babesa bilatu du Kontseilari andreak, eta aldiz, udalen ordezkari mugatu du, agian jakin dakielako erranen

duena gezurra dela, eta beraz, kritika murriztu nahi duelako, bertze gauza anitz murrizten duten bezalaxe.

2. Eskualdea bi bilertan banatu.

Jarrera honen bertze argibide garbia eskualdea izan daiteke bi bilertan banatu izana. Aitzakia jende gutiagoko bilerak egitea izan da, baina azkenean hagitx azalpen orokorra izan da, eta ez du xehetasunik eman esku-aldeko egoeraz. Hala, ber, ezin dugu ulertu Baztan-Bidasoa esku-aldean hiru osasun-eremu egonik, eremu horietako herriak modu nahasian banatu izana bilertan.

3. Ez da berrantolaketak, murrizketak da.

Eraginkortasuna bileratzen duen berrantolaketak saldu nahi digutena murrizketak bertze-rik ez dira. Ados gaude eraginkortasuna bilatu behar dela, baina ez ikuspegi ekonomikotik, Nafarroako Gobernuak egiten duen bezala. Berrantolaketaren helburua hiritarrei zerbitzu hobea ematea behar luke.

Kasu honetan argi gelditu da xedea ez dela hori izan. Berrantolaketak eraginkor bat egiteko profesionalen eta erabiltzaileen iritzia eta proposamenak kontutan hartu behar dira nahi eta nahi ez, eta ez da hori Gobernu honek egin duena.

4. Manipulazio eta gezur lotsagarriak.

Onartezina da beraien kudeaketaren porrotak langile eta profesionalen bizkar egitea. Ezin



Bota bertsoa

Estitxu FERNANDEZ • Doinua: Habanera

Egungo panorama

Irratian erran dute A-Lamara goazela Ratoren Bankiarentzat milioiak behar direla. Lasai! Moncloa da ile apaindegi bat bezela handik ta hemendik moztuz salbatuko da pastela. Ta bitartean zirkoa bilakatu da Zarzuela pailazo ta elefante montatu dute itzela. Argi dago inoiz baino bidezkoagoa dela erratea euskaldunak bertze herri bat garela.

Irratiak jarraitu du bere kalaka ozena jasanezina bihurtu da langabeziarena ta arrisku primarekin iritsi da eromena Europako kantzilerra da poz-pozik dagoena. Eta bien bitartean presoan gaia azkena noiz krixto hartuko dute giza-eskubideen trenak. A-Lamako bidai honek nahasi digu barrena ea azken aldia den honaino etortzen garena.

dugu onartu osasun arloan lan egiten duten profesionalen ospe txarra bilatzea eta aldarrikatzea berrantolaketaren aurkezpen bileretan. Lotsagarria iruditzen zaigu Kontseilari andreak berrantolaketaz jantzi nahi dituen murrizketak justifikatzeko profesionalen soldatak, opor egunak eta profesionaltasuna kolokan jartzea.

Ez da zilegi orain arteko kudeaketak eragindako gabeziak mediku, erizain, administratibo eta osasuneko langile guztiei leporatzea. UPN izan da kudeaketaren arduraduna, eta berea bakar-bakarik da ardura.

5. Ez gaituzte engainatuko.

Alkateok garbi dugu herriarren osasun arretak duela lehentasuna, eta lehentasun hori jarraituz zorrotz aztertuko ditugu Nafarroako Go-

bernauk eta UPN-k egiten duten aldaketa oro.

Lehentasuna herri-tarrek dutelako, ongi dakigu aurkezten zaigun hau ez dela berrantolaketak, murrizketak baizik.

Eta Lehentasuna herri-tarrek dutelako, jakin badakigu, profesionalen lanari esker orain arte osasun sistema eta lehen arreta martxan izan direla. Beraien esfortzuagatik ez balitz, eta kontuan izanda zeinen kudeaketa kaxkarrak egin duen UPN-k, gauzak anitzez okerrago leudeke.

Gure eskualderako garapenerako elkarlana prest izanzen gaitu beti Gobernuak, zintotasunez jokatzeko gero, eta inolako erabile- ra alderdikoirik eta manipulaziorik egin gabe.

Aroztegia eta banku sistema

Agurtzane Obregozo eta Joseba Otondoak (Aroztegia eta gero zer? taldeko kideak)

Lekarozko Aroztegiako egitasmo espekulatzaileari buruz aunitzetan solastatu gara, 800 pertsonako herri berri batek sortuko litzukeen ondorio eta kalteak aipatuz edo leka-roztarrek galdeketa adierazizuten ezezkoaren gainetik aitzineko udalak -NaBaik eta UPNek- eman zioten babesa azpimarratuz. Aroztegia, garbi izan, Baztango lurretan egindako Gorraiz modukoa litzateke. Gaurkoan, haatik, proiektu honek banku sistemaren gain-beherarekin eta krisi gogor honekin duen lotura nabarmendu nahiko

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
 Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
 Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Irakurleak mintzo

genuke. Aroztegiako bulkatzailea *Palacio de Aroztegia* da eta bertan, Caixa Galiciak, orain NovaCaixaGaliciak parte hartzen du. Kutxa hori BANKIA osatzen duten kutxen moduan burbuila inbiliarioran bete-betean ibili zen; harelako moduan ibili, honddarrean, burbuila leherterakoan katakrak egin eta bat egite prozesu bizian sartu behar izan zuela. Horrela, NovaGaliciarekin elkartu eta NovaCaixaGalicia sortu zuten. Baina hain zeuden kontuak hondatuak, Espainiako estatuak FRO-Beko funtsak erabiliz, hau da, diru publikoa, 2.465 milioi euro jarri behar izan zituela; horrela, NovaCaixaGaliciaren %93a beregain hartuz. Geroztik egoera hobetu ez eta, gobernuak dagoeneko banku bihurturiko kutxa hau Novagalicia Banco enkantean saltzeko aukera baztertu du. Baina bada gehiago, zeren Novacaixako zuzenda-

ri ohia, Jose Luis Pego, kalte-ordain eta pentsio moduan 10,8 milioi hartuta lekutu baitzen. Burbuilarekin negozioa ederki egin ondotik, krisiarekin, Estatuaren diruarekin, denen diruarekin aberasten jarraitzen dute. Ordainetan, ekonomia usteldu eta herritarrendako langabezia eta murrizketak alde guztietatik. Eta guk Aroztegiako proiektu espekulatzailea egin ten utzi behar diegu?

Basozain ala herriko alkate lane-tan moldatzen zara hobekien?

Basozain.

Zergati basozain?

Gustuko dudana hori delako eta alkate lana egitea baino errazagoa delako. Alkate lana diferentia da, gustuko dut baina zailagoa da.

Zein dira Baztango herrietako alkateen kezka nagusiak?

Momentu honetan, diruarekin dau-dan arazoak. Eta noski, Baztango herrietako alkate gehienek aukera gehiago nahi genuke herrian zer egin erabakitzeko. Udaletxe-tik independentzia ge-hiago nahi genuke.

Denbora librean, zer egitea gustatzen zai-zu?

Mendian ibiltzea eta haurrekin egotea.

Arizkungo bestetako ekitaldirik gustukoena?

Sanjuan suak.

Zer dute faltan Arizkun-go bestek?

Aurrekontu haundia-go ba-tekin ekin-tza

11 galdera labur

gehiago antolatzeko aukera falta da, baina dagoen aurrekontuarekin nahiko beteak daude.

Arizkungo bestak, inauteriak ala Baztandarren Biltzarra. Zein duzu nahiago?

Inauteriak, dudarik gabe. Niretako inauteriak izan dira indartsuenak, herrian bertan, herritarren artean eta giro ederrean bizi dira Arizkun-nen.

Zer du Arizkunek Baztango ber-tze herriek ez dutena?

Leku zoragarri batean dagoela ko-katuta.

Baztango mendirik ederrena?

Irubelakaskoa.

Zein egoeratan daude gure mendiak?

Nahiko ongi daude. Zaintzen dira baina neguan aunitz su-fritzen dute suarekin. Baina zonaldeka ongi ari dira erre-kuperatzen.

Baztan hitz bakar batean deskribatu beharko bazenu?

Zoragarria dela, polita. Niri aunitz gustatzen zait Baztan eta guztiz Baztan-goiza-lea naiz.

Juan Kruz IRIARTE → Basozaina eta Arizkungo alkatea

ZUBIONDO
Jatetxea
sagaridutegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAIFARROA

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barrukoak eta fatxadak
tel. 666 235 466

948 631 218
Kanttonberr 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
KATEA-BIKE

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta merdi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratatutako laguntzak
- Enpresa berri ezaburuen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta alorpenak
- Etiberritasun eta jubenazio espedientiak
- Bidegarritasun planak eta sumekotutak

www.artekari.com

ISSAKA: Siltirio, 77. behe - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050
BURLEATA: La Villo, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

GIZARTEA

PROTESTAK → ARLO PUBLIKOAN MOBILIZAZIOAK

Murrizketei ezetz erranez segitzen dute

TTIPI-TTAPA

Elkarretaratzeak herri gehienetako eskoletan, asanblada iraunkorrek Berako Rikardo Baroja eskolan, Doneztebeko ikastetxean eta Elizondoko Lanbide Eskolan, itxialdiak Ricardo Barojan (50 lagun), Elizondoko Lanbide Eskolan (27 lagun) eta Doneztebeko San Migel eskolan (15 lagun), kotxe karabanak greba egunetan, greben segida haundia eta Iruñean egin diren mobilizazioetan parte hartze zabala.

Maiatzaren 28, 29 eta 31ko greba egunek segida zabala izan zuten eskualdean, ikastetxe gehienak guttieneko zerbi-

tzuak eskaini baitzituzten. Nafarroa iparraldean maiatzaren 31ko grebaren jarraipena, erraterako, sindikatuek «erabatekotzat» jo zuten. Egun horretan arlo publiko osoan deitu zuten greba eta eskualdeko udal eta langile komunitate aunitzetan bat egin zuten grebarekin eta osasun arloko zenbait langile ere murrizketen aurka azaldu ziren.

Bertzalde, ekainaren 5ean Lekarozko enpresa kanpuseko eraikin berria inauguratzera etorri zen Lourdes Goikoetxea Nafarroako Gobernuako kontseilaria eta ederki aditu eta ikusi zituen Baztan, Bortzirriak, Malerreka eta

Leitzako eskolan maiatzaren 29an egin dako elkarretaratzea.



Berako Ricardo Barojan elkarretaratzea.



Elizondoko Lanbide Eskolako ikasleak plazan eskola ematen.



Bertizaranako ikasle, irakasle eta gurasoen pro-

testak, jendetza elkartu baitzen murrizketen aur-

ka Lekarozen egindako protesta zaratzatsuan.

Doneztebeko eskolako irakasleak itxialdian.



Elizondoko Lanbide Eskolan egindako itxialdia.



Elizondoko elkarretaratzea.



Lekarozen protestak, Goikoetxea kontseilariaren bisitan.



ARIZKUN, ERRATZU eta DONEZTEBEko bestak 2012
ekainaren 22tik uztailaren 1era



iujuuuuu!

gora
ARIZKUNGO
bestak!!

gora
DONEZTEBE!!

aupa ERRATZU!!



BAZTANDARRA KOOPERATIBA
Baserritarren zerbitzurat
Tel: 948 453310 • 948 453375 • Fax: 948 456201
Ordoki Auzoa • ARIZKUN

JALRENA
Condominio - Autogaraje
Teléfono: 948 453 451
919 514 508
Ordoki Ind. • ARIZKUN

Dutarimuno
Ekaritokiak eta etxebizitzak
Dutari baserri • ARIZKUN • T616 756 359

BERRO-BIDE
Nekazaritzaren eta nekazaritzaren
zerbitzuak
Tel: 948 453 543
Fax: 948 453 425
Ordoki • ARIZKUN

BAZTANGOIZA
Auto, kamioi eta nekazaritzako
makineriaren konponketa eta salmenta
Ordoki ind. 31773 Arizkun
BAZTANGOA
Tel. i Fax: 948 453 493
TOYOTA
JAN-DE-OTER

BIXTA-EDER
restaurant - jatetxea
OSTIRALA, LARUNBATA, IGANDEA
ETA BESTA EGUNETAN IREKIA
948 453 358 - 890 335 327
Azpikuetako errep. - ARIZKUN
www.bixtaeder.es - bixtaeder@hotmail.com



EGITARAUA

Ekainak 22 ortzirala **BESTEN HASMENTA**

12:00 Dianak, txupinazoa eta gazteen luntxe. **13:00** txopo goratzea. **14:00** bazkaria frontean. **17:00** Jinkana eta kantaldia GARAZIrekin. **19:00** dantzaldia TRIKITEENS taldearekin. **21:30** Baztanzopak. **23:30** kontzertuak. **02:00** Dantzaldia TRIKITEENS taldearekin. **05:00** ziztor jatea.

Ekainak 23 larunbata **HAURREN EGUNA ETA SAN JUAN BEZPERA**

10:00 dianak. **10:30** haurrendako joku eta puzgarriak. **13:30** haurren bazkaria. **14:30** eskulanak Amaia Zinkunegirekin eta haurrendako jinkana. **16:30** Gorritiren ikuskizuna. **18:30** txokolatada. **19:00** Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin. **Ilunabarrean** San Juan suak eta ezkil jotzea. Ondotik antzerkia eta gero bokadilloak salgai izanen dira. **00:30** Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin. **05:00** zingar jatea.

Ekainak 24 igandea **SAN JUAN EGUNA**

10:00 dianak. **11:00** Meza Nagusia. **12:00** Mutildantzak, haurren dantzak eta herriko luntxe. **18:00** kantaldia AIRE AHIZPEkin. **20:00-21:00** Dantzaldia HOLAKO taldearekin. **20:00** Mutildantzak eta gaita. **00:00** Dantzaldia HOLAKO taldearekin. **05:00** gasna jatea.

Ekainak 25 astelehena **ZIKIRO EGUNA**

10:00 dianak. **12:00** Mus ifezture. **14:00** ZIKIRO-JATEA. Ondotik herri poteoa EGHOAK txarangarekin. **19:00** dantzaldia JOXE ANGELEkin. **22:00** Mutildantzak eta gaita. **00:00** Gaixoa Ni eta txopo botatzea. Ondotik, gogoak dutenendako besta eta ez dutenendako ere bai!



Gastotegi berria
Gorramendi
Baztangoiza
540 Gortariak • Ordoki Auzoa
Arizkun • Tel. 948 453 400
www.gorramendi.eu
Dastatzen
gaita
gaztari
Bakete gaitatzen
948 453 400
www.gorramendi.eu

TXARTELAK
Kartulina berezia 400p. + 2 alde
koloretan + BEZA berrak
500 115€
Baztangoiza
Tel. 948 453 400 • 948 453 400
www.ttipi-ttpa.com

EGITARAUA

Ekainak 28 ortzeguna HAURREN EGUNA

10:00 Argi soinuak. **11:00** haur jokoak eta suziariak. **13:30** txupinazoa eta ezkil jotzea. **13:30** haurren eta gurasoen bazkaria Kastonean. **15:30** haur jokoak. **17:30** Izpegiko Igoera III. Herri Bizikleta martxa. Ondotik, haurrendako txokolatada eta sari banaketa, Erratzuko FanfarOnak alaiturik. **20:00** Dantzaldia Frantxiskorekin. **21:30** Mutildantzak, gaita eta larrain dantza. **21:30** Baztanzopak eta kantu zaharren afaria Kastonean Joxe Angelek alaiturik (txartelak Kastonean eta Albantzenean) **00:00** Dantzaldia FRANTXISKOREkin.

Ekainak 29 ortzirala SAN PEDRO EGUNA


10:00 argi soinuak. **11:00** Meza. **12:00** Mutildantzak eta luntxa herriko plazan. **17:00** herriarren arteko jinkana. **19:00** bertso saioa herriko plazan: Angel Mari Peñagarikano, Julen Zelaiaeta, Xabi Paya eta Iñigo Manzisidor *Mantxi*. Gai jartzaileak: Iban Dufurrena eta Jon Barberena. **21:00** errepresaliatuen aldeko kontzentrazioa plazan. **21:30** Mutildantzak, gaita eta larrain dantza. **22:30** su artifizialak. **23:00** kontzertua Zubipuntan. **00:00** Dantzaldia DANTZADI taldearekin.

Ekainak 30 larunbata GAZTE ETA HELDUEN EGUNA

10:00 argi soinuak. **11:00** aperitifa. **12:00** haurrendako ikuskizuna Zurrunka antzerki taldearekin: *Erraldoi bihotz gabea*. **14:00** Piki-nikia merenderoan, ondotik kalejira Iban eta Joxek alaiturik. **17:00** Euskal Herriko segalari txapelketaren finalerdiak Iñarbilen. Sarrera 10 euro. A multzoan: Jon Kanflanka, Garikoitz Etxeberria eta Mikel Alkorta. B multzoan: Juan Joxe Lizaso, Angel Maguregi, Jon Intxaurbe eta Jesus M^a Ormaetxea. **19:30** pilota partidak Etxelebert pilotalekuan. Pala motzean: Gaubeka-Ibargarai/Fusto-Aierbe. Eskuz binaka: Mikel Goñi-Eskudero/Chafee-Goñi III. **20:00** Dantzaldia DANTZADI taldearekin. **21:00** Mutildantzak, gaita eta larrain dantza. **00:00** Dantzaldia DANTZADI taldearekin.

UZTAILAK 1 igandea ZIKIRO EGUNA

10:00 argi soinuak. **11:00** pilota partidak Gorostapolon. **13:00** zintzur bustitzea. **14:30** zikiro jatea FRANTXISKOK alaiturik. **20:00** Mariatxiak herriko plazan: TXUTXIN IBANEZ Y LOS CHARROS. **21:30** Mutildantzak, gaita eta larrain dantza. **22:30** dantzaldia Iparlan: PANPI PORTUGAL. **00:00** dantzaldia FRANTXISKOREkin.





ANGIE ACADEMY

- Nagusi-erak
- University of Cambridge azterketara aurkezteko prestatutza
- Eskola laguntza
- 2011/2012 ikasturteko ikasleentzako azterketak, plaza mugatuak

AURTEN OSPATZEN DITUQU 29 URTE MAILERREKAN
Ongi pasa bestak!

Etxegibela, 7 bilera • 31740 DONEZTEBE
T. 626 008 070 • angieacademy@gmail.com



FRUTAK eta BARAZKIAK

ONGI PASA BESTAK!

Zarapigutza, 4
648 451 330
DONEZTEBE



Mailposta Papertegia

Eskola eta bulegarako materialak
Tinta eta toner erreziklatu edo konpatibleak
Fax zerbitzua
Fotopuzleak

Publizitate banaketa
Inprentako lanak...

Zeuk behar duzun guztia eskura!

Nagusia, 4 • DONEZTEBE
948 451 484 • 686 747 713



Eduardo ALMANDOZ | Banderaren dantzaria

«10 urte beteko ditut bandera dantzatzen baina oraindik aunitzentzat Odriozolaren ondorengo dantzari berria naiz»

Doneztebeko San Pedro eguneko ekitaldi berezien artean, Meza ondok dantzatzen den Bandera dantza da, herritar guztiek arretaz ikusten dutena. Urteetan Odriozola familia-rekin lotutako dantza izan da. Lehenik Federico Odriozolak dantzatu zuen 25 urtez eta honi, Juan Luis Odriozola semeak hartu zion lekukoa eta bertze 17 urtetan aritu zen herriko dantza taldearen saioari hasiera ematen.

Duela hamar urte, ordea, Eduardo Almandozek (18 urte zituen orduan) hartu zion txanda. Beraz, aurtengo hamargarren urtea beteko du lanbidez *tornero*-fresatzailea den 28 urteko mutil honek bestetan leku berezia duen eginkizun horretan, baina oraindik ere Odriozolaren ondorengo dantzari berritzat hartzen omen dute aunitzek. Kirolarekin ere harreman berezia du Eduardok, «*ttiki ttikitatik hainbat kirol egin ditut*»-aipatu digu—. *Pilotan hasi nintzen lehenbizi 8-9 urtetan. Infatiletan, futbolarekin uztartu nuen Lesakako Beti Gazten jokatz. Ondotik, kadetetan, futbola utzi eta eskubaloian hasi nintzen eta 17 urte arte pilota eta eskubaloian federatua egon nintzen. Geroztik, eskubaloian segitzen dut Errekako talde seniorrean eta, orain ere, lagun arteko pilota partidak ez dira falta*.

Bandera dantzatzen hamargarren urtea eginen du aurtengo. «*Zeinen abudo pasatzen diren urteak!!*» aipatu digu Almandozek harrituta. Hala ere, «*oraindik aunitzentzat*

ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Eduardo Almandoz, bandera dantzatzen joan den urteko San Pedro egunean.





Juan Luis Odriozolaren ondorengo bandera dantzari 'berria' izatzen segitzen dut. Bertze dantzetan ez da inoiz aritu, baina bandera dantzatzea arras berezia da beretzat: **«Egia erran, arrunt momentu berexia da. Jende aunitz biltzen da eliz atarian eta ahalik eta hobekien egiten saiatzen zara»**. Prestakuntza aldetik, urtetik urtera guttiago egiten duela onartu digu Eduardo Almandozek. **«Egunen batez musikariekin, Itziar Irigoien txistulari-arekin eta Oskar Mindegia atabalariarekin elkartzen naiz eta horrela hirurok jadanik ikasia duguna freskatzen dugu, bertzerik gabe»** jakinarazi digu.

«KIROLAK BERE TARTEA BEHAR DU BESTETAN ERE»

San Pedro eguneko une berezi eta hunkigarri horretatik aparte, bestetako bertze ekitaldiren bat aukeratzeko eskatu diogunean zalantzak ditu Almandozek: **«Bertze ekitaldietatik eztaikit zein bereizi. Bat egitekotan, joan den urtean inprobisatu genuen peñen eguna. Baina bestetan denetan ibiltzen naiz gustora, remonte partidak, herri bazkaria,... Faltan botazen dudana, herri kirolak»**. Izan ere, bestetan kirolak ere bere tarte behar duela uste du Eduardok. Dioenez, **«alde batetik egitarauan dauden kirol ekitaldietara guttitan huts egiten dut; erremonete partidak, herri kirolak eta pilota partidak (azken urtetan ez daude)... eta bestetik, beti animatu izan naiz koadrilen arteko desafioetan parte hartzera, nahiz eta guttitan egin diren»**. Doneztebeko urte osoko besta eta ospakizun egitarau zabalarri begira, inauteriak ere gustoko dituela erran digu Eduardo Almandoz bandera dantzariak, **«urtean zehar besta aunitz ditugu eta saiatzen naiz bat ere ez galtzen baino inauteak izan dira orain arte gustokoenak, batez ere ortzegun gaua eta ortziraleko eguna»**.



**A1 - A - B - BTP
C1 - C eta E**

**karnetak ateratzen
ahal dira**

Besta onak pasat!

☎ 948 451 929

Leitzako errepidea, 2. bulego - DONEZTEBE

Mar Cruz

LEITZERRA

DONEZTEBE 948 451 112 ELLIZORRO 948 561 301



**BERA TARRA
ERAIKUNTZAK**

Leitzako b. 66 - 8. blokea 2C
DONEZTEBE

Jose Ignacio Maritorena Larraide
670 489 337

ONGI PASA BESTAK

zrb.net
informatika

Santa Lucia Plaza, 2
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 752
M. 609 418 097
info@zrb.net
www.zrb.net

BELARRA JATETXEA

Doneztebe, 31740

Doneztebe, 31740

GF

GONZALO FERNANDEZ
LAMANA y A.T. S. CV

Tragamiel (akzio) induskeria

• Diseño exterior: presbiterio, sala
parroquial, etc...
• Instalación eléctrica
• Etxeko eta industria-ko abarmentak
• Enpresen mantenimendua, etc...

Donostia, 2. DOÑOSTIA - Tel: 943 461 800

CTV

ALBAITARITZA
ZENTRU
TEKNIKOA

ONEL PASA BESTAKI

Rosa Seminario, 15 • DONEZTEBE
T. 948 450 591 • M. 659 884 374

TABERNA ZAHARRA

UDABERRI-UDAKO MODA

Gizoa eta amakomponistako
arropa-denda

Gortien eta
plazako arropak

Makaberriko kalea, 11
DONEZTEBE
Tel. 948 450 007

IRPINZA

**Aurtengo
bestak umore
adertean
pasatu**

Merkatarien karraka 28
948 431826
DONEZTEBE

DONEZTEBEKO
bestak 2012

EGITARAUA

Ekainak 28 ortzeguna **SAN PEDRO BEZPERA**

19:00 Agorreta Musika Eskolako ikasleen kalejira. **20:00** suziria botatzea Herriko Etxetik. Horren ondotik karrika-dantza CORCO txarangak eta txistulariek alaitua. Ohitura den bezala, Doneztebeko ostatueta eta elkarteetan zopak eskainiko dituzte afaltzeko. **00:30-03:30** dantzaldia AIERRIK musika taldearekin.

Ekainak 29 ortzirala **SAN PEDRO EGUNA**

09:00 diana CORCO txarangak girotua. **11:00** Done Petri Apostoluaren omenezko Meza Nagusia. Mendi Abesbatzak Lorenzo Perosi presbiteroaren *Missa Secunda Pontificalis*, Hilarión Eslavaren *Tu es Petrus*, Madinaren *Aita Gurea* eta Jose Antonio Irigoien doneztebarraren *Agur Doneztebe* abestuko ditu. Bandera-dantza, Trapatana eta bertze dantza tradizional batzuk, Erreka elkarteko dantza taldearen eta Doneztebeko txistularien eskutik. **11:00** Erraldoiak eta buruhaundiak aterako dira txistularien bandak lagunduta. **13:30** aperitiboa Herriko Etxekoaren behean. **17:00** Herri Kirolak Bear Zana pilotalekuan. **19:00** Erreka elkarteko dantza taldearen eskutik Euskal dantzak Bear Zana pilotalekuan. **20:00-22:00** Dantzaldia JALISKO BAND musika taldearekin. **22:15** zezezsuzkoa Bear Zana pilotalekuan. **00:30-03:30** Dantzaldia JALISKO BAND musika taldearekin.



DONEZTEBEKO
BESTAK 2012

Donostia: XXII. udalburua Xes

Doneztebeko Udalak
besta zoriontsuak
opa ditzkizue
herriar eta bisitari guztiei



Ekainak 30 larunbata **GAZTE BURRUNBA EGUNA**

09:00 diana CORCO txarangak girotua. **11:00** Buruhandiak herriko karriketan barna. **11:30** Dantza Jazz emanaldia kiroldegian, Rebecaren ikasleek eskainia. **12:00** Doneztebeko mus txapelketaren finala. **14:00** herri-bazkaria Intzakardin. Bazkalondoan txaranga eta akordeoia. Gazte Burrunbak antolatua Udalaren laguntzarekin. **17:30** Haurrentzako jokoak Guraso Elkarateak antolatuta, Intzakardin. **20:00-21:00** Dantzaldia TRIKIDANTZ musika taldearekin. **21:00-22:00** Musika ikuskizuna: Txalaparta, koral kantua, koreografiak, antzerkia, poesia, dantza eta txistua Santa Luzia Plazan. **01:00-04:00** Dantzaldia TRIKIDANTZ musika taldearekin.

Uztailak 1 igandea **TXIKIEN UDALA**

09:00 diana Doneztebeko txistulariek girotua. **11:00** Herriko Etxean ongi etorria eginen zaio Txikien Udalar. Horren ondotik, alkate txikiak eta honen zinegotziek suziria botako dute. Erraldoiak eta buruhandiak Txistularien Bandak lagunduta. **11:00** Plater-tiroketa, Ehiza Elkarateak antolatua. **11:30** Meza, Txikien Udalbatza buru dela eta erraldoiek buruhandiek eta txistulariek lagunduta. Euskal dantzak, dantzari txikiak eta txistularien eskutik. Buruhandiak herriko karriketan barna ibiliko dira. **14:30** Txikien Udala aukeratzeko parte hartu duten haur guztientzako bazkaria. **16:00-20:00** haurrentzako kart-ak eta puzgarriak Bear Zana pilotalekuan. **20:00** Herriko Etxean, Txikien Udalbatzak bere agintaritzaz utziko du. Egun honen oroigarri gisa, Txikien Udalbatzako kideei diploma bana emanen zaie. **20:00-22:00** Dantzaldia LAIOTZ taldearekin. **22:30** Su artifizialak. **01:00-04:00** Dantzaldia LAIOTZ taldearekin.





Miguelena
www.miguelena.es

ongi pasa bestak!

Etzetresnak | Sukalde eta bainugelako altzariak | Pareta-azmairuak

T. 948 450 925 | M. 677 525 292 • 677 525 324 | Ameztia zeharkaria, 1 • DONEZTEBE

KONTXA

Gasolindegia




✓ Deitu eta egun berean edo biharamunean eramanen dizugu etxera



ongi pasa bestak!

T. 948 450 272 • F. 948 450 810 • DONEZTEBE



DONEZTEBEKO bestak 2012

ttipl-ttapa | 568 zbk
2012.06.14

19



Oskar Mindegia, duela bi urte txupinazoa bota zuenean.

Oskar MINDEGIA | Kultur zinegotzia eta atabalaria

«Besta egiteko garrantzitsuena gogoak eta animoak izatea da, ez du bakarrik diruak eragiten»

Oskar Mindegia Doneztebeko udaleko kultur eta kirol zinegotzia da. 43 urte ditu eta 6 urte daramazki Herriko Etxean lanean, baina horretaz gain, kultur eta kirol arloan hainbat lan egindakoa da. 20 urte daramazki atabala jotzen, eta Zenzerock eta Trikidantz taldeko bateria ere izan zen. Kirol arloan, eskubaloian aritutakoa da, baina judoa bereziki maite du. Duela 24 urte lortu zuen gerriko beltza eta Doneztebeko judo eskolako irakasle da. Arlo horiek guztiak uztartuz, bestetan **«ahalik eta ekitaldi gehienetara»** joaten ahalegintzen da, **«modu batera edo bertzera bertan egon beharra egokitzen baitzait»**. Duela bi urte, kirol taldeen ordezkari eta zinegotzi gisara txupinazoa botatzea ere suertatu zitzaion, **«poz handia eman zidan, orokorrean eta pertsonalki, gaur egun bertze kirolean ari diren gehienak, tikiak edo handiagoak izan zirenean, nerekin zilipurdika ibiliak baitira judoan»**, dio Mindegia. Zenzerockeko garailetatik besta egiteko modua aunitz aldatu zaio-la dio, **«lehen gau eta egun besta egiten genuen, gaur egun egunez bakarrik eta pixka bat apuratuz, arratsalde-gau partea...»**. Bestetan **«gosariak»** dira gehien gustatzen zaiona. Aldiz, dianak hain goiz izatea ez zaio gustatzen, **«beranduxeago izan beharko ziren»**. Aurtengo beste dagokienez, lau egunekoak izanen dira eta 35.000 euro inguruko aurrekontua dute. Guraso Elkarteek edo dantza taldeak ekimen berritzaileak antolatuko dituztela ere aipatu digu. Diru gehiago izanez gero gauza aunitz ekartzea gustatuko litzaiokie, **«partidak, kontzertuak, baina nerretzat, besta egiteko orduan garrantzitsuena animoak eta gogoak izatea da eta horretan ez du bakarrik diru kontuak eragiten»**. Doneztebeko kirola osasunez ongi ikusten du zinegotziak, **«neska-mutiko aunitz ari dira kirolean, konpromiso handia hartu duen jende multzo bat dagoelako, egiten duguna gustatzen zaigu eta gainera laguntza handia ematen digute, lan ona egiten ari da»**. Kultur arloan ere mugimendua badela aipatu digu, **«Burrumbako gazteekin, guraso elkarteek antolatzen duten zine eta antzerkiekin, udako erakusketekin...»**. Trapatan dantza berriki berreskuratu dela eta dantza taldea sortu dela ere azpimarratu nahi izan du, **«denborarekin sendotzen ari da eta neska talde batek gidatuta, lan handia egiten ari dira tikiarekin nahiz haundiekin. Erreka dantza taldeak emanaldi aski bereziak eskaini ditu»**.

Sampi Aragón, S.A.
MARKA GUZTIEN KONPONKETA
Mikroonda | Elektrifikazioa | Txapaz | Pinturak
948 450 354 | DONEZTEBE
sampilaragon@telefonica.net

GURE
Dantza | Etxeak | Baserak
Ongi pasa bestak
Pamplona, 19 • DONEZTEBE • T. 948 45 08 19

ARIN
ASEGURUAK
DONEZTEBE
Ongi pasa bestak
Pamplona, 21 | DONEZTEBE | T. 948 450 266 - F. 948 450 617
Etxepark, 26 | BERA | T. 948 625 265 - F. 948 625 264

Mutuberria Alimentación S.L.
Aliprox
T. 948 456 152
Zarapigutze, 8
48740 DONEZTEBE
mutuberria_alimentacion@hotmail.com

Arozena
ostatu · jatetxea

Gosariak
pazkariak
eta afariak

(79) 450
bestak

T. 948 450 443
Lertxakoa errep. 84 - Doneztebe

Belén lore-denda

unif. jaso hemen

Intzakardi - DONEZTEBE - T. 948 45 17 58

Juanotena
zurgindegia

Astak - Ekaslerak - Lamiak - Teltak

Zurgin lanak orokorrean

948 450 211 - Lertxakoa bidea - DONEZTEBE
info@juanotena.com - www.juanotena.com

616 513 497

ESKABAZIOAK

**ESKABAZIO eta
GARRAIO LANAK**

T.F. 948 451 388
Erpeira, 1 - DONEZTEBE
pittieskabazioa@iera.es
www.pittieskabazioa.com

ZERGALAN
aholkularitza

Zuen negozioen paper guztietaz
arduraturiko gara: kontabilitatea, zergak,
langileak, erakuntzaren formakuntza...

www.zergalan.es

enxi gurea bestak!

Sitza kalea, 22 - 31740 DONEZTEBE (NA)
Tel. 948 450 395 - Faxa: 948 451 304

Marash

Glazor, emakumeen eta haurren
onuragarriko konposaketa eta
asortu-denda

Marash kalea, 7 - DONEZTEBE
T. 948 451 350



Patxiku GANBOA | Errekako entrenatzaile eta Laxoa Elkartekoa

«Pilota partida handi bat ekartzea gustatuko litzaidake, baina garestia da eta Donezteben ez du arrakastarik»

Uztailen 44 urte beteko ditu Patxiku Ganboak eta gorputz heziketako irakaslea da. Laxoa Elkartean laguntzen 10 bat urte daramazki eta Doneztebek kirol honetan inoiz izan duen talde oneneko kide izan zen. «**Nik jokaturako finaletan, 14 aldiz txapeldun atera baginen ere, harro egoteko arrazoi nagusia, txapel kopurua baino gehiago, talde horretan aritu ahal izana da**», dio. Gaur egun Errekako eskubaloi talde nagusiaren entrenatzaile da, nahiz eta jokalaria bezala ia-ia ibili gabekoa den: «**Aunitzek orain ulertuko dute zergaitik hainbortze hanka sartze**» dio txantxetan. Ikasketetan eskubaloia aukeratu ondotik, Errekan ibili zen entrenatzen hainbat urte eta maila ezberdinetan. Senior taldea urte batzuetan entrenatu ondoren, utzi eta denboraldi honetan berriro hasi da senior taldea entrenatzen, Felipe anaiarekin batera eta Luismi Apeztearekin laguntzarekin.



Lana izaten duenez, San Pedro bestetako lehen egunetan besta girotik urrun egoten dela aipatu digu Patxikuk: «**Ekainaren 30a arte lanean ari naizenez, normalean lehenengo egunetan besta girotik urrun ibiltzen naiz. Gelditzen diren egunetan, lagunekin edo familiakoekin afaldu edo bazkaldu, egunez dauden ekitaldietara joan, gaueko giroa ezagutu...eta goizaren batean resaka ahal den moduan pasatu**». Urteen poderioz, adinarekin, bestan murgiltzeko modua ere aldatu dela onartu digu Ganboak: «**Dudarik gabe. Gazte garaian, gauak eta juerga ziren egitarauaren osagai bakarrak. Denborarekin, eguneko giroa gustoragokoa bihurtzen da, nire kasuan behintzat**».

Egitarauari dagokionez, nahiz eta gehienetan bertan izaterik ez (edo beharbada horregatik), San Pedro eguneko goizeko ekitaldiak ditu gogoko, «**Dantza taldeko erakustaldia, ikurrinaren dantza, geroko giro polita... Batekin gelditu behar izanez gero, ikurrinaren dantza da aski momentu berezia da**».

Hain gogoko ez dituen ekitaldiak ere baditu, baina ez litzuke kenduko. «**Beti daude batzuk norberarentzat hain erakargarriak ez direnak**, —dio— **bainan kendu ez, bertze batzuentzat gustoak izanen baitira. Su artifizialak, adibidez, ez naute motibatzen, bainan bertze aunitzentzat ikaragarri politak dira**».

Merkaopari
Made in Euskal Herria

Etor zaitez ikustera

Euskal Herrian egindako artikulu berriak

Hauak
eta
askoz gehiago

Merkaopari denda



Programari zerbait gehitzekotan, profesionalen arteko pilota partida ekarriko luke Ganboak, **«behar bada eta diruari begiratu gabe, esku pilotako partida haundi bat gus-tora ikusiko nuke. Bainan garestia da eta Donezteben ez omen da arrakastatsua»**. Besta tikiak, Sanpedroak, inauteriak... Bakoitza bere garaian, denak bereziak direla uste du Patxiuk, eta Feria eguna ere ikaragarri polita iruditzen zaio.

Kirolaria eta kirolzalea izanik, kirolak bestetan ere bere tartea izan dezakela eta izan behar duela uste du, **«hori bai... ikusle moduan. Herri kirolak, pilota eta bertze kirol batzuk, egitarauan ezinbestekoak ikusten ditut»**.

Duela pare bat urte kirol talde guztiek elkarrekin bota zuten San Pedro bestetako txupinazoa Herriko Etxeko balkoitik... Dударик ez da kirolak garrantzi berezia duela Donezteben eta erremontean edo eskubaloian, erraterako, goi mailako kirolariak eman ditu. Formula zein den galdetuta, **«Buff, jakinez gero patentatuko genuke formula. Errekaren lana (azkeneko urteetan Doneztebe FTkoa ere) eta Koteto, Lizaso, Niko edo Meoki bezalako figura handien agertzea garrantzitsuak izan dira»**, erantzun digu.

Berak gidatzen duen Errekako eskubaloi taldea bikain ibili da aurtan, Nafarroako liga-ko final fourera sailkatzea lortuta eta heldu den urtean lanean segitzeko asmoa du.

«Bai, datorren urtean Felipe eta biok segituko dugu, Luismi Apezetxe-aren laguntzarekin», aipatu digu Ganboak.

Patxi Ganboak Errekako eskubaloi talde nagusia gidatu du aurtan, emaitza bikaineekin eta orain, lana dela-eta lehen egunetan Donezteben izaterik ez badu ere, San Pedro bestak hasteko irrikitan dago.



PATXI ZAMORANO
- Berriztatutak eta lokotutak kabinak
- Errebatutak eta Lokotak
- Fatxadak
T. 948 450 734 - 406 377 424 | Leitzako bidea - DONEZTEBE

ANTONIO ARTAZCOZ GOÑI
Loteria primitiva | Kineketak
Fotokopioak
T. 948 450 081
Merkatarien karrirak, 8 • DONEZTEBE

Juantxo San Miguel
Iturgintza • Kalafakzioa
gasa
T. 948 450 066 • 428 112 455
Etxagibela, 3 • 31740 DONEZTEBE

Kimetz Belardenda

- Dietetika eta nutrizioa.
- Dieta pertsonalizatuak. Gema eta likidoen kontrola.
- Masajeak: terapenikoa / osteopatia / reflexoterapia / kiropraxia...
- Naturopatia / iaktologia / bach loreak / quantum / terapia emozionala...
- Bioenergetika.
- Akupuntura.

BESTA ZERBILTSAK OPA DIZKIZUETI!

Tel. 948 451 473
Leitzako errep. 3 beheak | 31740 | Doneztebe
kimetzelardenda@hotmail.com

DONEZTEBEKO bestak 2012

ARGAZKI ALBUMA



Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE | Tfnoa: 948 450 333
Autoen konponketa eta salmenta | Txapa eta pintura

Mundu gurtiak ikurteko!
Kortezatutak | Herri-koartak | Txaparrak
Kortezatutak

100 KARTEL 93€
(A3 koloretan)

250 KARTEL 110€
(A3 koloretan)

*83 gata (NIR) | Irakurketa-eremua: 2012/06/30

ETXALARI | 948 455 458
ttipi-ttapa | www.kulturakari.com

OSPAKIZUNAK → EKAINAK 15, 16 ETA 17

Altzateko bestak ospatuko dituzte ortziral honetatik igandera

Ortziral ilunabarreko txupinazoarekin hasiko dira

TTIPI-TTAPA

Herriko besten artean, bere tokia duten Altzateko bestak gainean dira. Ortziraletik igandera izanen dira.

ORTZIRALA, EKAINAK 15

- 19:00-21:00: pintxo potea Altzaten.
- Txupinazoa Katakuko terrazatik.
- Ondotik kalejira txistulari, erraldoi eta buruhaundiekin.
- 19:00etatik aitzinera pote bakoitzarekin zenbaki bat emanen da, igandean zozketatuko den bidaiarako. Bidaia bi lagunentzako Asturiasen asteburua eta Sellaren jeitsiera egiteko aukera izanen da. Sarituak plazan egon beharko du.

LARUNBATA, EKAINAK 16

- 10:00: plater tiroketa.
- 12:00: Herri Kirol Taldearen erakustaldia plazan.
- 13:00: kalejira erraldoi eta buruhaundiekin.
- 14:00: bazkaria Katakuko terrazan. Apuntatzeko txartelak Purieñan daude salgai.
- 16:00: haurrentzat biziginkana Matzadan.
- 17:00: kronoeskalada Matzadatik Mitxinbordara. Apuntatzeko ordu erdi lehenagotik.
- 19:00: Gure Txokoa Dantza Taldearen erakustaldia plazan.

- Ondotik Faideleri omenaldia.
- 23:00: kontzertuak plazan: I can't explain eta Irune eta Itsaso ahizpak.
- Atsedendian suzko zezena karriketan.

IGANDEA, EKAINAK 17


- 11:00: meza Altzateko elizan.
- 17:00: hip-hop dantza emanaldia Ikastolako haurrekin plazan.
- 18:00: Rebecca dantza jazz ikuskizuna plazan.
- Gero bidaiaren zozketa.
- Arratsaldean, Ikastolako gurasoen taloak.

Herriarteko Pilota Txapelketatik kanpo

Nafarroako Herriarteko pilota txapelketaren barne, Bera Uharteren kontra aritzekoa zen maiatz hondarrean Uharren, eta Uhartekoek larunbatean jokatu beharrean, partidak igandearrekin egitea erabaki zuten. Berako ordezkariak igandean ezin zutela kategoriaz guztietan bikoterik aurkeztu jakinaraziz, ten eta ortziraletan edo larunbatean jokatzeko eskatu arren, ezezkoa jasozuten. Seniorretan ezin izan zuten bikotea osatu eta aurten txapelketatik kanpo geldituko da Bera eta heldu den urtean ere ezin izanen du aritu.

Bestetako programaren azala

Herri bozketak erabakiko du Sanestebanetako egitarauaren azal irabazlea. 10 lan aurkeztu dira eta orain lan horiek



ARGAZKIA: TOKI ONA INSTITUTUA

Ekitaldi akademiko berezia Toki Ona Institutuan

Toki Ona Institutuak ekitaldi berezia antolatu zuen maiatzaren 25ean, ikasturte honetan ikasketak bukatu dituzten ikasleei errekonozimendu ttiki bat egin eta orlak banatzeko. Ikasturte honetan 57 ikasle bukatu dituzte ikasketak, 9k Lanbide Heziketako Goi Mailan, 38k Batxilergoan eta 10ek Erdi Mailan. Ekitaldia Kultur etxean egin zuten, eta ikasle, guraso, irakasle, institutuko langile eta Bortzirietako udal ordezkari batzuk bildu ziren. Hasteko ikasle eta langileek musika emanaldia egin zuten, gero zuzendaritzaren agurra etorri zen eta ondotik, irakasle eta gurasoena. 2. batxilergoko ikasleek agurra egindakoa, orla eta diplomak banatu zituzten. 1go batxilergoko ikasleek dantza saioa ere eskaini zuten eta bukatzeko luntxa.



ARGAZKIA: GOIKO

Jaunartzea

Argazkiko neska-mutiko koadrilla honek egin du aurten Jaunartzea.



UTZITAKO ARGAZKIA

Viajes Iberia zena Vivo Viajes da orain, eta marka berriaren estreinaldia zozketa batekin hasi du

Sustapen kanpainaren barnean, bidai bat erosteagatik, bezeroek egunero 1.000 euroko 5 ordainsariren zozketan parte hartzen zuten. Eta Vivo Viajes-ek Beran duen bulegoan bi sari egokitu DIRA. Saridunak Gloria María Rodríguez Hincapié eta Cristóbal Ruiz Pérez izan dira, biak beratarrak.

bozkatzeko aukera izanen da Herriko Etxean

09:00etatik 13:30era astegunez. Saridunak 300

euro izanen ditu. Hilaren 20ra arte egin daiteke.

LESAKA

OSPAKIZUNA → EUSKARA BATZORDEAREN ESKUTIK

Euskaraz Bai Eguna antolatu dute aurten ere San Juan bezperarako

Etxe guztien izenak biltzen dituen argitalpenaren aurkezpena egingen da

Aitor AROTZENA

Euskara erabiliz goiburuean, Euskaraz Bai Eguna antolatu du aurten ere Euskara Batzordeak ekainaren 23an, San Juan bezperan, egun osoko egitarauarekin.

10:00etan diana izanen da txistulariekin. 10:30ean haur eta gaztetxoentzat herribuelt txirindulaz, Plaza Zaharretik abiatuta. Euskara erabiliz, geldialdiak egingen dituzte etxeen bitxikeriak, errotak, dolareak, kisulabeak, lanbide zaharrak, ohitura galduak eta bertze hainbat jakingarri eza-gutuko.

Arratsaldean, 18:30ean Bittiria karrikako etxeen izenak paratuko dituzte, herriko musikariek alaituta. 19:30ean, *Gure etxeak euskaraz, euskara gure etxea* argitalpena aurkeztuko

dute Plaza Zaharrean. Liburuxka honetan, Lesakako etxe guztien izenak bildu dituzte. 20:30ean sua pizteko ekitaldia egingen da Plaza Zaharrean. Euskara Batzordeak bi su piztuko ditu, bat haurrentzat eta plazan ezin izanen da su gehiago piztu. Dantzak, txaranga, akordiolariak, abesbatza, bertsolariak eta haurrak kantari ere izanen dira plazan. Gaueko 21:30ean herri afari autogestionatua egingen da plaza inguruan. Euskara Batzordeak mahaiak paratuko ditu eta lagun taldeka, familiak edo nahi den bezala afaria etxean prestatu eta plazan denak elkarrekin afaltzeko animatu nahi ditu herritarrak. Ogitartekoak eta edariak eskuratzeko aukera ere izanen da. Bukatzeko, 23:00etatik aitzinera berbena izanen da.

Ikasturte bukaera

Herriko bi ikastetxeetan ikasturte bukaera prestatzen ari dira. Ira- in eskola publikoan ekainaren 21a izanen dute azken klase eguna eta



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Salvador Yanci omendu du Beti Gazte elkarteak

Beti Gazte elkarteak omenaldi berezia eskaini zion kasik hiru hamarkada hauetan elkarteko zuzendaritza batzordean eta azkeneko hamasei urteak presidentekarguan eman dituen Salvador Yanciri, «egin duen lan izugarria eskertzeko». Gainera, lan horretan segitzen du, oraindik ere zuzendaritza batzordean baitago. Maiatzaren 26an, futbol talde nagusiaren azken partidaren atarian Aurrekua dantzatu zion Ander Abuinek eta txapela jarri zioten Mikel Irigoien eta Beñat irazoki kapitainek, baita lore-xorta eskaini ere Marisol Irigoien emazteari.



UTZITAKO ARGAZKIA


Elkarrizan taldearen bidez musika emanaldia Zahar Etxean

Boluntarioak biltzen dituen Elkarrizan taldeak antolatuta musika emanaldi bereziaz gozatu ahal izan zuten Andra Mari Zahar Etxeko bizilagunek maiatzeko hondar larunbatean. Araitx Bizkai (gitarra) eta Marta Eslava (Txirula) musikariek hainbat abesti eskaini zituzten, tartean euskal kantu aunitz.

goiz osoan herri kirolak, jokuak, musika eta txistorrada izanen dute. 21:00etan 6. mailakoei agurra eskainiko diete eskolako jantokian afari eder bat eginez, 5. eta

6. mailakoei, ikasle hauen gurasoei eta irakasleek. Afaldu ondoren dantzaldia ere izanen da. Ekainaren 23an ikasturte bukaerako besta egingen dute, jo-

ku eta bazkariarekin. Tanturumairu ikastolan, berriz, hilaren 22an egingen dute ikasturte bukaerako besta, 17:00etan hasita ikasleek eskainiko duten jaialdiarekin.



OSPAKIZUNAK → ESKOLAK ANTOLATUTA

Goiz eta arratsalde izanen dira ekitaldiak igande honetako Haurren Egunean

Arratsaldean Tatxin eta Tatxan ikuskizuna izanen da

Irune eta Itsaso

Ikasturte akaberara hurbiltzen ari garenez, kanpaldiak antolatu dituzte eskolan. Horrez gain, Haurren Eguna antolatu dute igande honetarako, ekainak 17. Urtero bezala, goizean ikasturtean egindako ipuin eta lanak jarriko dituzte ikusgai frontoian. Ipuin batzuk ere irakurriko dituzte eta bakoitzak ipuin bat opari hartuko du.

Bazkaldu aitzineko tartea trikitilariak alaituko dute. Gero, bazkaria egingen dute frontoian. Eta 15:30ean, *Tatxin eta Tatxan* ikuskizuna ikusgai izanen da, adin guztietako jendearentzako Udalak antolatu duen erakustaldi musikala. Antzerkiaren ondotik, Guraso Elkartearen eskutik jokoak izanen dira.

Sanjuan sua

Ekainaren 23ko arratslean Sanjuan sua iza-

nen da Altxata Elkar- teak antolatuta. Herri- tar guztiei dei egin diete na- hi duen guztia bere be- rendu-afariarekin plaza- ra hurbil dadin 20:00 al- dera.

Larraburua Jubilatuen Elkarte

Erretiroa hartuta edo alargunduta egiten zen lehen Larraburua Elkar- teko kide, baina azken urte hauetan baldintzak aldatu dituzte. Hala, 55 urte bete dituen edo- zein herritarrek elkar- teko kide egin eta Larrabu- ruak eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzeko aukera du. Horretarako 680 673122ra (Fernan- do) deitu behar da.

Igerilekuko lanetarako deialdia

Igerilekuen funtziona- mendu, garbiketa eta mantenimendu lanak egiteko esleipenaren deialdia egin du Udalak. Bi langile behar dira eta baldintzak udal idazka- ritzan daude. Ortzegun honetako, ekainak 14, 14:00etarako aurkeztu beharko dira eskaerak.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Giro ederrean joan da aurtengo gasna eta artisau feria eguna


Aurtengoan inoiz baino gasna gehiagok hartu dute parte lehiaketan; 23k hain zu- zen, eta hauetatik zazpi Etxalarkoak. Honela gelditu zen sailkapen orokorra: lehenen- go postuan Urdazubiko Etxelekua gasnategia, bigarren Arizkungo Baztan gasnate- gia eta hirugarren Etxalarko Josetxo Ariztegi. Herriko gasnen artean epaimahaiaren ustetan onena, Intzeko bordako Josetxo Ariztegiarena izan zen, eta bigarren Beko- zubiko Juana Mari Arburua gelditu zen. Bertzetik, hamalau artisau izan ziren fron- toian; hauen artean Herri Baratzak ekimenekoak, burdina, zura, buztina, gasnagileak, gozogileak eta bertze hainbat. Eguerdian jende andana hurbildu zen trikitilari- en saioa entzutea. Herri bazkarian ere 90 bat lagun izan ziren. Hagitz arrakastatsuak izan ziren Kultur Etxeko kisu labeen argazki emanaldia, margo erakusketa eta bai Iriondoko tresna zaharrena ere. Eguna borobiltzeko dantza taldeak saio ederra eskaini zuen plazan. Altxata Elkarteak kontent dago egunak eman duen emaitzarekin.



ARGAZKIA: AXUN MAIA

Lehen Jaunartzeak

Maiatzaren 27an zortzi haurrek Lehen Jaunartzea egin zuten: Aiert Irigoien, Igone Arozena, Janire Telletxea, Irati Elizalde, Koldo Bizente, Markel Etxarte, Enaut Jau- regi eta Unai Arburua.



ARANTZA

KONTZERTUAK → GAZTE ASANBLADAREN ESKUTIK

Goienetxe Anaiak, Mendeku Itxua, Esne Beltza eta DJ Bull aurtengo Arantza Rocken

Jaialdiari
laguntzeko
rifak paratu
dituzte salgai

Nerea ALTZURI

Gazte Asanblada hasia da aurtengo Arantza Rock prestatzen. Abuztuaren 25ean izanen da eta dagoeneko taldeak zehaztu dituzte: Goienetxe Anaiak, Mendeku Itxua, Esne Beltza eta DJ Bull-ek eskainiko dituzte kontzertuak.

Arantza Rock-erako dirua biltzeko boletoa ere atera dituzte. Euro batean eros daitezke herriko denda eta ostaluetan eta inguruko ostaluetan. Sari potoloak presatatu dituzte: Euskal Herriko landetxe batean bi lagunentzako asteburua, Orioko talasoterapiari bi lagunentzako sarrerak eta bi afari Aterpen.

Abuztuaren 25eko ilunabarrean egingen da zozketa eta saridunak hila beteko epea izanen du agertzeko. www.arantzazka.eu, TTAPI-TTAPA eta Xorroxinen jakinaraziko dira zenbaki sarituak.

Baratzegintza ikastaroa

Joan den martxoan, baratzegintza ekologikoari buruzko ikastaroa izan zen Udalak antolatuta. Josune Zamora hondarrabiarraren eskutik ikasgaiari buruzko azalpen aunitz ikasiz zituzten. Baina praktikan, Josunen lan egiteko modua ere ikusteko modua izanen da orain. Ekainerako bere baratzeta eta negutegietara ateraldia egiteko gelditu ziren eta ekainaren 23an jarri dute hitzordua harat joateko.

Hiru Haundiak proba

Afizioz gainera, presatuntza ere ezinbertze-



ARGAZKIA: ARANTZAKO ESKOLA

Murrizketarik ez!

Azken asteotan, eskualdean egiten ari diren mobilizazioen berri izan dugu. Nafarroako Gobernua hainbat esparrutan, batez ere osasunbidean eta hezkuntzan, egiten ari den murrizketek haserre eta amorrua piztu dute herriarrien artean. Kalitateko hezkuntza aldarrikatuz, eta murrizketen kontra, manifestazioak, kontzentrazioak, itxialdiak, eta bertzelako ekintzak egiten ari dira. Argazkian, gure eskolako irakasle, guraso eta ikasleek maiatzaren 28an egindako elkarretaratzea ageri da.



ARGAZKIA: ARANTZAKO ESKOLA

Opil tailerra Panttaleonekin

Badakigu Panttaleon Errandoneak opila goxoak egiten dituela. Ba, maiatzaren 25ean Panttaleonek arto irinezko opilak nola egiten diren erakutsi zien bigarren zikloko ikasleei. Gaztetxoak gustora egon ziren eta aski opil onak atera omen ziren.

koa izanen da Hiru Haundiak proban parte hartu eta bukatzeko.

Goiz Argiko Xabi Alzuri Apezetxeak ekainaren

2ko gauerditik aitzinera, perezak utzi eta guatzearen partez, Gorbea, Anboto eta Txindoki mendien gainak zantpatzeko

ametsa bete zuen. Ia egun oso bat, zehazki, 22 ordu eta 19 minutu pasa zituen ibiltzen. 651. postuan sailkatu zen.

KOXKONTA Jatetxea
Herriko eta alferriko merke,
korta, eskaintzarik berekin,
jainotzarik berekin...

T. 948 627 519 • 948 627 503 • 659 801 657
Ollanga auzoa, 1 • LESAKA

aterpe
T. 948 634 119
ARANTZA
www.arantzazka.eu

okaNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
T. 948 630 018
Kanttonberrí 12 • BERA

IMANOL ITURRIA ZURGINA
Egiten dituzten produktuak:
T. 948 577 133
E-posta: imanol@iturria.com
Eskatu zure kontua kongressu-erik gabe

OSPAKIZUNAK → KULTUR BATZORDEAK ANTOLATUTA

San Juan bezperan eta egunean ekitaldiak izanen dira

Bezperan afari herrikoia eta egun haundian ohiko ekitaldiez gain, San Juan Xarrera ibilaldia eta barrikotea

Joxean ORTEGA

San Juan bestaren inguruan ekitaldi batzuk prestatu dituzte. Kultur Batzordeak proposatuta, San Juan bezperan afari herrikoia egingen da frontoian. Afarira norberak bere jana eta edaria eraman beharko ditu eta ondotik, ezustekoren bat izanen da, gau magikoa izanik, sorginak, ipuinak eta istorioak ezin dira falta... Gero, trafikoari moztutako errepide zatian su gainean salto egiteko aukera izanen da trikitalariek. Hau aitzinera eramateko herriarren partehartzea eta laguntza ezinbertzekoak direnez,

Kultur Batzordekoekin gaiari buruz solasteko edota ideiak emateko solasten ahal da.

Hurrengo egunean, San Juan Eguna denez, San Juan Xarren meza, dantzarien erakustaldia eta Baratzondo Elkarte- an bazkaria egingen dira. Hortik aparte, goizean ibilaldia egingen da San Juan Xarrera eta han gosari ederra. Arratsaldean, 18:30 aldera, barrikote herrikoia izanen da frontoian, trikitalariek alaituta.

Murritzketen kontra

Ekainaren 2an hezkuntza publikoan egiten ari diren murritzketen aurka manifestazioa egin zen Iruñean, eta Igantzitik joan ziren zazpi familiako kide eta irakasleei eskerak eman nahi dizkiegu eskolatik.

Igerilekuko prezioak

Igerilekuko bonu eta sarreraren aurtengo salneurriak taulan ageri dira. Aipatu, halere, denboraldiko bonoa hilabetearen arabera kobratuko dela, taulako prezioak ekainaren 15etik irailaren 15era bitartekoak dira, baina bi hilabete eta hilabete baterako ere hartzen ahal dira bonoak eta hori taulan ageri dena baino merkeagoa da. Gisa berean, tenis pistaren erabilera sarrera edota bonuaren prezioaren barrenean dago eta soilik argia erabili behar izanez gero, sei euro ordaindu beharko dira.

DENBORALDIA	Erroldatuak	Ezerroldatuak
18 urtetik goiti	40 euro	63 euro
11-18 urte	28 euro	42 euro
4-10 urte	17 euro	28 euro
4 urtetik beheiti	doan	doan
EGUN BAT	Erroldatuak	Ezerroldatuak
18 urtetik goiti	5 euro	2,5 euro
11-18 urte	3,5 euro	1,75 euro
4-10 urte	2,5 euro	1,25 euro



ARGAZKIA: JOXEAN ORTEGA

Letxuga ederrak

Aste hauetan eskolako baratzean ateratako letxuga ederrak ikasleen artean banatu dira.



ARGAZKIA: JAIONE SEIN

Jaunartzeak

Argazkian ageri diren Oier Sein Lizardi, Aiala Mitxeo Etxeberria, Anne Yanci Irigoien, Maren Etxenike Gerra eta Unax Arbelaiz Iguzkiagirrek Jaunartzea egin dute aurtan.



ARGAZKIA: JOXEAN ORTEGA

Anne Yanci saritua

Bertze saridun bat izan da eskolan. 8 urterekin, Anne Yancik Miranda de Argako Euskararen Lagunak Elkartea antolatzen duen ipuin lehiaketan hirugarren saria jaso du Maider eta Pedro izeneko ipuinarekin.



SUNBILLA

AISIALDIA → ULIBELTZAK

Ekainaren 24an Otsagabira irteera antolatu du Mendi Taldeak

Apuntatzeko epea hilaren 17an akituko da

Maidar PETRIRENA

Ulibeltzak Mendi Taldeak Otsagabira joateko ateraldia antolatu du. Ekainaren 24an izanen da eta joan nahi dutenentzako bi aukera eskainiko dituzte. Alde batetik, mendian ibiltzeko aukera izanen da, Taplatik Otsagabirako hamabi kilometroak oinez eginez. Bertzelako aukera nahiago dutenek Otsagabitik Muzkilda ermitara autobusez joateko modua izanen dute.

Ondotik denek elkarrekin Kixkia sagardotegian bazkalduko dute, sagardotegiko menuarekin. Bazkariak 30 euro eta autobusak 12 euro balio ditu eta apuntatzeko epea ekainaren 17an akituko da. Irteeraren egunean, berriz, 07:00etan aterako dira plazatik.

Antzerki Taldea Donezteben

Larunbat honetan, ekainak 16, herriko Antzerki Taldeak ikasturtea akitzeko emanaldia eskainiko du Doneztebeko zineman. Ea animatzen den jendea ikus-kizun polit hori ikustera.



ARGAZKIA: BIDA IBARRA

Trinitate Egunean Mendaurren

Denborak ez zuen batere lagundu Trinitate Egunean Mendaurren joateko, baina jendea animatu zen. Ulibeltzak Mendi Taldeak ere bere irteera egin zuen.



ARGAZKIA: ANA URROZ

Murrizketen kontra

Murrizketak min haundia egiten ari dira eskualdean eta horren aurka hainbat ekimen antolatu ziren maiatz hondarrean. Maiatzaren 29an eta 31n Malerrekako eskola titi-ekie, maiatzaren 25ean Sunbillan egin zuten bileran erabaki bezala, greba egin zuten guttieneko zerbitzuak eskainiz. Horrez gain, Sunbillako eskolan maiatzaren 28, 30 eta ekainaren 1ean goizeko 9etan 10 minutuko elkarretaratzeak egin zituzten.



ARGAZKIA: JUAN ANTONIO IBARRA

Arkupeak-ekoen irteera

Arkupeak elkartekoek izugarri irteera polita antolatu zuten maiatzaren 30ean eta 36 herritarrek parte hartu zuten. Lehenik Larunera bisita egin zuten, ondotik Sarako leizeak ikusi zituzten eta zoragarriak direla erran digute. Azkenik, bazkari eder batekin eta Joxe Anjel akordeoilariarekin akitu zuten egur eder hori Zugarramurdin.



ARGAZKIA: MAIDAR PETRIRENA

Herritarrak Malerrekako Egunean

Maiatzaren 26an Malerrekako Eguna egin zen Zubietan lehenbiziko aldiz. Ekitaldi andana izan ziren, baina erran beharra dago ekitaldiari hasiera Agurra dantzatzuz Sunbillako dantzariak eman zituela. Behin dantza akitutakoan, Itxaso Agirre herritarrek Zubietako alkate den Patxikuri (nahiz eta urtetan Zubietan bizi, berez sunbilda-rra da) Malerrekako zapia paratu zion. Eguerdian berriz ere herriko dantzariak saio eder eta polita eskaini zuten. Arratsaldean, bertze ekitaldien artean, mus txapelketako finala jokatu zen eta han aritu ziren herritik bi bikote: Josune Etxebeste eta Aintzane Arretxea, eta Joxe Mari Arretxea eta Juana Mari Agirre. Bigarren bikotea finalerdietaraino ere ailegatu zen. Zorionak denei!

KIROLA → SANPEDRO BESTEN AITZINEKO IGANDEAN

Erreka Elkarteak antolatutako XXXIV. Herri Krosa ekainaren 24an egingen da

Izen-ematea egun berean edo aitzinetik egin daiteke

TTIPI-TTAPA

San Pedro besten aitzineko igandean, aurren ere Herri Krosa egingen da Erreka Kirol Elkarrekin antolatuta. Ekainaren 24an egingen da eta XXXIV. edizioa izanen du.

Izen-ematea egun horretan irteera puntuan egin daiteke edo aitzinetik www.herrikrossa.com web orriaren bidez. Bortz euro ordaindu beharko dituzte jubenilek eta hortik aitzinerako kategoriek. Gazteagoentzat, aldiz, dohainik izanen da.

Mailaz maila, egin beharreko ibilbidea diferentia izanen da. Maila beretakoek 75 metro egin beharko dituzte, aurrebenjaminek 420 metro, benjaminek 590 metro, alebin neskek 1.140 metro eta mutilek 1.690 metro, infantil neskek 1.690 metro eta mutilek 2.240 metro, kadete neskek 1.825 metro eta kadete mutilek 3.650 metro, jubenil neskek 3.650 metro eta mutilek 7.300 metro. Neska senior eta betaranoek 3.650 metro egin beharko dituzte eta senior eta betarano mutilek 7.300 metro. Aurrebenjaminak, benjaminak,

alebinak eta infantilak 10:30ean aterako dira. Gainerakoak 11:30ean.

SARIAK

Gizonezkoetan, lehenbiziko helmugara-tzen denak 150 euro jasoko ditu, bigarrenak 90 euro, hirugarrenak 60 euro, laugarrenak 45 euro, bosgarrenak 30 euro eta seigarrenak bertzelako saria. Emakumezkoetan, lehenbizikoak 75 euro hartuko ditu, bigarrenak 45 euro, hirugarrenak 30 euro eta laugarrenak bertzelako saria izanen du.

Aisialdirako lokalen ordenantza

Udalaren mugapean dauden aisialdirako eta elkartzeko lokalak arautzen dituen ordenantzari behin betiko onespina eman diote. Kultura, aisia, josteta edo antzeko asmoekin jendea biltzeko erabiltzen diren tokiak dira, irabazi asmorik gabekoak eta eremu pribatu hutseko jarduerak egiten dituztenak. Eraikinen beheko solairuan daude eta ez dira ostatua, sukaldea, jate-txea edo gisako zerbitzuak sartzen. Ordenantzarekin lokal horiek erabiltzeko baldintzak zehaztu ditu Udalak.

Lokal barrenean plastikoa, kartoia, koltxoak edo su hartzen eta sua hedatzen laguntzen ahal duten gaiak pilatzea de-



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Arrantza jardunaldiak

Nafarroako Gobernuaren eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiaren Gertut lankidetzaz-proiektuaren barne, Arrantza Jasangarriaren Jardunaldiak egingo ziren ekainaren 2an eta horren barne, hainbat jardura izan ziren.

Mendi Abesbatzaren 15. urteurreneko emanaldi berezia larunbat honetan

Ikasturte honetan, hamabortz urte bete ditu Mendi Abesbatzak eta koro-kideek ez dute ospatu gabe utzi nahi izan. Hori dela eta, larunbat honetan, ekainak 16, emanaldi berezia eskainiko dute elizan, 20:30ean hasita. Abesbatzako kideez gain, Agorreta Musika Eskolako ikasle eta irakasleak, Erreka Dantzari Taldea eta Mendi Abesbatzako zenbait kide ohi ariko dira eta emanaldia borobiltzeko, urte hauetan guztietan bildutako argazkiekin osatutako bideo bat erakutsiko da estreinako. Egitarauari dagokionez, hamabortz urteotan abestutako doinuak biltzen saiatu dira, tartean Polifoniako zenbait kanta eta hainbat folkloretako doinuak: *Xalbadarren Heriotzean, Baratz bat, Sarasolaren Pater Noster, A Tu Lado, Kitolis, Herribehera zein Goizian Argia Hastean...* Horiek entzuteko aukera izanen da, bertzeak bertze. Eguna behar bezala akitzeko, partaide guziek afaria egingen dute.

bekatua egonen da, baita salerosketan aritzea ere. Ezin dira sukaldea edo jakiak prestatzeko tresnak eduki, eta 18 urtez azpikoetan alkohola eduki edo kontsumitzea debekatua dago, baita drogen lege kanpoko kontsumoa eta trafikoa ere. Ibilgailu eta oinezkoen bidea trabatuz, eremu publikoan altzariak nahiz edozein elementu ez dira onartuko, ez hots maila gaitzitzea ere.

Arau-hauste arinengatik 300 euro arteko isuna paratzen ahal da, arau-hauste larriengatik lizentzia bi hilabete arte kendu edo 300-600 euroko isuna paratu eta hargiz larriak bada, lizentzia kendu akatsak zuzendu arte edo 600-1.200 euroko isuna paratu.



Rúa Sanjurjo, 13 | DONEZTEBE | T. 948 450 400
info@musikamendi.com



DONEZTEBE SANTESTEBAN | Tel. 630 779 636
puntosantesteban@gmail.com

ITUREN

HERRIKO BESTAK → BILERA

Bestetako egitaraua ixteko bilera heldu den astelehenean

Bilera irekia Herriko Etxean eginen da

Arkaitz MINDEGIA

Dagoeneko finkatua dago aurten bestak uztailaren 13an hasiko direla. Hala ere, egitarauaren azkeneko xehetasunak lotzeko bilera eginen da astelehenean, ekainaren 18an. Jendeari irekia da eta parte hartu nahi duenak Herriko Etxean du hitzordua.

Bestaberri Eguna

Bertze herrietan bezala, gure herrian ere Bestaberri Eguna ospatu zen. Goizean meza izan zen eta han izan ziren udal zinegotzi eta alkatea. Eguerdian bertan berreskuratu den *dantza luzia* dantzatu zuten herriko dantzariak. Ondotik, Herriko Etxeko estalpean Udaren eskutik luntxa izan zen.

Jaunartzeak

Endika eta Alaznek Jaunartzea egin zuten maiatzaren 27an, dotore-dotore jantzita. Ederki pasatu zuten eguna familiarekin, bazkari on bat eginez.

Eskolako ikasleak Mendaurrera

Murritzketak direla eta, autobusa hartu eta azkeneko ateraldia kanpora egin beharrean, ordezgun honetan, ekainak 14, Mendaurrera joan dira oinez. Kaxkora igo eta gero, enbaltseetan geldituko dira egun-pasa. Ateraldi honetan ez dute sosik gastatuko, murritzketak eta krisia direla eta, bertan gelditzea erabaki baitute.

Halere, 4, 5 eta 6. mailakoak Irunberrin egon berriak dira aste pasa *English week* delakoan. Ingelesarekin trebatzeaz gain, Irunberriko arroiak ikusi, diskotekara joan, lagun berriak egin... Ederki pasatu dute.



ARGAZKIA: ITURENGO ESKOLA

Murritzketen kontrako protesta egin dute eskolan

Nafarroako Gobernuak hezkuntza publikoan egin nahi dituen murritzketen kontra, hainbat mobilizazio egin dira eskolan, inguruko bertze ikastetxeetan bezala. Batetik, 08:50etik 09:00etara kontzentrazioak egiten aritu dira astean hiru egunez; gurasoekin bilkurak egin dituzte; sinadura bilketa ere abiatu dute eta eskutitzak ere igorri dituzte. Horrez gain, eta ordukoa da argazkia, klaseak plazan eman zituzten maiatzaren 25ean. Maiatzaren 31ko greba egunekin ere bat egin zuten eta ekainaren 2an egin zen manifestaziora gurasoak, irakasleak eta haurrak joan ziren.



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Trikitixa eskolako emanaldia

Berriki akitu dute ikasturtea Mendaurren Trikitixa Eskolan eta horren harira, ekainaren 6an gurasoen aitzinean kontzertua eskaini zuten Aurtizko Koianea Ttikia frontoian, urritik maiatzera ikasitakoa erakutsiz. Hiru taldetan banatuta, gisa guztietako abestiak jo eta kantatu zituzten. Udazkenarekin batera ikasturte berria hasiko du trikitixa eskolak.



zure ziztada behar dugu

Telefonoz: 943 30 43 45

Posta elektronikoz: laguna@berria.info
www.berria.info/berrialaguna

Euskarazko hedabideen etorkizuna **gure esku** dago.
Geuk eutsi beharko diegu.

Izan zaitez

berrialaguna

ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → AZKEN URTEETAKO HITZORDUA

Uritzako fiesta larunbat honetan egingen da

Bazkaldutakoan musika izanen da Joxemari eta Ainhoarekin

Fermin ETXEKOLONEA

Ospakizunek ez dute etenik, eta larunbat honetan, ekainak 16, Uritzako fiesta egingen da.

Goizean karpa muntatu eta altxaferoa botako dute eta 13:00 aldera pintxoak izanen dira. Ondotik, 14:00etan bazkaria egingen da eta paella eta umerriajateko aukera izanen da, besteak beste. Lerro hauek idazterakoan oraindik eraba-

ki gabea zen bertsolari-rik izanen den ala ez, baina Joxemari eta Ainhoa musikariak han izanen direla hori segurua da.

Jaiotza

Beste herritar bat badugu, Urtxipiko Lluvia, hain zuzen. Zubietar peto-petoa izanen dela ere esan dezakegu, herrian jaio baita. Lerro hauen bidez, zorionak Maria eta Mateo gurasoei.

Kinto bazkaria

1961 eta 1962 urteetan sortutakoek kinto bazkaria egingen dute ekainaren 23an Herriko Ostatuan.



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Malerrekako Eguna giro ederrean

Malerrekako Eguna balorazio bat egiten hasita, oso ongi joan zela azpimarra daiteke. Giro ederra sortu zen eta horrez gain, Mankomunitatetik adierazi dutenez, ekonomikoki ere ongi atera zen auzolanari eta jendearen partehartzeari esker. Eguna polita atera zen eta herritarren partehartzea ere nabarmentzekoa da. Eskerrak eman behar zaizkie artisauei, udal ordezkariari, dantzariari, joaldunei, Aierri taldeari, Herriko Ostatuari eta Errandoneari, eta batez ere, sukaldean egun osoan lanean aritu ziren Marijose Loiarte eta Mertxe Santestebani. Horiei eta herritar guztiei eskerrik asko. Bestalde, musean Juan Telletxea eta German Gallego izan ziren txapeldunak. Saldutako 1.500 boletoen zozketako sarituak ez ziren egun berean atera baina orain badakigu saskiak Eratsungo Mikeli Mitxeo eta Doneztebeko Ana Mari Arregirentzat izan direla eta Arotza jatetxeko otordua Labaiengo Izaskun Bertizentzat izan dela. Migel Arregik herriz-herriz ibiltzeko egin duen lekukoa orain Eratsunek hartu du, heldu den urtean han egingen baita fiesta hau. Esku onetan utzi dugu lekukoa, lehenengo edizio honetan laguntza handia eman baitute eratsundarrek.

ELGORRIAGA

GIZARTEA → DIRULAGUNTZAREKIN

Bi gazte kontratatu ditu Udalak lau hilabetetarako

Lau lagunek aurkeztu dituzte eskaintzak

Mattin LARRALDE

Lau hilabetez, bigazte paratuko ditu lanean Udalak. Bere garaian, langabezian dagoen jendea herriko lanetarako kontratatzeko dirulaguntza eskatu zuen Udalak, etabi langile hartzeko dirulaguntza onartu diote.

Guztira lau lagun aurkeztu ziren eta hautaketa proba batzuen ondotik, puntu gehien lortu dituztenak aukeratu dira. Denetara 12 puntu ateratzen ahal ziren eta lehenbizikoak atera zituen, bigarrenak, berriz, 11.

Herriko bestak

Herriko bestak antolatzeko prestaketak hasiak dira. Duela gutti herri batzarra egin zen eta

nahiz eta jende aunitzik ez zen agertu, bildu zirenek proposatutako ideiak hagitz interesgarriak izan ziren.

Bestaberri Eguna

Joan den ekainaren 10ean, Bestaberri Egunean ohitura den bezala, Udalak berendatzera gonbidatu zituen herritarrek arratsaldean. Goizez, mezara joatekoak ziren udal ordezkariak herriko ikurrinarekin.



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Herriko Ostata zabalik

Orain dela ale batzuk, Udalak Herriko Ostata hartzeko epea ireki zuela jakinarazi genuen. Lau proposamen agertu ziren eta Udalak beraiekin banaka bildu ondotik, Xabierrek aurkeztutako proposamenarekin gelditzea erabaki zuen. Larunbatean, ekainak 9, irekitzekoa zituen ateak. Animo eta aunitz iraun dezala.

URROZ

AISIALDIA → OSPAKIZUNAK

Egun osoko besta antolatu dute larunbat honetako Artisau Egunerako

Eguerdian omenaldia egingen zaio Bittorianori

Joseba URROTZ

Aitzineko ale batean aipatu bezala, larunbat honetan, ekainak 16, feria eta besta antolatu dituzte Urrozen.

Goizez, 10:30etik 14:00etara eskulangi-tzaren inguruan prestatu dira ekintzak eta gero, bazkaria eta besta izanen dira. Hamabortz bat eskulanglek etortzeko hitza eman dute, eta eguerdian, inguruan eta toki aunitzetan hain ezaguna den Bittoriano Arzuaga harigileari ome-

naldia egingen zaio, 87 urterekin, gaur egungutik egiten duen 'arte' horri eta bere jakinduari eusteagatik.

11:30ean hasita, gazta egileek gazta lehen egiten zen erara egingen dute. Eta eskuz, aitzurrez, alegia, ardi-ile mozketaren erakustaldia ere izanen da.

Malerrekan Kantuz taldeak bere emanaldia gure herrian egingen du larunbat honetan. Malerrekako Euskara Batzordeak antolatuta, herriz-herriz euskal kantak abesteko biltzen ari dira azken hilabete hauetan eta larunbatean Urrozek hartuko du lekukoa 11:00etatik aitzinera. Horrez gain,

haurrendako jokoak ere izanen dira goizean.

Bertsotz bazkaria izanen da bertze ekitaldi nagusia, Julio Soto eta Igor Elortza bertsolariekin egingen dena. Frantziako akordeoilaria, berriz, bazkaria eta bazkal ondoa alaitzera etorriko da.

Arratsaldean eta gauez musika eta dantzaldia izanen dira eta beraz, besta girok ez da faltako. Eguraldi kaxkarra egitekotan, frontoi estalian egingen dira ekitaldiak, eta hortaz, ez dago aitzakiarik ez etortzeko. Animatu!

Ondoko kartela da larunbateko bestaren iragarlea.



OIZ

OSPAKIZUNAK → BERTIZKO PARTZUERGOAREKIN

Florentino Ibarra zena omendu dute Laxoaren Egunean

Oiz eta laxoa nabarmendu nahi dira ekimen honekin

TTIPI-TTAPA

Eguraldi bikainarekin joan zen Laxoaren Egunamaiatzaren 27an. Iurrita B eta Oizen arteko laxoa partidaren lehia bizia izan zen eta jendeak

gustura hartu zuen. Jorkoa geldiarazi eta garai batean bezala, Angelusa ere kantatu zuten. Izaskun Goñi Bertizko Partzuergo Turistikoko kudeatzaileak azaldu duenez, «hagitz giro ona sortu zen eta kanpotarrak hurbildu ziren, bereziki Gipuzkoatik. Ekin-tza honekin laxoa eta Oiz nabarmentzea lortzen ari garela uste dut». Aldi be-



ARGAZKIAK: BERTIZ PARTZUERGO TURISTIKOA

Goian Florentino Ibarra zenaren senitartekoak eta behean artisauak eta Angelusa kantatzen.

rean, Florentino Ibarra laxoa egile zena ere go-goan izan zuten. Bere arreba eta familiakoak el-

kartu ziren eta omenaldi polita eskaini zitzaizen. Oizko posadak produktu tipikoen degustazio

bikaina ere eskaini zuten bisitari, herritar eta pilotariek eta herriko musikariek giroa alaitu zuten.

BESTAK → EKAINAREN 22TIK 25ERA

San Juan Egunean eta bezperan aizkora apustuak izanen dira

Saralegi,
Kañamares,
Erasun eta
Larretxea
ikusiko ditugu

Sanjuan
egunean pilota
partida ere
izanen da

TTIPI-TTAPA

Ekainean sartuta, gero eta gutxiago gelditzen da sanjuanetarako. Lau eguneko bestak prestatu dituzte aurteneren, ostiraletik astelehenera, ekainaren 22tik 25era. Egun horietan, kirol ikuskizunez gain, ongi pasatzeko bestelako ekitaldiak ere izanen dira haur, gazte eta helduendako.

OSTIRALA, EKAINAK 22

- 18:00etan Paleta Txapelketaren finala.
- 20:00etan Zopak Herriko Ostatuan.
- Gazez dantzaldia izanen da MODESTO

akordeoilariarekin.

LARUNBATA, EKAINAK 23 SAN JUAN BEZPERA

- 11:00etan herriko mus txapelketa.
- Arratsaldean umeen parkea, kart eta gaztelu haizatuak.
- 18:30ean aizkora apustua: Saralegi eta Kañamares lehian ariko dira.
- 22:00etan Sanjuan suak.
- Arratsaldean eta gazez dantzaldia TRIKI HOTS taldearekin.

IGANDEA, EKAINAK 24 SAN JUAN EGUNA

- 10:00etatik aurrera txistulariek alaituko dituzte herriko karrikak.
- 11:30ean Meza Nagusia San Juan herriko patroien ohorez.
- 13:00etan aizkora apustua: Ander Erasun eta Oihan Larretxea ariko dira.
- 18:00etan pilota partidak: jubenilen mailan, Bakaikoa eta Medina, Elizalde eta Mariezkurrenaren kontra ariko dira. Afizionatueta, berriz, lau t'erdian Bendoiro eta Oronozek jo-



ARGAZKIAK: CAROLINA DOMINGUEZ

Goiko argazkian mus txapelketako finalistak ageri dira. Beheko argazkia, berriz, joan den urteko sanjuanetako aizkora apustukoa da.

katuko dute.
• Arratsaldean eta gazez, dantzaldia izanen da MODESTO akordeoi-

lariarekin.

ASTELEHENA, EKAINAK 25

- 14:00etan herri bazka-

ria Herriko Ostatuan trikitilariarekin.

- Arratsaldean trikitilariak jarraituko dute.

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. - Fax: 948 63 10 27

**BORTZIRI
UNIOI ANAIK**

Sukalderako altzariak

Bereko etxea • LEBAKA
Tel.: 948 637 266 • 907 226 881 • Fax: 948 637 511

SALDIANKO UDALAK

Hesta urteotuenak
apu diokizue:
(herriko eta herriko)
jardutxo

NARBARTE

OSPAKIZUNAK → HIRU HERRIEN TOPAKETA

Bertizarana Egunak giro ederrean elkartu ditu aurten ere bailarako herritarrak

Kirola eta besta bateratzeko aukera aproposa eskaini dute antolatzaileek

Martin BERTIZ

Zapora ederra utzi du aurtengo bailarako egunak. Gosari eder batekin eman zitzaion hasiera Bertizarana Egunari joan den ekainaren 2an. Segidan, BKZ eta Leurtza Abenturaren eskutik, hainbat jardura egin ziren eta bazkal aitzinean, aizkolarien eskutik, he-

rri kirol saio eder batez gozatzeko aukera ere izan zuten bildutakoek.

Arratsaldeari hasiera emateko, bazkari eder bat egin zuen jendeak plazan eta ondotik, Julio Soto eta Iñaki Alemanen bertso batzuk entzuteko aukera izan zuten. Gero, berri, dantza batzuk ere egin ahal izan zituzten plazan zeudenek eta nahi izan zuenak besta luzatzeko modua ere eduki zuen.

Eta orain, heldu den urteko Bertizarana Egunerako gero eta guttiago gelditzen dela erran beharko dugu.



ARGAZKIAK: MARTIN BERTIZ

Egun ederra pasatzeko aukera izan da aurten ere Bertizarana Egunarekin.



ARGAZKIA: NARBARTEKO ESKOLA

Murrizketen kontra eta eskola publikoaren alde

Nafarroako Gobernuak hezkuntza publikoan egin nahi dituen murrizketen kontra, protestak egiten ari dira eskolan. Maiatzaren 28an kontzentrazioa egin zuten.



ARGAZKIA: NARBARTEKO ESKOLA

Aste kulturala eskolan

Urtero bezala, aurten ere Aste Kulturala izan dute eskolan. Maiatzaren 23tik 25era hainbat ekitaldi egin zituzten. Lehenbiziko egunean, Oronoz-Mugairiko suhiltzaileei bisita egin zieten; biharamun goizean Birbira birziklapen tailerra egin zuten eta Burlatako Gurutze Gorriko lagunek lehen sorospenen simulakroa egin zuten. Arratsaldean, zaborraren eta ingurumenaren gaiarekin lotutako lanen erakusketa irekia egin zuten eta Maria ile-apaindegiko saioa ere bai. Maiatzaren 25ean, azkenik, Bertizko Natur Parkera bisita egin zuten. Lorategia eta interpretazio zentroa ikusi eta hantxe bazkaldu zuten.



GIZARTEA → UDAKO OPORRALDIAN

Heldu den urrira arte ateak itxi ditu ziber liburutegiak

Merendola batekin agurtu dute aurtengo denboraldia

Izaskun GOÑI TELLETXEA

Urriaz geroztik irekita egon den ziber liburutegiak joan den ekainaren 1ean itxi zituen ateak. Egun horretan, despedida gisa, Izaskunen eskutik, merendola bat egin zuten parkean eta haur andana elkartu zen. Elkarrekin arratsalde ederra pasatu zuten merendolan.

Orain, uda osoan itxita egonen da eta hurrengo ikasturtean,

urrian, berriz irekiko dute. Orduan ere Izaskun izanen da ziber liburutegiko arduraduna.

Aipatu, bertzalde, ikasturte honetan hainbat gauza egiteko aukera izan dutela neska-mutikoei: margo-tzen aritu dira, gantxoak egin dituzte, eskulanak... Momentu atseginak pasatu dituzte eskulan horiek egin bidenabar. Eta denda bat ere zabaltu dute egindako gauzak saltzen paratuz eta materialak erosteko modua eskainiz.

Baina orain, hurrengo urrira arte aio erratea baino ez da gelditzen.



ARGAZKIA: IZASKUN GOÑI

Momentu ederrak pasatu dituzte neska-mutikoei liburutegian.



ARGAZKIA: IZASKUN GOÑI

Igerilekuaren irekiera gainean

Bertze aldaketarik ez bada, ortziralean, hilak 15, irekiko dituzte igerilekuak. Irailera arte egunero egonen da irekia. 11:00etatik 20:00etara. Prezioak joan den urtekoak dira: 3 urte artekoek dohainik, 4-11 urtekoek 20 eurotan bonoa eta 2 eurotan eguneko sarrera, 12-17 urtekoek 30 eurotan bonoa eta 3 eurotan eguneko sarrera eta 18 urtetik aitzinerakoek bonoa 50 eurotan eta eguneko sarrera 5 eurotan.

LEGASA

GIZARTEA → UDAKO OPORRALDIAN

Kattalin aterpetxea eta ostatua enkantean atera ditu Kontzejuak

Ekainaren 16rako aurkeztu behar dira eskaintzak

TTIPI-TTAPA

Kattalin aterpetxea eta ostatuaren enkan-teak dagoeneko atera dira. Eskaintzak aurkezteko epea zabalik

dago eta ekainaren 16ra arte izanen da aukera. Hartzen duenak hamar urtetarako izanen du. Eskaintzak Kontzejuan aurkeztu beharko dira edota bertan dagoen buzoian. Eskaintza merkeenari emanen zaio lehentasuna.

Arduradunen telefono zenbaki eta e-posta hauek dira: 629 450579

(Laura), ldazkari@igantzi-koudala.com.

Informazio gehiago nahi izanez gero, helbide honetan sartu: <http://hacienda.navarra.es/sicpportal/mtoAnunciosModalidad.aspx?Cod=12052514132103725377>.

Kuku elkarte

Berriki Kuku elkarte-ko bazkideei galdeketa

bat pasatu zaie gas naturala hartu ala ez jakiteko. Galdeketa erantzun duen gehiengoak baiezkua eman du, eta beraz, azkenean gasa sartuko da.

Eskolako haurrak

Joan den ekainaren 1ean, atsedenaldiaren ondotik, eskolako haurrak Zuhaitzaren Egu-

nean landatu zituzten arbolak ureztatzera joan ziren. Guraso batek ura bidai haunditan eraman zuen eta handik haurrak ura hartu eta zuhaitzak ureztatu zituzten. Ikaragarriko beroa egiten zuen eta egindako lana eskertzeko gosari goxo bat jan zuten gero elkarte-atarian.

GAZTE OIHUA

GIZARTEA → GAZTEAK SOLASEAN

Martxan da eskualdeko gazteen proiektu komunikatibo berria

Ttiipi-Ttapan artikuluak argitaratuko dituzte

TTIPI-TTAPA

Eskualde honetako hainbat herritan, gazteak mugimendu edo talde ezberdinetan antolatuak daude. Guttitan izaten da, ordea, haien berri, edo norberak bere herriko berriak bakarrik eza-gutu ohi ditu. Hori dela eta, eskualdeko gazte batzuk bildu eta egoerari buelta emateko helburuarekin, proiektu berria paratu dute martxan.

TTIPI-TTAPA aldizkaria eskualdean barna banatzen dela aprobe-txatuz, eta gazte edukia sartu nahian, aldizkari-ko atal bat gazteei eskainia izanen da hemen-dik aitzinera. Gazte Oihua izenpean, inguruko gazteen berri eman nahi dute.

Horretarako, Gazte Oihua proiektua aitzinera eramaten ari diren gazteak dagoeneko harre-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Lesakako gazteek bukatu dute Gazte Martxako murala

Guardia zibilen isuna, pareta margotzeko Nafarroako Gobernuaren ukazioa... Hainbat arazo izan dituzte Lesakako gazteek Gazte Martxako murala egiterako orduan. Izan ere, aitzinetik aipatu bezala, Saratik Lesakara egin zen Gazte Martxa baino lehen mural bat margotu zuten Lesakako sarreran. Guardia Zibilak jarritako isun batengatik, ordea, ezabatu behar izan zuten. Azkenean, hilabete bat beranduago berriro egin dute gazteek murala, oraingoan igerilekuko paretan, lehengo leloa erabiliz marrazki eder eta handiagoarekin, Gazte Martxako oroitzapen modura. Horrenbertze arazori aurre egin ondotik, kontent gelditu dira Lesakako gazteak.

manetan jarri dira hainbat herritako gazteekin. Haien helburua herrietako edozein gazte mugimenduk (gazte asanblada, gaztetxea, aisialdi taldea...) atal honetan toki izatea da. Denengana ailegatzea zaila dela eta, e-posta sortu dute:

ttipigazte@gmail.com. Lerro hauen bidez, proiektua lantzen ari direnek deia egin nahi diete eskualdeko gazte taldeei haien berriak bidaltzaten, gero eskualde osoan zabaltzeko.

Atal honen maiztasunari dagokionez, ez du-

te zehaztu hamabortzean behin aterako ote den ala ez. Hasiera batean bederen, herrietako gazteak artikuluak bidali ahala argitaratuko dituzte.

Berako Gaztetxeak sei urte

Sei urte bete ditu aurtenerako Berako Kaxerna Gaztetxeak eta horren harira, ospakizunen astea izan zuten ekainaren 4tik 10era. Txalapartariak, bertsolariak, antzerkiak, ipuin kontalariak, gazte-txoentzako ekintzak, hitzaldiak, ping-pong eta mus txapelketak, pre-soen aldeko topa, kalejira, kontzertuak, bizikleta salto erakustaldia... Gazteentzat ez ezik, gainerakoentzako ekitaldiak ere egin zituzten.

ESKUALDEA

Zerbitzu telematikoa eskainiko du Cedernak

TTIPI-TTAPA

Enpresa ttiki eta ertainei eta oro har herri-tarrei zuzendutako zerbitzu telematikoa paratu du martxan Cederna-Garalurelkartek, bereziki, Ziurtagiri eta Nortasun Agiri elektronikoki buruz eta kuadeaketa elektronikokoaren inguruan informazioa emateko. Leitzaldearen kasuan, Lekunberriko tren-geltokian, Plazaolan, eskainiko da zerbitzua astearteetan. Aitzinetik ordua hartu behar da 948 567010ra deituz edo mimaz@cederna.es-era idatziz. Bortzirietan, Alkaiaga industrialdean eskainiko da zerbitzua astelehenetan. Eta Maierrekan, Doneztebeko Turismo-bulegoan izanen da zerbitzua, astearteetan. Azken bi kasu hauetan ere aitzinetik hartu behar da hitzordua 948 625122-ra deituta edo bidasoa.admon@cederna.es-era idatzita.

IKASTAROAK

Ziurtagiri digitala eta Nortasun Agiri Elektronikoa ezagutzeko ikastaroak ere antolatu ditu Cedernak. Ekainaren 4an Alkaiagan egin zen ikastaroa, hilaren 5 eta 7an Lekunberri, ekainaren 12an Donezteben eta ekainaren 19an Elizondoko Eskiz informatika zentroan egingen da, 10:00-etatik 12:00-etara. Izen-ematea: 948 625122 edo bidasoa.admon@cederna.es.



GIZARTEA → GARAI BATEKO ESKOLA

Eskolaren egoerak eztabaida piztu du herritarren artean

Arazoari
irtenbidea
emateko lanean
ari da Udala

Fernando ETXEBERRIA

Hamabostean behin, TTPI-TTAPAn, Ezkurran egiten diren jarduera, proiektu eta lanen berri ematen dudala aipatu didate hainbat herritarrek, baina aspaldian ez dudala eskolaren gaia landu, gehienek bere egoera okerrera doala dakitenean. Gaiari buruz norbaitek ezere ez esateko eskatu ote didan ere galdetu didate. Eta hori ez da horrela. Udala arazoari aterabidea emateko egiten ari den urrats guztien berri badut, baina krisi larri honekin zaila da lortzea. Horretan ari dira. Duela bi urte eman ge-

nuen Udalaren proiektuaren berri. Zenbaitek horren kontra protesta egin zuten eta bilera ere eskatu zuten, eta eztabaida sortu zen. Onena biak elkartu eta adostasun batera ailegatzea zela iritziz nion. Batzuek Udalaren jarrerarekin bat egitea leporatu zidaten, baina ez nuen sekula hori egin. Liskar eta ezinikusietan oinarritutako jarraiek interes orokorreko gaietatik aldentzearen aldekoa naiz. Zoritxarrez, ordukoak zapore txarra utzi zuen eta ez zen ezerrekin adostasunik lortu.

Ezkurra, herri berezia liburuan, eskolari eskainitako tarteetan ageri denez, ikasle faltagatik 1999an itxi zuten eskola eta erabilera posibleak aztertzea interesgarria izanzen litzatekeela irakur daiteke: bilera gela liburutegi



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Sagardotegira bisita

Orain arte, ez da sagardotegira joateko dei orokorrik egin, baina zenbait herritar Iru-
nen izan dira, Gipuzkoako urteko sagardo onenaren saria hartu duen sagardotegian.

batekin eta ordenagailuekin, aterpetxea, elkar-
tea... Horregatik, eraikina moldatzeko aukera zein den aztertzeaz gain, erabilera egokiena zein den ikustea litzateke egokiena.

Ehiztari elkarteko prestaketak

Txantxangorri Ehiza Elkartea hasi da denboraldi berria prestatzen eta altak eta bajak emateko epea zabaldu du. Ekainaren 30era arte izanen da

aukera. Ondotik, urteroko asanblada egingen du eta diru-sarrera eta gastuez hitz egingen dute. Ehi-
za-postuetarako bideak eta horiek egoera onean paratzeaz ere ariko dira, besteak beste.

MERCHE
MODA HOMBRE

Giovani Valdi • Sandro Sellini • Caramelo gala
Serapio Mugika, 11 • 20302 IRUN • 943 612 626
www.capelettimerc heirun.com

GIZARTEA

OSASUNA → KONTSEILARIAREN BISITAK

Osasun kontseilariaren bileren 'erabilera alderdikoia' salatu dute hiru alkatek

Arantza, Bera eta Etxalarko alkateek idatzia kaleratu dute

TTIPI-TTAPA

Marta Vera Kontseilariak Osasun arloko murrizketen inguruan alkateekin egindako bileren ondotik, zenbait argibide eman dituzte Arantza, Bera eta Etxalarko alkateek. Jaime Iburriak, Marisol Tabernak eta Migel Mari Irigoienek «Gobernuaren eta UPNren erabilera alderdikoia» salatu dute eta argi utzi nahi izan dute osasun arloan egin nahi dutena ez dela berrantolaketa, murrizketa baizik.

Nafarroako Gobernuak, eta bereziki UPN, osasun murrizketen berri emateko egiten ari den bileren erabilpen politikoa eta manipulazioa salatu dute hiru alkateek. «Batetik, hagitz larria iruditzen zaigu Osasun sailburuak udalekin bilerak deitzea eta udalen ordezkariak mugatu bitartean, alderdikideei inolako arrazoi teknikorik gabe bertan egoten uztea. Hainbat udal ordezkari sarrera debekatu zaien bitartean, UPNko kide bati bertan egoten utzi zaio, Kontseilariaren alderdikoa denaren aitzakian». Ondorioz, udalei azalpenak emateko eskualdean antolatutako bileretan alderdikideen babesa bilatu

du Kontseilariak, eta al-diz, udalen ordezkariak mugatu du, «agian jakin badakielako erranen duena gezurra dela, eta beraz, kritika murriztu nahi duelako, bertze gauza aunitz murrizten duten bezalaxe», diote alkateek.

Eskualdeabi bileretan banatu izana ere kritikatu dute. «Aitzakia jende guttiagoko bilerak egitea izan da, baina azkenean hagitz azalpen orokorra izan da, eta ez du xehetasunik eman eskualdeko egoeraz». Arantza, Bera eta Etxalarko alkateek ezin dute ulertu «Baztan-Bidasoa eskualdean hiru osasun-eremu egonik, eremu horietako herriak modu nahasian banatu izana bileretan». Hiru alkateek garbi dute «eraginkortasuna bilatzen duen berrantolaketa saldu nahi digutena murrizketa bertzerik ez dira». Berrantolaketa helburua hiritarrei zerbitzu hobea emate behar lukeelagaiteratu dute: «berrantolaketa eraginkor bat egiteko profesionalen eta erabiltzaileen iritzia eta proposamenak kontutan hartu behar dira nahi eta nahi ez, eta ez da hori Gobernuak egin duena».

Murrizketak justifikatzeko kontseilariak «manipulazio eta gezur lotsagarriak» erabili dituela ere salatu dute. «Onartezina da beraien kudeaketaren porrota langile eta profesionalen bizkar egitea.



UTZITAKO ARGAZKIA

Donezteben murrizketen aurka agertu ziren inguruko udal ordezkariak hilaren 1ean.

20 milioi eurotik gorako zorra dute udalek banketxeekin

TTIPI-TTAParen Hego Euskal Herriko eremuan dauden 25 udalerrietatik 16k 20.381.011 euroko zorrekin itxi zuten joan den urtea. Horixe ondoriozta daiteke Espainiako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Ministerioak argitaratu dituen datuetatik. Emandako zenbakiak udalen zor biziari dagozkie, hau da, banketxeetan dauden zorrak dira.

HERRIA	2011ko ZOR BIZIA	ZORRA/BIZTANLEKO
ZUGARRAMURDI	655.000 €	3.014 €
LESAKA	4.989.000 €	1.780 €
ARESO	309.000 €	1.104 €
BAZTAN	8.017.000 €	993 €
URDAZUBI	344.000 €	887 €
DONEZTEBE	1.321.000 €	787 €
ARANTZA	453.000 €	703 €
LEITZA	1.836.000 €	622 €
OIZ	78.000 €	527 €
IGANTZI	315.000 €	496 €
SUNBILLA	300.000 €	452 €
ERATSUN	66.000 €	410 €
ETXALAR	330.000 €	400 €
BERA	1.089.000 €	289 €
ITUREN	124.000 €	237 €
BERTIZARANA	153.000 €	237 €
ARANO	0 €	0 €
BEINTZA-LABAIEN	0 €	0 €
DONAMARIA	0 €	0 €
ELGORRIAGA	0 €	0 €
EZKURRA	0 €	0 €
GOIZUETA	0 €	0 €
SALDIAS	0 €	0 €
URROZ	0 €	0 €
ZUBIETA	0 €	0 €
GUZTIRA	20.381.011 €	755 €

Lotsagarria iruditzen zaigu kontseilariak murrizketak justifikatzeko profesionalen soldatak, opor egunak eta profesionaltasuna kolokan jartzea». Hiru alkateen hitzetan,

herritarren osasun arretak du lehentasuna, eta hortaz, Gobernuak eta UPNk egiten duten aldaketak oro zorrotz aztertutako dutela erran dute. Eskualdearen garapenera-

ko Gobernuarekin elkar-lanean aritzeko prest izan direla ere adierazi dute, «zintzotasunez jokatuz gero, eta inolako erabilera alderdikoi eta manipulaziorik egin gabe».

GOIZUETA



ARGAZKIA: GOIZUETAKO ESKOLA

Mendialdeko sariketan saria jaso duten Goizuetakako ikasleak.

KULTURA → MENDIALDEKO BERTSOPAPER LEHIAKETA

Sei sari eta aipamen eskuratu dituzte eskolako lagunek bertsopaper lehiaketan

TTIPI-TTAPA

Mendialdeko Bertso-paper Lehiaketatik hainbat sari etorri dira Andres NARBARTE XALTO eskolara.

Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailakoetan, Ander Mujikak lortu du le-

henengo saria eta aldi berean Nafarroa mailan bigarren izan da. Unax ALSUAK, BERRIZ, Mendialdean aipamena hartu du kategoria horretan; bosgarren eta seigarren mailakoen artean, Ane SALABERRIA eta Pello USOBIAGAK aipamenak



TESTUA: JOXE MANUEL APEZETXEA / ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Lasterketa arrakastatsua

Aspaldiko partez, herri krosa egin zen maiatzaren 27an, Umore Ona Elkarteak antolatuta. Alde batetik, txikiek izan zuten korrika egiteko aukera eta 63 neska mutikok hartu dute parte bi kategoriatan. Denentzat izan zen oroigarriren bat. Helduen laisterketan 66 lagunek eman zuten izena eta gizonezkoetan bizkorrena Irurako Unai Señoran izan zen (32 minutu). Bigarren Ibai Alba hernaniarra izan zen 2 segundora eta hirugarren Tolosako Iker Pagola, 01:35ra. Emakumezkoetan, irabazlea Erretereriako Ana Gonzalez izan zen (43:41), bigarren Iruñeko Maite Ares eta hirugarren Burlatako Maite Orofino. Herriarren artean, gizonezkoetan onena Martin Etxeberria izan zen, sailkapen orokorrean hamargarrena (36:05), eta herriko lehenengo emakumea Ane Zinkunegi (52:47) izan zen. Laisterketa bukatuta, denek izan zuten dutxatzeko aukera eta ondotik, sari banaketa eta zozketak egin bitartean hamaiketako ere eskaini zitzaizen parte hartzaileei. Eguna oso ongi joan zen eta antolatzaileek hasiera batean ezarritako helburuak bete ziren neurri batean: krosa berreskuratzea, Goizuetan igande goiz batean kirolaren inguruan jendea biltzea, kanpoko jendea herria ezagutzera emanez, eta bestalde, herriko jendeak parte hartzea. 63 neska mutikoez gain, helduetan 17 herritarrek parte hartu baitzuten. Krosa egiteko ohitura berreskuratuta, datorren urtekoa oraindik arrakastatsua izan dadin lanean jarraituko duela adierazi dute Umore Ona Elkartetik, hobetzen ahal dena hobetzen saiatuz. Bide batez, laguntzaileei ere eskerrak eman nahi izan dizkiete.

eskuratu dituzte eta beste bi aipamen eman zetxea eta Ander Apezetxeari. DBH 1. eta 2. mailan, dizkiote Eneko Ape-



ARGAZKIA: ALAITZ ESKUDERO

Murrizketen kontra

Nafarroako Gobernuak hezkuntza publikoan egin nahi dituen murrizketen kontra hainbat izan dira egindako mobilizazioak. Gure herriko eskolan ere protesta ekintza horietan parte hartu dute elkarretaratzeak eginez eta sindikatu nagusiek deitutako greba egunekin bat eginez.



ARGAZKIA: IGOR ELIZEGI

Judo erakustaldia

Ikasturte bukaera zela eta, joan den maiatzaren 27ko arratsaldean argazkian ageri diren neska-mutikoei herriko plazan judo emanaldia eskaini zuten, ikasturtean landutakoa jendaurrean erakutsiz. Aldi berean, gerriko horia lortu zutelako diploma eta kamiseta bat jaso zuten. Argazkian gerriko horiarekin eta kamisetarekin ageri dira.

LEITZA

GIZARTEA → PAREKIDETASUNAREN ALDE LANEAN

Berdintasun Plana egiteko talde bat osatu dute teknikariak eta herri eragileek

Udal ordezkari eta langileak eta beste eragileak formazio saioak egiten ari dira

JM BARRIOLA

Parekidetasuna lortze aldera, apirilean hasi ziren udal langile, zinegotzi eta herriko eragileei zuzendutako formakuntza saioak. Apirilean saio bat izan zen eta maiatzean beste bat. Asteazken honetan, ekainak 13, 18:00etan hirugarrena izanen da, eta udatik bueltan geratzen diren beste hirurak.

Emagin elkarteko ki-deek ematen dituzte saioak eta hausnarke-ta sakonak planteatzen ari dira ondoko gai hauen inguruan: femi-

nismoa, mugimendu feminista, genero politikak, sistema patriarkala, emakumeen parte-hartze sozio-politiko...

30-35 lagun ari dira saio hauetan parte hartzen, oso talde handia eta aberatsa. Geratzen diren saioetan, uda pasatuta izanen direnak, lengoaiaren eta irudiaren erabilera ez sexista eta indarkeria sexistaren inguruan ariko dira.

Oso garrantzitsua da formakuntza saio hauetan lantzen dena, berdintasun teknikariaren ustetan, batez ere zonaldeko zinegotzi, langile eta herrietan diharduten eragileentzat, hauek duten ardura eta konpromisoagatik.

Honetaz aparte, Mankomunitatean Berdintasun Plan bat burutzen ari da, eta hau

HURRENGO BILERA
Berdintasun Plana egiteko hurrengo bilera ekainaren 21ean izanen da. Talde bat osatua da horretarako baina irekia da.

egin ahal izateko talde ezberdinekin bildu da Amaia Zalba berdintasun teknikaria. Leitzan talde bat osatu dute, herriko hainbat eragileekin (irekia da), eta orain arte bilera bat izan dute. Hurrengo ekainaren 21ean izanen da, 18:00etan udaletxean. Beste talde batzuk sortu dira inguruko herrietan.

Hauetan guztietan herriko egoera hausnartuko dute, emakume eta

gizonen errealitateak zeintzuk diren jakiteko, beharrak ezagutzeko eta hemendik abiatuta, parekidetasuna lortze bidera, Berdintasun Plana egiteko.

Udalbiltzari atxikimendua

Joan den martxoaren 31n, Irunen, jatorri politiko anitza duten zazpi herrialdeetako 26 alkate zein zinegotzi talde batek Udalbiltza berrantolatzeke proposamena luzatu zuen, hautetsien arteko atxikimendu-kanpaina abian jarritz. Bizi dugun aro politiko berria aintzat hartuz eta Euskalduna Jauregiko batzar eratzailan adosturiko bost printzipioetan oinarriturik, Udalbiltza berrantolatzeke proposamena luzatu zuten, hautetsien arteko atxikimendu-kanpaina abian jarritz. Udalbiltzaren egitasmoarekin bat egiten duten hautetsi guztiei zabaldua dago deialdia.

Udalbiltza berrantolatzeke deiarerantzunez, Leitzako Bilduko beideratzizinegotziek atxikimendua sinatu dute.

Mendietako hamar urteko ordenazioa berrituko da

2010. urtetik epea luzatua zegoen aurre-

ko mendietako ordenazioa eta Nafarroako Gobernuako mendien sailak berritze lanari ekin dio. Lan hau egiteko ardura Lur-Geroa enpresari esleitu dio eta datozen hilabeteetan eginen du.

Txondorra

Ekainaren 8an Leitzalarreko bihotzean, hau da, Ixkibarren, aurretik osatutako txondorra piztu zuten. Ikusmira haundia sortu du honek eta jende ugari hurbiltzen ari da bertara. Dena ongi badoa, egurra ikatza bihurtuko da sanjuanetarako.

Hor ditugu San Juan bezperako suak eta garrak

Urtero moduan, udako solstizio garai hauetan San Juan bezperako pestak izanen dira herrian. 18:30ean, haurrek ingurutxo dantzatuko dute eta ondoren, opilak banatuko zaizkie. 21:00etan herri afaria izanen da plazan. Urteroko moduan, kua-drila bakoitzak beren otorduak prestatu eta herriko plazan janen dituzte umore ederrean. 23:00etan suak piztuko dira urteko gauza txarrak erre eta soina berritzeko.



ARGAZKIA: JUAN MARI BARRIOLA

Kultur Aroko azoka bikaina

Maiatzaren 27an, XXXIV. Eskulangintza Azoka egin zen plazan. Giro bikainean joan zen eguna, 65 artisauk parte hartuz. Jende ugari ibili zen egun guztian erakusketak, lanak, taloak eta abar ikusiz. Honetaz gain, leitzarrek idatzitako liburuaren erakusketa jarri zen Udaleko aretoan. Urtez urte arrakasta haundia duen ekintza da hau eta bai artisauak eta bai jendea ere oso gustura egon ziren.



ARESO

GIZARTEA → DIRULAGUNTZAREKIN EGINEN DA

Udan herriko lanetan aritzeko langilea hartzeko deialdia egin du Udalak

Eskaerak ekainaren 18rako aurkeztu beharko dira

Juana Mari SAIZAR

Udarako langilea kontratatuko du aurren ere Udalak. Bete beharreko baldintzak langabezian egotea, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emana edukitzea eta euskararen ezagutza izatea dira, besteak beste. Izena eman eta eskatzen diren agiriak aurkezteko udaletxean egin behar-

ko da eta epea ekainaren 18an amaituko da, 13:00etan.

Langilea lau hilabetearako hartuko da eta honetaz gain, Udala bigarren langile bat hartzeko aukera ere aztertzen ari da, baina hori dirulaguntzaren arabera izango da.

Emakumeen irteera

Herriko emakumeek irteera egitekoa zuten ekainaren 9an. Udalaren laguntzarekin Gasteizera joateko asmoa zuten, 09:00etan autobusean abiatuta. Hamaiketako egiteko gelditzeak zi-



ARGAZKIAK: ANA GOÑI

Giro ederra eskolen topaketan

Leitza, Goizueta, Arano eta Aresoko ikasle, guraso eta eskolen XIII. topaketa ospatu zen ekainaren 2an. Eguraldia lagun, oso giro ederra egon zen egun guztian. Antolatzaileek aurreikuspen guztiak gainditu zirela esan dute eta oso pozik geratu dira izandako emaitzarekin. Partehartzearen aldetik hasieran pixka bat kostatu zen arren, azkenean guztiek parte hartu zuten bai tailerretan, jolasetan, kalejiran eta bai *flashmob*ean ere. Festaz gain, aldarrikapena ere egin zuten eskolek, eta eguerdiko kalejiran hezkuntzako murrizketen kontrako pankarta eta guzti irten ziren herrian barrena. Musika, mugimenduak eta koloreak alaitu zuten herria nabarmen.

ren eta 11:00 aldera hara ailegatuko zirela aurreikusia zuten. Katedrala bisitatzeko zuten lehenik eta ondoren, alde

zaharrean ibili merkatua eta graffiti ezagunak ikusten. Pixka bat poteatu ondoren, bazkaria Bastida herrian enkargatu

tua zuten eta eguna ongi amaitzeko etxeratu aurretik beste geldialdixoa ere egitekoa zuten zerbait hartzeko.

ARANO

OSPAKIZUNAK → SANTIO ONDOKO LARUNBATEAN

Arkume jatea eginen da uztailaren 28an

Txartelak laster jarriko dituzte salgai Kontsejun

Ainhua ANSA

Aurtengo Santioetarako arkume jate herrikoia antolatu dute festen batzordeak eta herritarrez osatutako lantalde

batek. Santio ondoko larunbatean izango da eguerdiz eta plazan erretako arkumea izango da plater nagusia. Txartelak oraindik ez dira salgai jarri, baina Kontsejun izango dira aurki 28 eurotan. Umeentzat ere jarriko da menua eta horretarako ere txartela hartu beharko da aurretik. Antolakuntzak festetara-



ARGAZKIA: JOXEAN RUIZ

Nafarroako mugetan barrena

Goierriko mendizale lagun talde bat Aranon agertu zen pasa den astean, mendiz egiten ari diren ibilaldi batzuen barruan hala tokatuta. 40 bat beasaindar eta ordiziar izango ziren eta Nafarroako mugak ibiliz egin nahi omen dituzte.

ko karpa jarriko dela gogorarazi nahi du eta txartelak uztailaren gares-tiago izango direla.

Sardina jatea

San Juan bezperan, hilak 23, gauaz egingo da azken urteetan ohitu-

ra bihurtu den sardina jatea. Afaltzeko izena eman nahi duenak Kontsejun egin behar du 21erako.

BAZTAN

AZPIEGITURA → ARRAIOZ-ELBETE SAIHESBIDEA

Saihesbidetik Elizondora sartzeko zubia eskatu dute hautetsiek

Errepide berria
laster
zabaltzekoa da

TTIPI-TTAPA

N-121-B errepidean, Arraioz eta Elbete arteko saihesbidearen lanak gainbegiratzeko dituen batzordeak azken bilera izan zuen maiatzaren 30ean eta lanak hurbilekikusi zituzten. Zenbait hutsune somatzen dituztela adierazi zuten, eta Elizondorako sarbidean oraindik ez dela Baztanberriko zubia erai-ki, baina halere, laster irekitzekoa da saihesbidea.

Hain zuzen, oraindik egin gabe dagoen Baztanberri zubi hori eta Lekarozko oinezkoen pasabidea dira udal eta herrietako hautetsien kezka nagusiak. Garbiñe Elizegi alkateak aipatu zuenez, «proiektuak egite-rako orduan, ez dira kon-tuan hartzen erabiltzai-leen premiak. Hainber-tze diru publiko erabili baldin bada ere, bi afe-ragarrantzitsu gelditu di-ra moldatu gabe, Baztan-berriko zubia eta oinez-koendako pasabidea Le-karozen».

Xabi Torres Elizondo-ko alkatearen hitzetan, «Baztanberriko zubirik gabe, saihesbidetik Eli-zondorako sarrerarik ga-be gelditu gara. Zubia premiazkoa da, bertze-naz, saihesbideak ez di-gu balio». Izan ere, hori moldatzen ez bada, eli-

zondarrek Elbeteko irtee-ra bitarte joan beharko dute eta handik herrira sartu. Gainera, aunitz erabiltzen den Piezen Bi-dea ere baliogabetua gel-ditu dela salatu zuten, «saihesbide azpitik pasa-bideren bat egin behar-ko dela», erranez.

Jesus Angel Garcia Lekarozko alkateak ere saihsbideak herrian izan duen eragina azaldu zu-en: «lur desjabetzeaz gain, hilerria, industrial-de berria, igerilekua edo hizkuntz-murgiltzerako zentro berria bezalako zerbitzuak saihsbidea-ren bertze aldean gelditu zaizkigu eta horrega-tik eskatzen dugu oinez-koendako pasabidea. Oraingoan, behin behine-ko zebra-bidea paratuko omen dute».

Hauekin batera, Xote-ro Etxandi Arraiozko alkateak, Pedro Goiene-txe Elbeteko alkateak eta udal zinegotziek osatu dute batzordea. Maiatza-ren 30ean lanei eginda-ko bisitan Mikel Ortega (Bildu), Florentino Goñi eta Iñigo Iturralde (Ezke-rra) eta Mari Jose Gar-mendia (UPN) ere izan ziren. Florentino Goñi herrilan zinegotziak ai-patu zuenez, «Nafarroa-ko Gobernuak inor ez da etorri lanak zertan diren ikusi eta gure iritzia adi-tzera». Anai Astiz kon-tseilariari ere bilera es-matu omen zioten berak eta alkateak «duela hiru bat hilabete eta oraindik ez digu erantzun».



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Saihsbideko lanak gainbegiratzeko dituen batzordeko kideak maiatzaren 30ean.



TESTUA ETA ARGAZKIA: ARANTXA GAMIO

Berroetako bestak

Giro ederra eta jende ugari ibili da Berroetako bestetan: Baztanzopetan eta Trikidantzen, *El conquistador* saiokoen proban, haurren dantza erakustaldian, zikiro egunean...



UTZITAKO ARGAZKIA

Almeriako kartzelan Iñaki Erro askatzeko oihukatuz

Maiatzaren 26an Almeriako Acebuche espetxera joan ziren hainbat lagun. Espe-txe aitzinean dagoen garabi batera igo ziren euskal preso politikoen eskubideak aldarrikatzeko. Bereziki kartzela horretan dagoen Iñaki Erroren egoera salatu nahi izan zuten, kondena betea izan arren espetxean jarraitzen baitu parot dok-trina aplikatu diotelako eta gainera, gaixorik dago. Bi pankarta paratu zituzten garabian *Doktrina Parot Stop*, *Erro eta bertzeak askatu*, eta *Euskal Preso eta Iheslariak Etxera* ziotenak. Dozena bat altxafero ere bota zituzten eta mezu bat eta bertsoa ere eskaini zieten.

HEZKUNTZA → UDAL MUSIKA ESKOLA

Helduei ere musika tresnak ikasteko aukera eskainiko zaie hurrengo ikasturtean

Ekainaren 30a arte eman daiteke izena

TTIPI-TTAPA

Heldu den ikasturtea prestatzen hasia da Udal Musika Eskola. Ikasturte berrian musika hizkuntza eta instrumenturen batean matrikulatu nahi duenak hilaren 30era arte izanen du aukera. Izen-emate orriak haurren bidez etxetara ailegatuko dira, eskolan banatuta, eta interesatuek inprimakia bete eta udaletxera eraman beharko dute.

Berrikuntza gisa, helduen taldeak sortzeko aukera izanen da hurrengo ikasturtea. Hortaz, adinez nagusia den batek instrumenturen bat ikasi nahi badu, izena ematen ahal izanen du. Hauek izanen dira eskainiko dira tresnak: pianoa,

akordeoia, klarinetea, tronpeta, tronboia, bibolina, saxofoia, txistua eta zeharkako txirula. Edozein zalantza izanez gero, deitu udaletxera edo Musika Eskolara.

Dantzari Eguna Iruritan

Ikasturtean ikasitakoa jendaurrean paratuko dute Iruritako dantzariak larunbat honetan, ekainak 16. Dantzari Eguna-ren barne, 12:00etatik aitzinera, dantza saioa eskainiko dute plazan.

Kepa Arizmendi gogoan erakusketa

Kepa Arizmendizena-ren omenez, erakusketa antolatu dute Ur Taldeak, Peio Bentak eta Euskal Kultur Erakundeak Baionan. Ekainaren 30era arte egonen dazabalik Baionako Kalostripe ostatu-jatetxean.



ARGAZKIA: IXABEL ALEMAN

Tolosako Nafarroaren Egunean

Nafarroako konkistaren 500. urteurrena dela eta, besta egun haundia izan zuten maiatzaren 26an Tolosan eta amaiurtarrak eta baztandarrak han izan ziren. Tolosako Udalak Baztangoari eta Amaiurko herriari harrera egin zien eta ondotik, haur parke bati Amaiur izena paratu zioten. Gainerakoan, egun guztiko besta izan zen eta eguraldi ederrarekin giro politoan ibili ziren.



ARGAZKIA: PELLO SAN MILLAN

Baratze mamu tailer arrakastatsua Iruritan

Maiatzaren 26an, haurrendako baratze mamuen tailerra egin zuten Iruritan, Elizondoko Museo Etnografikoaren Lagun Elkarateak eta Udalak antolatuta. Haurrek, Birbirako Amaia Zinkunegi eta Ines Gerekak lagunduta, eta denok sortzen ditugun zaborretako materiala erabiliz (plastikoak, latak, arropa zaharrak, tapoiak...) baratze mamu ederrak sortu zituzten.

Okindegia Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitateak parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labean erreaz,
goxo goxo!

Ordoki Industrialdea
Tfn: 948 453 403
31713 ARIZKUN

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

SOULE
Jatetxea
Tfn: 948 457 444
Fax: 948 457 444
www.soule.com

Pierresene
OSTATU - JATETXEA
Jaki tipikoak - Etxeko giroa
Barrioak: Barrio - Tfn: 948 552 043
ORDOZ - MUGAIN

BAZTAN

GIZARTEA → ENPRESAK

Lekarozko kanpusa enpresak hartzeko prestatua dago

Gobernuak 12 milioi euroko inbertsioa egin du

TTIPI-TTAPA

Lekarozko enpresen kanpusa prestatu dago lan-tegiak hartzeko. Azpiegitura honen bidez, kultura, hezkuntza eta ekonomiarekin lotutako ekimenak biltzeko eremu bat sortu nahi da, zerbitzu arloko enpresen bidez. Horretarako 12 milioi euro inbertitu ditu Nafarroako Gobernuak eta Lourdes Goikoetxea Nafarroako Gobernuko Lan- da Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilaria bisitan izan zen ekainaren 5ean.

Kontseilariarekin batera, Garbiñe Elizegi alkatea eta bertze udal ordezkariak izan ziren, baita proiektua egiten lagundu duten enpresetako ordezkariak ere.

Maiatzean akitu ziren hirigintza lanak eta 28.000 metro koadro eraikigarriak ditu enpresak kokatzeko. Moderna Planaren estrategiarekin bat egiten du proiektuak eta hortaz, bertan kokatzen diren enpresek Moderna zigu-lua eskuratzeko baldintzak izanen dituzte.

Kanpusa «balio erantsi handiko» zerbitzu arloko enpresei zuzendua dago. Horietatik lehena, 2012ko azken hiruhilerako martxan jartzea espero den Hizkuntz Murgiketa zentroa izanen da (CIL-Lekaroz). Zentrua-

ren kudeaketa pribatua izanen da. Kanpusak hainbat zerbitzu eskainiko ditu. Erraterako, Telefonikak Gobernuaren laguntzarekin, Internet mugikorrerako 42 Megako konexioa paratu du, Nafarroako altuena.

Soldaten inguruan eztabaida

Diario de Noticias egunkariak Udal Gobernu kideen soldaten inguruan argitaratutako berri «maltzurari» buruz, Udal Gobernuko Taldeak prentsa oharra kaleratu du. Bildu eta Ezkerraren ustez, «Nafarpress delakoak berria amorrudun eta azpikeriadun le- rroburuarekin hasten du, udal kontuei buruz darman ildo editorial tendentziosoa mailarik goren- nerat eramanez eta, aldi berean, onargarriaren muga guztiak gaindituz. Nafarpressen gibelean gorde- rik idazten duenaren pozoina ez da gehi- go jasaten ahal». Gaineratu du, «udalbatzar berriko kideen soldatak aitzinekoenak baina apalagoak direla; orain Udalak kargu politikoen soldatetan 41.000 euro aurrezten ditu».

Soldatak lanorduen, dedikazioaren eta kargu horien arduren azpitik daudela dio Gobernu Taldeak: «Garbiñe Elizegiren soldata garbia hilabete- ko 1.304,11 eurokoa da, 14 ordaineko da eta %80an liberaturik dago. Mikel Ortega %100ean liberaturik dago eta bere soldata garbia 1.511,50- ekoa da eta, Jon Elize-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Lourdes Goikoetxea kontseilaria, Garbiñe Elizegi alkatea eta Florentino Goñi, Begoña Sanzberro, M^a Carmen Iribarren, M^a Isabel Olabe eta Jose M^a Garmendia zinegotziak eta enpresa ordezkariak.



ARGAZKIA: JEXUX BAYLON

320 lagun Mendi Itzulian

Eguraldi ederrarekin, 320 lagunek egin zuten maiatzaren 27an Baztango Mendizola Itzulia. Amaizurren hasi eta akitu zen XIX. ibilaldia.

txerena 749,20 eurokoa; eta bere dedikazioa lanaldi erdikoa». Alkate eta alkateordearen kasuan, «astero 45 ordu baina aise gehiago ematen dituzte lanean eta Jonek bere liberazioari dagozkion 25 orduak gainditzen ditu. Egutero 08:00etarako beren lantokietan egoten dira», dio idatziak.

Gainerakoan dietak eta kilometrajeak behar bezala justifikaturik daudela diote eta «oraingo Udal Gobernuaren lan egiteko modu serio eta zintzoa ezagutzen duen edonork badaki zenbat joan-etorri egin behar izaten dituzten egin beharren barnean». Aurtengo aurrekontua 2011koa baino 2.000 euro txikiagoa dela jakinarazi dute.

Bertzalde, udal batzordeetan baztandarrek horien berri jakiteko ka- marak paratzea ongi le-

gokeela uste du Udal Gobernuak, «zeren UPNek batzorde horietarako gainerako ordezkariak baino gehiago joaten dela diolarik, baztandarrek ikusi- siko lukete horietan ego- tea eta gauzak egitea ez dela gauza bera; eta ho- ri da UPNkoen kasua; gehienetan batzorde ho- rietan egon bai, baino ez dute deus egiten».

Bildu eta Ezkerrak oharrean diotenez, «zen- bakiak argiak dira eta lan politiko eta publikoaren ordain estu bati erantzuten diote». Akitzeko, jakinarazi nahi diote «bai UPNri eta bai bere dis- kurtsoaren bozgorailu izan nahi duen guztiari prest gaudela eztabaida publiko baterako nahi duten leku eta orduan, lan politikoa egiteagatik kobratu dena eta ko- bratzen denaren ingur- ruan».

Bilduren berripapera

Maiatzeko berripaper elektronikoa kaleratu du Bilduk. Lekarozko kan- pusaren harira dio, Uda- lak orain ez duela gaita- sunik bertan deus para- tzeko eta zerbitzu espe- zializatuen sektorer- a bideratua izanda, luxuz- ko poligonoa dela, «Baz- tanen egon daitezkeen beharrak asetzeko balio ez duena». Iruritan dau- den Sagues fundazioa- ren sei bizitzaz ere ari da berripaperan. Bizitza ho- riek herriar batek Udala- ri eta herriarrei eman ziz- kien, ezinean ziren fami- liak laguntzeko. Bilduren hitzetan, Bidelagun elkar- tearen eskariari jarraikiz, «etxe horien kudeaketa guztiz desitxuraturik da- goela ikusi dugu eta, ho- rregatik, horien erabilera zehaztu eta beharrean direnak laguntzeko irizpi- deak jarriko dira».

GIZARTEA → MERKATARITZA

Laugarren argazki lehiaketa antolatu du Bertan merkatarien elkarteak

Ekainaren 30erako aurkeztu behar dira lanak

TTIPI-TTAPA

Martxan da Bertan merkataria, zerbitzu eta ostalarien elkarteak laugarren aldiz antolatu duen argazki lehiaketa. Edozeinendako irekia egonen da, baina argazkiek Baztango jendearekin, ospakizunekin eta ohiturekin lotuak egon beharko dute.

Partaide bakoitzak berak egindako hiru argazki aurkezten ahalko ditu, bertze lehiaketetan aurkeztu gabekoak, eta Baztanen eginak izan beharko dute, kolorezkoak edo txuribeltzak eta bertikalean edo horizontalean. Lanak aurkezteko epea ekainaren 30ean akituko da. Bitartean, eskura ematen ahal izanen dira, astelehenetik ortziralerara 09:00etatik 14:00etara edo postaz bidalita: *Bertan Baztango merkataria, zerbitzu eta ostalaritza elkarteak; Ber-*

tan I. argazkilaritza lehiaketa; Arizkunenea Kultur Etxea, Jaime Urrutia karmika 14, 31700 Elizondo.

SARIAK

Elkarteak hiru argazkirik hoberenak sarituko ditu, Bertaneko kide diren 80 tokitan gastatzeko hiru erosketa bonorekin. Lehendabizikoa saria 400 euroko bonoa izanen da, bigarrena 200 eurokoa eta hirugarrena 100 eurokoa. Gainera, aurkeztutako argazkiekin Bertanek 2013rako aterako duen egutegia osatzeko argazkiak aukeratuko dira.

Sari banaketa abuztuaren 4an egingen den Bertan Egunean egingen da eta lan guztiak ikusgai ere gonon dira. Udazkenean Arizkunenean erakusketa bat egingen da eta irabazle ez direnek urriaren 15etik 31ra bitartean biltzen ahal izanen dituzte argazkiak.

6.000 euro arteko isunak

Ernesto Prati apirilaren 14an Elizondon egin zitzaion ongi-etorriaga-

tik lau baztandar salatu dituela jakinarazi du Ezker Abertzaleak, eta ortziral hartan presoan alde egin zen elkarretaratzea-gatik bertze sei. Salaketaren ondorioz, bakoitzak 300 eta 6.000 euro arteko izan daitekeen isuna izanen omen dute. «Alta, oraingo salaketei azkeneko urteetan esta-

tuak abiatutako apustu errepresiboaren ondorioz, Baztanen pilatu diren isunak gehitu behar zaizkio, 20.000 euro inguru», dio Ezker Abertzaleak. Gaineratu duenez, «nabaria da arazo politiko, sozial eta ekonomikoak direla eta, jendea gero eta gehiago mugitzen ari dela. Horren ai-

tzinean, Gobernuaren aldetik Euskal Herrian garatu duen salbuespen legedia arlo eta eremu desberdinetarat hedatzeko borondatea agerian gelditu da. Herri-tarren arteko elkartasuna, konpromisoak eta antolakuntzak bertzerik ez du ekinbide errepresibo berritua geldituko».



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

Matxuratutako kamioiak gelditzeko guneak egokitu dituzte Belate eta Almandozko tunelen sarreretan

Almandoz eta Belateko tunelen segurtasuna hobetzeko asmoz, tunelen aho inguruetan matxuratutako kamioiendako hiru geldigune egokitu ditu Nafarroako Gobernuak eta horretaz gain, seinalizazioa hobetu eta zainketarako bi bideo kamera berri paratu ditu. Sustapen eta Etxebizitza Departamentuak egin ditu lanak eta horretarako 268.020 euroko inbertsioa egin du, matxuratutako ibilgailuek, kamioiei batez ere, tunel barrenean eragiten dituzten intzidentek kontuan hartuta. Belateko tunelaren alde banatan eta Almandozko tunelean Iruñerako sarbidean egin dira geldiguneak. Almandozko tuneleko Iruñerako sarbidean, berriz, Mendiola auzorako sarbideko zabalguena aprobetxatu da. Mariezkurrena erainkuntza enpresak egin ditu aparkalekuak, Señalizaciones Lacroix enpresak seinalizazioak eta SICE enpresak jarri ditu bideo kamerak. Neurri hauekin, gidariei bere ibilgailuan arazoren bat dutela dakitenean, gelditzeko leku egoki bat eskaini nahi zaie, arazoa bertan moldatu ahal izateko edo laguntza eskatzeko. Arazo mekanikoak dituzten ibilgailuek debekatua izanen dute tuneletara sartzea eta seinalizazioa errespetatzen ez dutenei isunak jarriko dizkiete. Alde honetatik, Anai Astiz Sustapen eta Etxebizitza kontseilariak aipatu duenez, «ibilgailuak matxura duela susmatuz gero, garrantzitsua da tuneletara sarrera debekatzen duen seinalizazioa errespetatzea», baita tunelean ez sartzea semaforoak gorrian eta hesiak jautsiak daudenean ere. Abisu honek begibistakoa badirudi ere, maiatzaren 20an, tunel barrenean matxuratutako kamioi bat zegoenean, hesia jautsi eta semaforoa gorrian egon arren, bi kamioi tunelera sartu ziren. Foru Poliziak isunak paratu dizkie bi gidariei.



KULTURA

NAFARROA → NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEAK ANTOLATUTA

Hainbat sari eskuratu dituzte eskualdeko neska-mutikoek Bertso-paper lehiaketan

Nafarroako mailako bi lehenbiziko sari lortu dituzte

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Bertsozale Elkartek antolatuta, aurten ere Nafarroako Bertso-paper lehiaketa egin da, alde batetik, eskualdeka, eta bertzetik, Nafarroa mailan. Halere, aurtengo sariketa berezia izan da. Murrizketak direla eta, Bertsozale Elkartek eskualdez eskualdeko sari banaketa eta ekitaldia ez egitea erabaki du, eta ikastetxe bakoitzak antolatu ohi dituen bertso saioetan egiten ari dira sari banaketak. Nafarroa mailakoa, berriz, Gobernuak antolatu ohi duen ekitaldian egiten da. Edozein kasutan, hainbat eta hainbat dira sariak eskuratu dituzten eskualdeko neska-mutikoak.

NAFARROA MAILAN

Lehen Hezkuntzako Bigarren Zikloko ikasleei dagokien A kategorian, lehenbiziko saria Berako Ricardo Baroja eskolako Lorena Perezek eskuratu du *Zure gurasoek 15 urteko autoa dute eta ez dute aldatzeko asmorik* lanagatik. Bigarren saria Goizuetako Andres



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean Mendialdeko bertso-paper lehiaketan sarituak izan zirenak.

Narbarte Xalto eskolako Ander Mujikarentzat izan da gai bereko lanagatik.

Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan, B kategorian, Leitzako Erleta eskolako Oihel Altzelai izan da lehenbiziko saria eskuratu duena, *Itxaroten ari zinen mezua iritsi zaizu* lanagatik.

Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. ikasturtekoen kasuan, C kategorian, hirugarren saria Leitzako Amazabal institutuko Saioa Mateorenak eskuratu du, *Itxaroten ari zinen mezua iritsi zaizu* lanagatik.

D kategorian, Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako kasuan, bigarren eta hirugarren sariak eskualdera etorri dira: Lekaroz institutuko

Sukil Etxeniketik bigarren saria eskuratu du *Gauetako 11k dira eta gaur ere ez duzu deus ikasi. Bihar azterketa daukazu* lanagatik eta Leitzako Amazabal institutuko Martxel Intxausti hirugarren izan da *Itxaroten ari zinen mezua iritsi zaizu* lanagatik.

BAZTAN-MALERREKAKO SARITUAK

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako kategorian, Baztan Ikastolako Mikel Garziak irabazi du lehenbiziko saria eta ikastola bereko Liere Rekaldek eta Almandozko Nerea Sarroteak aipamenak eskuratu dituzte.

Bosgarren eta seigarren mailakoetan, Baztan Ikastolako Maite Montiel nagusitu da eta ondoko hauek aipamenak eskuratu dituzte: Ainara Aginaga (Baztan Ikastola), Paula Nuñez (Elizondoko San Frantzisko Jabier ikastetxea), Miren Goienetxe (San Frantzisko), Olaia Elizalde (San

Frantzisko), Oihan Agerre (Almandoz), Junkal Martiarena (Doneztebeko San Migel eskola) eta Irati Uharte (San Migel).

DBH 1 eta 2. mailakoetan, Lekarozko institutuko Eider Bidegainek eskuratu du lehenbiziko saria eta institutu bereko Eider Quertierrek aipamena hartu du.

DBHko 3. eta 4. mailako kasuan, Lekarozko institutuko Sukil Etxeniketik irabazi du eta Doneztebeko Mendaur institutuko Jon Aldabek aipamena eskuratu du.

BORTZIRIAK

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoetan, Rikardo Barojako Lorena Perezek eskuratu du lehenbiziko saria eta aipamenak Ricardo Barojako Jenny Freire, Berako Labiaga Ikastolako Ane Matxikote eta Irati Lazkale eta Lesakako Tantirumairu ikastolako Manex Ramos eta Iratxe Muxikarentzat izan dira. 5. eta 6. mailakoetan,

Tantirumairu ikastolako Ane Telletxeak eskuratu du lehenbiziko saria eta aipamenak hauentzat izan dira: Uxue Mesa (Tantirumairu), Oier Larretxea (Rikardo Baroja), Maialen Ruiz (Ricardo Baroja), Mikel Elzaurdia (Labiaga), Gaizka Zandio (Labiaga), Jokin Mitxeo (Igantzi) eta Enaitz Telletxea (Igantzi).

DBH 1. eta 2. mailakoetan, Labiaga ikastolako Paulo Ramosek eskuratu du lehenbiziko saria eta ikastola bereko Oihana Berasategik aipamena.

MENDIALDEA

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoetan, Xalto eskolako Ander Mujikak irabazi du lehenbiziko saria eta eskola bereko Unax Alsua eta Aresoko Aimar Otermientzat aipamenak izan dira.

5. eta 6. mailakoetan, Erleta eskolako Oihel Altzelai eraman du lehenbiziko saria eta aipamenak hauentzat izan dira: Xabat Ilarregi (Erleta), Beñat Etxezarreta (Areso), Ane Salaberria (Xalto) eta Pello Usobiaga (Xalto).

DBH 1. eta 2. mailakoei dagokienez, berriz, Amazabal institutuko Saioa Mateorenak eta Beñat Altzelai, eta Xalto eskolako Eneko Apeztexea eta Ander Apeztexeak aipamenak eskuratu dituzte eta DBHko 3. eta 4. mailakoetan, Amazabal institutuko Martxel Intxaustik lehenbiziko saria hartu du.





Laparrak: ALTZATITENA JATITXEA • ARLEGUN ETXEA • AZETA JATITXEA • BAR MARIKAN OSTATUA • BENTA ALTHY • BENTA ANSALAS • BENTA ANTON • BIZENTENEA LANDETxea • BORDAXURIA LANDETxea • GRAXIANA ATERRIA • IRIKATXA LANDETxea • JANGONEA LANDETxea • KATTALIN JATITXEA • NAFARRAKO KUBAL KUTXA • SUELDUGIA LANDETxea • TELTUGIA LANDETxea • TOMASINIA LANDETxea • URTXOLA JATITXEA • VAREN ARROBIA • ETXELKUA GARNATEGIA

SARA

KIROLA → BTT IBILALDIA

XI. mendi bizikleta ibilaldia egingen da ekainaren 24an

Txirrindulariek bi ibilbide izanen dituzte aukeran

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 24an, XI. aldiz mendi bizikleta ibilaldia egingen da. Bi ibilbide proposatuak dira, bat 20 kilometrokoa eta bertzea 40 kilometrokoa, 1.400 metroko desnibelarekin. Kaskoa, lizentzia eta medikuaren agiria (urte bat baino guttiagokoa) beharrezkoak dira parte hartzeko.

Izen-emaiteak egunean berean egin behar dira, goizeko 8etatik goiti hamar euro ordainduta eta abiatzea 9etan egingen da plazatik. Hornidurapuntuak, zintzur bustitzea eta opariak ere banatuko dira. Xehetasun gehiagorentzat webgune hau: saravtt.jimdo.com.

Sarako Izarra

Aurten Sarako Izarra errugbi taldeak 40



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean mendi bizikletaren proba abiatu aitzinetik, txirrindulariak plazan.

urte beteko ditu. Honen kariatara, larunbat honetan, ekainak 16, besta bat antolatu dute. Arratsaldeko 2etatik aitzinera, errugbi lehiaketa tiki bat izanen da Animainiako zelaietan. Ondotik, afaria izanen da.

Kantaldia

Ekainaren 19an, asteartearekin, Goraki taldeak kontzertua emanen du elizan, 21:30-

ean. Sartzea hamar eurotan izanen da helduentzat.

Eskola publikoaren besta

Ekainaren 23an, larunbata, eskola publikoak bere besta egingen du. Arratsaldeko 5etan hasiko da haurren ikusgarriarekin, joko puzgarriak izanen dira haurrentzat. Kiroldegian egingen da, ostatu bat muntatua izanen

da eta gauean, afari bat ere izanen da denei irekia. Gaua goxoan bukatzeko dantzaldi bat izanen da.

Ikusgarria

Larunbat honetan,

ekainak 16, arratsalde, Olhain ikastolako haurrek ikusgarri bat emanen dute Lur Berri gelan. Istorioa Euskal Herrian hasten da, lau haur jolasten ari dira globo batekin eta aukera izanen da haien tizat herrialde ezberdinetan entzundako ipuinak kondatzeko. Krea-zio original bat da, dantza eta antzerkia nahasten dituen.

Eskubaloian finalean ezin

18 urte azpiko eskubaloio jokalariek galdu egin dute finala Lescarren 14-12. Herritarrengandik sustengu polita izan dute autobus beteak abiatu baitzen Lescarrera. Nahiz eta finala galdu, heldu den urtean ohorezko mailan ariko dira.

E. ERANDONEA, S.L.
FARMACIA DE LA BARRIOJA
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - aldea 21-22 • 31780 BERA

MONTXO OSTATUA TABAKO-BENDA
Tutur berrituak | Gajotekak | Patrook | Memok berrituak
Egunero jekak 09:00etatik 02:30era - Bidasoan 2 km berru
ANJAN-BITRIA - URTAZURI | 948 599 039

ALTZURI ebetresurak
%5eko DESKONTUA ebetresurak

CAFE DE LA MAIRIE
BIDASOA - BERRIA
T.F. 859 971 442
BERA

BIDASOA
BIDASOA - BERRIA
T.F. 859 971 442
BERA

ZUGARRAMURDI

OSPAKIZUNAK → AKELARRE ELKARTEAK ANTOLATUTA

Berrikuntzekin dator larunbat honetan eginen den Sorginaren Eguna

Txalaparta
tailerra da
nobedadeetako
bat

Koro eta Margari

Dena prest daukagu larunbat honetan, ekainak 16, eginen den Sorginaren Egunerako. Urtero eskaintzen diren ekitaldiez gain, bigauza berri dira aipagai: alde batetik, txalaparta tailerrak prestatu direla. Eta bertetik, hitzaldia emanen duten hiru lagunek beraien liburuak aurkeztu eta sinatuko dituztela jende aitzinean.

EGITARAUA

- 11:00etan: Urdazubi eta Zugarramurdiko trikitixa eta pandero taldea karrikaz karrika.

- 11:30ean: III. Haurren Ipuin eta Marrazki Lehiaketaren sari banaketa.
- 12:00etan: *Sorginak egon bazeuden* hitzaldia Museoan.
- 13:00etan: bi sorginek gidatuta bisita lezean.
- 13:00etan: txalaparta tailerra eskolako plazan.
- 15:00etan: *Agoteak, Ziburutik Zugarramurdira*, hitzaldia Museoan.
- 17:00etan: lezeari eskeinitako errituala.
- 17:00etan: *Sarako erretoxe Axular eta sorginkeria* hitzaldia Museoan.
- 17:30ean: Teatropalacalle taldearekin ikuskizuna plazan.
- 18:00etan: bi sorginek gidatuta bisita lezean.
- 18:00etan: txalaparta tailerra eskolako plazan.
- 19:00etan: haur dantzarien emanaldia.

- 20:30-21:30: Akelarren antzezpena eta piroteknia ikuskizuna.

Egun osoan artisau azoka izanen da Behitiko Karrikan eta marrazki erakusketa Museoan.

Margo erakusketa

Bazter hauetan hain ezaguna den Courougnon margolariak erakusketa paratu du Museoan. Hilabete osoan ikusgai egonen da.

Kantatzeko deia

Zorionez, gure herrietan kantatzeko zaletasuna atxikitzen da oraino. Hori dela eta Atsulai kantari taldeak neska eta mutilak behar dituelajakinarazi du. Norbaitek ize-na eman nahi badu 0033 559299238rat deitu behar du (Pantxoa Dage-



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Liburua sorgin ehizaren inguruan

Berriki argitaratutako Mikel Azurmendiren *Las Maléficas* liburuak 1608 eta 1614 bitartean gertatu zen sorgin ehiza kontatzen du. Iparralden hasi, Zugarramurditik zabaldu, eta Bortziriak, Malerreka eta Baztanera hedatu ziren gertaerak ezagutzeko manera erraza da.

re). Entsaioak Ainhoan egiten dituzte, ortzirale-tan 20:30ean.

Pala txapelketa

Binakako pala txapelketa antolatu du Akelarre Elkarteak. Izenabana-

ka eman behar da, eta bikoteak antolatzaileek egiten dituzte. Partidak aste hondarretan izanen dira, eta finala bestetan. Izen-ematea Marixan osatuan egin behar da, hirlaren 23a baino lehen.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Erreka, igerileku eta hondartzarako
toallak

edredoi fundak • albornozak • edredoi nontikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toallak
Tafalla, 13 • IRUÑA • 948 230 634

SENPERE

MUSIKA → KALAKAN TALDEKO MUSIKARIA

Madonnaren mundu biran parte hartzen ari da Jean Michel Bereau senpertarra

2012 bukaera arte 80 bat kontzertu emanen dituzte

Franck DOLOSOR

Senperen nork ez du ezagutzen Jean Michel Bereau? Euskal dantzaria, kantaria, aktorea, musikaria, Kukumiku musika taldeko kidea, umore zalea, Kalakan taldeko musikaria... orain munduan barna ere ezagutuko dute Madonnarekin kantatzen hasi baita. Pop musikaren izarrak Kalakan hirukote euskalduna ezagutu zuen iazko udan Getariko udako etxe batean ospatu zen bere urtebetetze gauean. Kalakan taldeak musika jo zuen Madonnaren ohoretan eta izarrari berehala gustatu zitzaion eus-

kal musika. Biharamunean, Madonnak euskal hirukotea deitu zuen telefonoz azaltzeko ikusgarri berria prestatzen ari zela eta haiekin lan egiteko prest zela! Geroztik lotura atxiki dute eta azkenean Madonnak proposatu die harekin parte hartzea munduan barna egiten ari den biran. Proposatu eta egin, eta geroztik sarean ez da bertzerik aipatzen: amerikarrak *Al-dapeko* kantu ezaguna eta euskal dantza urratsak taularatu dituela *Sagarra Jo* oihukatuz. Irudiek mundu osoaren itzulua egin dute eta Senperen ere, nola ez, ez da bertzerik aipatzen...

Kolaborazio artistiko harrigarri hunen inguruan sekretu haundia izan da hastapenean artistek konfidentzialitate osoa atxiki behar baitzu-



UTZITAKO ARGAZKIA

Kalakan taldeko hirukotea aitzinean Madonna abeslaria dutela.

ten lehenik. Martxo hastapenean, Jean Michel Bereau, Xan Errotabehere eta Thierry Biscarri Euskal Herritik New Yorkera joan ziren ikusgarria prestatzerat isilean, kasik inori aipatu gabe. Hiru artistek lan haundia eta zalantzak izan dituzte baina gusaturat daude pop izarrak errespetu haundia dielako eta harreman oso ona baitute. Hiru mutikoen diotenez ez dute oraino arras neurtzen gertatzen ari dena baina oraingoz nahi dute gozatu eta pozik daude errespetatuak sentitzen direlako.

Tel Aviv, Abu Dhabi eta Istanbulen ondoren, ondoko egunetan Italian eta Bartzelonan agertuko dira. Hiru artisten familiak Katalunia-ko hiribururatu joatekoak

dira. Bertzalde, uztailaren 14an Parisen eskainiko dute beren kontzertua eta baliteke Jean Michelen lagun frango harat joatea. 2012 bukaera arte, mundu osoan barna laurogoi bat kontzertu eskainiko dituzte Madonnak eta Kalakan hirukoteak, eta tartean Jean Michel Bereauk.

Laburrean

Amotzeko eskolaren aldeko zerri ttiki jatea ereiaroaren 23an eguerdian ospatuko da.

Biharamunean, kermeza egingen da, parrokiaren aldeko besta nagusia. Egun hortan Senpere zeharka lezakeen abiada haundiko treinbidearen kontrako ibilaldia egingen da.

Jondoni Petrikari besta nagusiak ereiaroaren 29tik uztailaren 3rat ospatuko dira Venetza, Trikizio, Izarrak; Zortzi Iturri eta Patxi eta Konpainia taldeekin. Lehen aldikoz, ahate jokia egingen da igandearekin senperarren egunean.



Oxkar

Amaiurren, 2011ko ekainaren 14an
I. URTEURRENA

Iduzkie gorde,
eta gauero bezala,
dir-dir, dir-dir zeruan
jostetan hasi da,
laimoen artetik
kukuke zaigule.
Izar horren diztinak
ilargi beteare
garaitzen du, eta
argi erreinu batekin,
babesa ematen digu.

IGANDETAKO TXUPITEROAK



EZKONTZAK

Izaro Goikoetxea Eskudero eta **Gari-koitz Etxegarai Migeltorena**, Goizue-
takoa eta Leitzakoa, ekainaren 2an Goi-
zuetan.
Zorion Ezkurra Baleztana eta **Olaz**
Babaze Urroz, Saldiaskoa eta Donos-
tiakoa, maiatzaren 12an Zubietan.
Joseba Etxepare Errandonea eta
Itziar Aiestaran Altzugarai, Lesaka-
koa, maiatzaren 26an Lesakan.
Jabier Moran Gonzalez eta **Maria del**
Mar Santano Martinez, Lesakakoa,
ekainaren 4an Lesakan.
Cyrille De Yzaguirre eta **Christelle**
Labarrère, maiatzaren 26 an Saran.
Michel Larzabal eta **Marie-Claire**
Front, maiatzaren 26an Saran.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen
atalean agertzea nahi badu, 948 635458 te-
lefonora deitu beharko du.



SORTZEAK

Mikeldi Lizardi Abasolo, Arantzakoa
maiatzaren 21ean.
Izar Maritorea Erroz, Anizkoa, maia-
tzaren 29an.
Ibai Maritxalar Ibarra, Sunbillakoa,
maiatzaren 28an.
Eneko Apeztegia Santesteban, Itu-
rengoa, maiatzaren 17an.
Ibai Tapia Iturria, Lesakakoa, maia-
tzaren 20an.
Amets Lasa Perez, Lesakakoa, maia-
tzaren 28an.
Xiker Iratzoki Portu, Igantzakoa, ekai-
naren 1ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen
atalean agertzea nahi badu, 948 635458 te-
lefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Juan Goizueta Perurena, Goizueta-
koa, maiatzaren 26an, 76 urte.
Tomasa Etxarte Abanz, Lesakakoa,
maiatzaren 25ean, 91 urte.
Maria Luisa Fernandez Miura, Elizon-
doka, maiatzaren 21ean, 89 urte.
Fermina Bergara Ariztegi, Arantza-
koa, maiatzaren 28an, 80 urte.
Jose Manuel Etxarte Iratzoki, Igan-
tzakoa, maiatzaren 29an, 81 urte.
Juan Maria Zubillaga Gabirondo, Lei-
tzakoa, maiatzaren 30ean.
Manuel Dagerre Martinez, Berakoa,
maiatzaren 30ean, 69 urte.
Ana Maria Maritorea Etxebeste, Le-
sakakoa, ekainaren 1ean, 45 urte.
Juan Tomas Aizpuru Iribarren, Eli-
zondokoa, ekainaren 4an, 54 urte.
Agustin Zabaleta Aranburu, ekaina-
ren 4an, Leitzakoa.
Ignazio Ugartemendia Korta, Bera-
koa, ekainaren 5ean, 80 urte.



Amatxi Mª Luisa

Elizondon hil zen, 2012ko maiatzaren 21ean,
89 urte zituela

Tiendan sillen jarrite
prest zerbait saltzeko
gantxilloakin lanetan
edo mandatuek iteko
zure umore onaz
zerbait kantatzeko
amatxi izanen zara
zalla atzentzeko.

FANTXIKEKUAK

GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERA (San José)
LESACA | ELIZONDO (Bastan) | LEITZA | BETELU
DONEZTEBE (San Pedro) | ELIZONDO (Barandona)

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTI ETA IRUNGO OSPITALETATIK
EDOZEIN HEHRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

PILOTA → MARTXOAREN 3TIK EKAINAREN 3RA

286 pilotarik parte hartu dute Josetxo Ezkurraren XXI. Memorialean

Sariak pilotari ezagunek eman dituzte

TTIPI-TTAPA | BAZTAN

Martxoaren 3az gozotik, 309 partida jokatu dira Josetxo Ezkurraren XXI. Memorialean eta sei kategoriatan banatuta, 286 pilotarik hartu dute parte Txaruta Pilota Elkartek antolatutako txapelketan: 28 pilotari ttikien mailan aritu dira, 64 umeetan, 66 lagun kimuetan, 42 haurretan, 54 kadeteetan eta 32 gazteetan. Nabarmendutakoek finalak ekainaren 3an jokatu zituzten.

Ttikien mailan, Elizondoko Oihan Obregozo eta Ibai Ballarenak 18-10 irabazi zieten Oronoz-Mugairiko Miren eta Txomin Altxuri.



ARGAZKIA: ZALDUA

Ekainaren 3an finalak jokatu ondotik sari banaketa egin zen.

Umeen B mailan, Lezakako Aritz Otxoteko eta Asier Larralde tanto bakarragatik nagusitu ziren, Andoaingo bikotearen kontra. **A mailan**, berriz, Arbizuko bikoteak 18-8 irabazi zien Elizondoko Unax Apeztegia eta Zubiriko De la Fuenteri.

Kimuen B mailan, Ultzamakoak nagusitu ziren, 18-17, Lazkaokoan

aurka. **A mailan**, Usurbilgo Aranguren eta Iganztziko Telletxeak 18-8ko markagailuarekin irabazi zuten Zizurko Arribillaga eta Goizuetako Antton Apeztexearen aurka.

Haurren B mailan, 18-15 Oiartzungo bikoteak irabazi zien Larraintzarko Andoni Gasque eta Elizondoko Aritz Merinori. Eta **A mailan**,

Andoainera joan zen txapela, Oronozko Enaitz Antso eta Sunbillako Iker Espelosinen kontra 18-17 irabazi zutelako.

Kadeteen B mailan, 18-7 nagusitu ziren Etxekolonea zubietarra eta Saldias urroztarra, Uhartea eta Ultzamakoaren kontra. **A mailan**, Iruñera joan zen garaipena, Narteko David Albiasu

eta Elizondoko Sergio Oskozi 18-9 irabazita.

Gazteen mailan, azkenik, 18-10 irabazi zuten Arkaitz Untxalo iturrendarrak eta Joseba Apeztegia iruritarak. Andoaingo bikotea izan zuen kontrario.

Sari banaketan Barriola, Asier Olaizola, Otxandorena eta Apeztegiak parte hartu zuten.

SOKATIRA → LAUKO TXAPELKETA

320 kilokoan kategorian Nafarroako txapela lortu du Amaiurrek


300 kilokoetan, berriz, bigarrena izan da Amaiur

TTIPI-TTAPA | AMAIUR

Akitu da aurtengo Nafarroako Goma Gaineko Lauko Sokatira Txapelketa, eta Amaiur ederki

moldatu da. Gizonezkoen 320 eta 300 kilokoan kategorian parte hartu du eta txapela eta bigarren postua eskuratu ditu, hurrenez hurren.

320 kilokoan kategorian, zazpi talderen artean nagusitu da Amaiur, eta 14 puntu lortuta berteen gainetik dagoela erakutsi du. Bigarren eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Amaiur Sokatira Taldekoek Iñaki Iriarte taldekideari eskaini zioten txapela.

hirugarren izan diren Ibar-din eta Basaburua-Imotz taldeei lau puntuko alde atera die.

300 kiloko kategorian, berriz, Berriozarko taldeak hartu dio aurrea Amaiurri, baina puntu eta

erdiko aldeagatik. Sailkapen nagusian, zazpi talderen artean, Berriozarrek 13,5 puntu lortu ditu eta Amaiurrek 12 puntu. Hirugarren izan den Ibar-din taldeak 9 punturekin gelditu da.

Sailkapenean seigarren gelditu da Amaiurko bertze taldea, Amaiur Sokatira Taldea, hain zuzen, 4 punturekin.

Ez kadete eta ez emakumezkoetan ere, ez da eskualdeko talderik izan.

MENDIA → BETI GAZTE ELKARTEAK ANTOLATUTA

Lesakako XI. Mendi Itzulia igande honetan egingen da

Internetez izena emateko aukera ortziralean bukatuko da

TTIPI-TTAPA | LESAKA


Igande honetan, ekainak 17, Lesakak hartuko du mendi itzulien lekukoa. Eta hamaikagarren aldiz, Beti Gazte elkarteak antolatutako ibilbidea egiteko aukera izanen da.

Bi ibilbide izanen dituzte mendizaleek aurretik: luzea, 33 kilometrokoa eta 1.800 metroko desnibelarekin, eta motza, 25 kilometrokoa eta 1.200 metroko desnibe-

larekin. Ibilbidea 07:00-etatik 07:30era abiatuko da, eta aitzinetik, 06:00-etatik 07:30era, izena emateko aukera izanen da. Lehenagotik ere egin daiteke Internetez, www.mendizmendi.com web orrian, baina ortziralean hau baino lehen.

Plaza Zaharrean emanen zaio itzuliari hasiera, Sastrineraino joateko. Handik bide zaharrari segituta, Itsaszelaietara joanen dira mendizaleak, Apittuko gainetik pasata, eta hortik Amekurrungo atakaraino.

Puntu honetan, ibilbide luzea hartuz gero, Artikutza mugatzen duen



Ibilbide laburra goian eta luzea behean.

zerrakurari segituta Izuiko kaskora joanen dira eta handik Artikutzara. Gero, Erroiarritik Eskasera joanen dira eta beranduago, Arrixulagainera joanen dira. Ondotik, Errengako lepora jeitsiko dira.

Ibilbide laburra aurretik, Amekurrungo atakatik barna, Pago-

lleta eta Elutxatik pasako dira eta Burnaizegiraino joanen dira. Ondotik, Galtzarrieta, Bianditz eta Arrixulagainera joanen dira mendizaleak, Errengako lepora jeitsi aitzinetik. Arrixulagainera bat egingen dute ibilbide luzeak eta laburrak.

Errengara igotakoan, Garbisuko Hegitik pasa-

tuta Domikoraino ailegatu-ko dira. Hemen luzea egin nahi dutenek urtegia inguratuko dute eta Ikatzulora joanen dira. Laburra nahi dutenak urtegiaren diketik Ikatzulora joanen dira. Goiko Iragara jeitsiko dira, ondotik Akerregiko gainera igoko dira eta handik helmugara ailegatu-ko dira.

TXIRRINDULARITZA → ITALIAKO GIROA 2012

Hamargarren postuan bukatu du Italiako Giroa Mikel Nieve leitzarrak

Txapeldunak 8 minutu eta 8 segundo atera dizkio

TTIPI-TTAPA | LEITZA

Ez du Italiako Giroko etaparik irabaztea lortu joan den urtean bezala; bai, ordea, sailkapeneko lehenengo hamarren artean sailkatzea. Lan ederra egin du

Euskaltel-Euskadiko Mikel Nievek (Leitza, 1984) aurtengo Italiako Giroan eta sailkapenean hamargarren bukatu du, Hesjedal (Kanada, 1980) Giroko txapeldunarengandik zortzi minutu eta zortzi segundo-ra.

Egindako lanarekin kontent itzuli da etxera Nieve. «Lehenengo hamarren artean sartzea oso konplikatu da, eta



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Mikel Nieve jon den urteko Giroan, etapa irabazi zuenean.

poziki egotekoa da. Gainera, arriskatuz lortu du, urrutitik eraso egin ez eta talde elkartua eta ausarta garelako erakutsi dugu», esan zuen Leitza. Txirrindulariak maiatzaren 27an Giroa bukatutakoan. Alvaro Gonzalez de Galdeano Euskaltel-Euska-

diko kirol zuzendaria ere kontent zegoen Nieve-aren lanarekin: «hiru astezko lasterketetan gizonek indartsuenetakoen artean sartzen da. Giro honetan bere kirol ebor-luzioa haunditzen ari dela ikusi dugu. Bere ezauzgarrietara egokitzen den lasterketa da Italiako Gi-

roa eta balore segurua da».

Aipatzekoa da, joan den urtean sailkapen nagusian hamaikagarren gelditu zela Nieve, txapeldunarengandik 16 minutu eta 18 segundo-ra. Eta joan den urtean, Giroko etaparik menditsuena ere irabazi zuen.

ekainak 14 - ekainak 27

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58**Bertsoak**

DONEZTEBE | 2012.06.16

Mendi Abesbatzaren 15. urteurrenko kontzertua

Mendi Abesbatzak 15 urte bete dituela eta emanaldi berezia eskainiko du elizan, Agorreta musika eskolako ikasle eta Errekako dantzariekin batera.

Ospakizunak

ZUGARRAMURDI | 2012.06.16

Sorginen Eguna ekitaldiz bete dator aurtien ere

Zugarramurdiko kultur egitarauan ohikoa bihurtu den ospakizun honetako ikuskizunez gain, txalaparta tailerra eta hitzaldiak izanen dira.

Mendi ateraldiak

LESAKA | 2012.06.17

Mendi Itzuliaren 11. edizioa igandean antolatu dute

Beti Gazte elkarteak hamekagarren urtez antolatutako mendi itzulia igandean egingen da. Bi ibilbide izanen dira aukeran, 33 eta 25 kilometrokoak.

ETXALAR**Haurren Eguna**

Ekainaren 17an Haurren Eguna antolatu du Guraso Elkarteak. Xehetasunak 25. orrian.

LESAKA**Euskaraz Bai Eguna**

Ekainaren 23an Euskaraz Bai Eguna antolatu du Euskara Batzordeak. Xehetasunak 24. orrian.

URROZ**Artisauen Eguna**

Ekainaren 16an antolatu da. Xehetasunak 32. orrian.

Erakusketak**ELIZONDO****Palestina: Okupazioa eta erresistentzia**

Ekainaren 1etik 18ra *Palestina: Okupazioa eta erresistentzia* erakusketa antolatu du Sodepaz elkarteak Arizkunenean. 18:00etatik 20:00etara.

J. Ansoainen margo erakusketa

Ekainaren 8tik 28ra J. Ansoainen margoak Arizkunenean.

ZUGARRAMURDI**Michel Courougnon-en margo erakusketa**

Ekainaren 2tik uztailaren 1era Michel Courougnon-en *Visions* margo erakusketa ikusgai Sorginen Museoko ganbaran.

Kontzertuak**DONEZTEBE****Mendi Abesbatzaren 15. urteurrena**

Ekainaren 16an emanaldi berezia eskainiko dute elizan, 20:30etik aitzinera. Abesbatzako kideez gain, Agorretamusika eskolakoak eta Errekako dantzariak.

ELIZONDO**Tirri&Tery taldea Lur aretoan**

Ekainaren 16an denboraldia akitzeko Tirri&Tery taldea izanen da Lurren, 01:00etatik aitzinera. Sarrerak: 9 euro eta kontsumizio bat doan 03:30 arte.

AMAIUR**Punk Oi eta Rock&Roll gaua Herriko Ostatuan**

Ekainaren 16an Punk Oi eta Rock&Roll gaua antolatu dute Herriko Ostatuan. 22:00etatik

aitzinera Orreaga 778, Erru Gabe, Kaleko Ur-dangak eta Big Time Sound System taldeek joko dute. Sarrera 3 euro kobratuko da eta bildutako dirua 1512-2012 Nafarroa Bizirik Plataformarentzat izanen da.

IRURITA**Eskola ttipien jaialdia**

Ekainaren 20an Urdaubi-Zugarramurdi eta Baztango herrietako eskolek antolatutako jaialdia 11:00etatik aitzinera frontoian.

Ospakizunak**IRURITA****Dantzari Eguna**

Ekainaren 16an dantza emanaldia antolatu dute Iruritako dantzariak 12:00etatik aitzinera plazan.

ELIZONDO**Artea karrikan**

Ekainaren 17an Pedro Axular karrikan *Artea karrikan* ikusteko aukera izanen da, 11:00etatik 20:00etara, Urtxin-txa eta Margolarien kolektiboaren eskutik.

ZUGARRAMURDI**Sorginen Eguna**

Ekainaren 16an ospatuko da. Ohiko ekitaldiez gain, txalaparta tailerra eta hitzaldiak.

Bestak**ARIZKUN****San Juan bestak**

Ekainaren 22tik 25era San Juan bestak. Xehetasunak 12. orrian.

SALDIAS**San Juan bestak**

Ekainaren 22tik 25era San Juan bestak. Xehetasunak 33. orrian.

DONEZTEBE**San Pedro bestak**

Ekainaren 28tik uztailaren 1era Sanjuanak. Xehetasunak 16. orr.

ERRATZU**San Pedro bestak**

Ekainaren 28tik uztailaren 1era San Pedro bestak. Xehetasunak 13. orrian.

BERA**Altzateko bestak**

Ekainaren 15etik 17ra ospatuko dira Altzateko bestak. Xehetasunak 23. orrian.

PROPOSAMENA**ESKUALDEA****San Juan eta San Pedro besten txanda**

Udarekin batera herriz herriko bestak berotzen hasiko zaizkigu. Sanjuanak Arizkun eta Saldiasen, Sanpedroak Donezteben eta Erratzun... Zahar, haur eta gazte, ederki pasatzeko moduko egitarauak prestatu dituzte, krisiari aurre egiteko irudimena landuz. Denak karrikara ateratzeko moduko ospakizunak, ez dadila inor balkoitik begira gelditu!



ZUBIETA

Uritzako festa

Ekainaren 16an ospatuko da Uritzako besta. Xehetasunak 31. orr.

Lehiaketak

BAZTAN

Bertan elkar tearen IV. argazki lehiaketa

Ekainaren 30a bitarte aurkezten ahal dira Bertan elkar teak antolatutako argazki lehiaketarako lanak.

LESAKA

Koxkila ostatuko I. argazki lehiaketa

Ekainaren 30a bitarte aurkezten ahal dira Koxkila ostatuak antolatutako argazki lehiaketarako lanak. Gaia: natura eta Lesaka.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Baztango Mendigoizaleak

Ekainaren 17an Lesakako Mendi Itzulira ganen dira. (07:00)

SUNBILLA

Ulibeltzak Mendi Taldea

Ekainaren 24an Tapla-Otsagabia zeharkaldia eginen du Ulibeltzak taldeak (06:30).

ZUGARRAMURDI

Atxuria mendi taldea

Ekainaren 24an Bera-Hendaia ibilaldia eginen du Atxuria mendi taldeak.

LESAKA

Lesakako Mendi Itzulia

Ekainaren 17an eginen da Beti Gazte elkar teak antolatutako mendi itzuliaren 11. edizioa. Xehetasunak 53. orrian.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Ez dago argi


IDOIA ETXEBERRIA

EIDER EIBAR

Elkar, 2009

Pareko etxean argi bat ikusi du Mireiak, gau eta egun piztuta dagoen argi bat. Berak ez daki nor bizi den etxe horretan, ezta zergatik daukan argia piztuta ere: azterketak prestatzen dabilen ikasle bat? Oporretara joan eta argiak piztuta ahaztu zituen norbait? Hilda ote dago bertan bizi zena? Gai-xo? Delituren bat egiten ari ote dira bertan? Irudimena bezain jakin-min handia du Mireiak, eta bere lagun Paulekin batera misterioa argitzen saiatuko da, benetako ikerlariak balira bezala. Lizardi Saria irabazia du Idoia Etxeberria Elorzak idatzi eta eta Eider Eibar Zugazabeitiaren ilustrazioak biltzen duen ipuin honek. 12 urtetik goitiko neska-mutikoei zuzendutako Xaguxar bilduman argitara eman du Elkar argitaletxeak.

Musika



Irabazi arte!

IHESKIDE

Mauka musikagintza, 2012

Ihesbide (b-rekin) 2004an sortu zen Elorrión, punk-rock errebeldea egiteko eta bidegabekeriak sufritutako bozgorailu bilakatzeko. Zeregin horri ekin eta maketa eta disko bana kaleratu zituzten, 2008an Tronpi taldekidea atxilotu eta espetxeratu zuten arte. Hala, Tronpiren eta errepresaliatu guztien omenez, hainbat lagunen babesa jaso eta *Iheskide* diska grabatu zuten. Ordutik hona taldea Iheskide bilakatu da, errepresioaren ondorioz ondoan egon ezin duten bertze lagun batzuk ere taldea osatzen dutelako. Eta Tronpi dagoeneko taldean dago berriro ere. Laugarren disko honetan ere iraultza, espetxea, Nafarroa, lobby jeltzalea, gose greba, dispertsioa, maitasuna eta antzeko gaiak landu dituzte. Musikari dagokionez, hurbil daude Kanpazar gaina alderik alde gaingitu izan duen Oi!-aren arrastotik, baina punk-rock errebeldea da beraien esparru estilistikoki hagitz irekia.

Internet



Ikerketa eta garapen sareak 10 urte

BASQUERESEARCH.COM

Elhuyar Fundazioaren Basque Research webguneak hamar urte bete ditu Euskal Herrian egiten den ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren erakusle izaten. Hamar urte hauetan, 8.000 albiste eta ekitaldi bildu eta zabaltu ditu; ez bakarrik Euskal Herrian, baita mundu zabalean ere. Erraterako, aipagarriak dira Europako ikerketa biltzen duen *Alphagalileo* eta Europako Batzordearen *Cordis Wire* webguneekin dituen lankidetzak. Era berean, Basque Researchen argitaratutako albisteak *Eurekalert!* webgunean ere zabaltzen dira, Science aldizkari ospetsua editatzen duen taldearen webgunean, hain zuzen. Sare horri esker, hamar urte hauetan, Euskal Herrian egiten den ikerketari buruzko albisteak komunikabide entzutetsuetan agertu dira: The Times, New Scientist, BBC, Discovery Channel, National Geographic, CNN...

Nire aukera



Patxi «Mak» IRIARTE
Doneztebeko Zaldia argazkidenda

«Ez zait burutik pasatzen ere kamerarik gabe uretan murgiltzea»

Argazki-dendan edo Argazki-makina beti eskuetan duela eza gutzen dugu Mak. Bere afiziorik kuttunena itsasoan murgiltzea da eta orduan ere ez du inoiz aparte argazki edo bideokamera: «Ez dut pentsatu ere egiten kamerarik gabe joatea, noizbait ura sartu eta hondatu egin zait eta esperientzia oso txarra da», dio. Hemen inguruan, Hondarribira eta gehienetan Getariara joaten da. Arrain handiegirik ez da gure itsas bazterrean, «ataloa edo ilargi-arraina da bereziena eta kanpoko jendea ere etortzen da ikustera». Kanpora ateratzea ere gustatzen zaio Mak-i. «Krisia begiratu behar dugu, baina aurreten nire taldea Filipinas aldera joatekoa da. Orain bi urte Fidji uharteetan izan ginen, marrazoak ikusteko zoragarria da, eta horko lana Donostiako festibalean aurkeztu eta hirugarren saria eskuratu genuen». Bahamasko Tiger Beachera joatea gustatuko litzaioke, «hiru marrazo klase ikusten ahal dira eta».

ETXEBIZITZAK**salgai**

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. **☎943 217817.**

ORONOZ-MUGAIRI. 2 bizitza salgai, mobleztatua. Berogailua, igogailua, trastelekua eta bajerarekin. Prezio onean. **☎948 585036.**

DONEZTEBE. Herri erdian pisu berritua salgai. Sukaldea, 2 logela, egongela eta bainugela. Berogailuarekin eta 15m²ko trastelekua. **☎630 160353.**

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuak bere lurra-
rekin salgai.


Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

ORONOZ-MUGAIRI.

100 m²ko etxebizitza salgai, mobleztatua, 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, jaki-gordailua eta kanpora ematen duen trastelekua, oso argitsua, moskitera leiho guztietan, biomasa berogailua, urbanizazio pribatuan, lorategi haundiarekin, aparkalekuak guztientzako eremuan. 205.000 euro. **☎620 679145.**

**MERKATU TTIKIA****948 63 54 58**

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **3008 0080 56 0703304329** kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ELIZONDO. Santiago karrikan 83 m²ko pisua salgai. 3 logela, egongela, bainugela, sukaldea eta balkoia. Mobleztatua. 96.000 euro. **☎638 231385.**

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua errentan emateko. **☎646 774117.**

IGANTZI. Pisu berria errentan emateko 400 eurotan edo salgai 180.000 eurotan, 2 logela, egongela, bainugela, berogailua, trastelekua (pisua saltzen bada) eta marra garajea. Oso argitsua. **☎670 218613.** (Oharra: eta orain, pisua erosten duenarentzat, 12.000 euro arteko kotxe bat opari, zuk aukeratu kotxea eta nik ordainduko dut).

BERA. Estreinu gabe-

ko pisua errentan emateko. 2 logela, komuna dutzarekin, egongela, sukaldea eta horiez gain, 20 m²ko terraza. Dena altzari berriekin. Herri sarrreran dago, gasolindigitik 100 metrotara eta Behobiatik 10 minutura. **☎650 603871/ 650 064912.**

DONEZTEBE. Herri erdian 110m²ko pisua errentan emateko. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela eta trastelekua. Mobleztatua eta berogailuarekin. Oso egoera onean. **☎618 628263.**

ETXEBIZITZAK
konpartitu

IRUÑEA. Zaragoza etorbidean pisua osatzeko jendea (ikasleak) behar dira. **☎605 723094.**

LURRAK-ORUBEAK
errentan hartu

BAZTANEN EDO MALLERREKAN baserria lurra-
rekin errentan hartu nahi da. **☎948 453301.**

ZERBITZUAK
zurginak**GARAJEAK-LOKALAK**
salgai

ARRAIOZ. 45 m²ko bagera salgai. **☎629 317086.**

LANA
eskariak

BERA. Neska gazte eus-

kalduna haurrak zaintzeko prest dago haurrak zaintzeko. **☎676 389481.**

Neska gazte euskalduna prest dago haurrak zaintzeko. Lesakan edo Beran lan eginen luke uda osoan. **☎648 778966.**

LANA**eskaintzak**

Frantses pixka bat daki mutil edo neska bat behar da udan **Larungo benta batean** lan egiteko. **☎948 631100/607 566022.**

BERA. Ile-apaindegi batean makillatzen laguntzeko neska bat behar da. **☎661 432630.**

MOTORRAK**salgai**

Opel Monterey autoa salgai. Egoera onean. 2.000 euro. **☎607 853208.**

Citroen Xsara egoera ezin hobean salgai. 178.000 KM. Salmentaren arrazoia gutti erabiltzen dela. Prezioa: 3.000 euro salmentaren gastuak barne. **☎660 029573.**

Seat Cordoba GT TDI, 110 CV salgai. 163.000 kilometro. 2.000 eurotan. **☎679 829446.**

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(maiatzaren 25etik ekainaren 1era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 40,00 € (-3,00)

Zerri gizena
1,337 € kiloa. (+0,027)

Zerramak:
0,590€ Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,16 (-0,06)
1.koa 3,86 (-0,06)
2.koa 3,65 (-0,06)
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,22 (-0,06)
1.koa 3,94 (-0,06)
2.koa 3,87 (-0,06)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 100,00 (=)
idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 110,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,94/3,04
Zaldi-behorrak: 1,81/2,01
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 7,00/7,10
8-10 kilokoak: 5,40/5,80

Rover 25 1.6 autoa salgai, 129.000 kilometro, grisa kolorekoa, gasolina, 2002.urtekoa, ongi zaindua. 3.000 eurotan. **665 712697.**

MOTORRAK tailerrak



ANIMALIAK oparitu

Zakurkumeak oparitzeko, bi ar eta eme bat. Atta spanier arrazakoa eta ama setterra. **678 024636.**

Zakurkumeak oparitzeko, hiru eme eta 2 ar. 35 egun ingurukoak. **626 605304/616 665191.**

Zakurkumeak oparitzeko. Ama bertako artzain zakurra eta atta Border Collie arrazakoa. **948 630780** (gauz deitu).

ANIMALIAK salgai

Border collie arrazako **zakurkumeak** salgai. Atta eta ama hagitz onak. **661 767027.**

ZUGARRAMURDI. Behi gorriak beraien aretzee-kin salgai. **948 599068.**

4 asto salgai. Oso merke. **948 514056** (Ximon).

6 urteko poney salgai. **948 453037.**



DENETARIK salerosketak

DONEZTEBE. 12 aulki rustiko salgai. Torneatuak.

Gaztain zurarekin eginak. Telletxea altzari-dendan ikusgai, nahiz eta partikularrak izan. **646 799828.**

Urari indarra emateko bonba salgai. Indar haundikoa. Hagitz gutti erabilia. **606 681291.**



ORONÓZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta harritza. Etxera eramaten da. **676 242520.**



ARESO. Sukalde industrial salgai. Lau su, bi plantxa eta labearekin. Oso egoera onean. **636 559204.**



AZPIROTZ. Proudex markako teila salgai, bigarren eskukoa. Eta teila arabera ere bai. **686 806152**

Idaz-mahaiak (pupitrea) eta funtzio anitzeko **HP Color Laser Jet inprimagailua** (inprimagailua, faxa eta eskanerra) salgai. **649 224774.**

Urria eta azaroan migrazioan usoak **ehizatze**ko **puestoak** salgai. 20 metro edo guttiagora usoak tirokatze guttienez, 100 aukera ziurtatzen dizkizugu. **629 317086.**

ekaineko
zk. sartua
2.654

Bi lagunendako
baskaria
Iturengo
Altxunea
errotegian

Berriak hilaren
30a baino behin
dago behar du
Bortzietako
Hui Hondakinen
Mankomunitatera

948 63 52 54

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/Atxi-Itxas

SANTESTEBAN Tailerrak

KILOMETRO 0 etan prezio ezin hobeak!!!!

KANGOO B.S.L. PROFESIONAL 1.5 DCI 10CV
KANGOO 8 DYNAMIQUE ALL-ROAD 1.5 DCI 10CV
KANGOO 8 DYNAMIQUE ALL-ROAD 1.5 DCI 10CV
ETA GAIKESA
Mazda BT Express 1.5 DCI 10CV
Kangoo Express 1.5 DCI 10CV
Range Rover 4x4 215 CV
Tata Telesera 1000 CC 10CV
Suzuki Grand Vitara 4x4 2.0L
Suzuki Prizm 2.0L 10CV

DONEZTEBEKO RENAULT eta CITROEN BERRITAN SERBILAKO ESKAINTZAK

TTIPI-TTAPAK kazetaria behar du ordezkapenetarako

Eskatzen da:

- Kazetaritza edo euskal filologia ikasketak izatea
- EGA edo baliokidea den euskara maila

Kontuan hartuko da:

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea
- QuarkXPress programa erabiltzen jakitea
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea

Bidali curriculuma info@ttipi.net helbidera

Inguruko ekitaldiak, informazioa eta bitxikeriak jakin nahi badituzu
Egin zaitez **ttipi-ttapa** ren harpidedun

- Hego Eusko Herria 30€
- Euzko 30€
- Gaztel. Urtebete eta Madril 30€
- Amerik. eta Austral. 24€
- Iparr. Eusko Herria 30€
- Lotza 10€

(0034) 948 63 54 58
www.ttipi.net

APARAN, S.A.
BRINDOLALA eta ZURAK

Metamina taulak
Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
Txapaz estalitako taulak
Entzimerak
Ate amuntak eta sukaide mobleendakoak
Pintura eta bernizak
Bainurako mobleak eta osagariak
KIT mobleak: esku-erremintak, etab.

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE


urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txakea; 4) www.ttipi.net bitartez



Juarbeto **URTZI ZULAIKAK** 8 urte bete ditu ekainaren 7an. Zorionak pottoko eta segi hain goxoa eta xinpatikoa izaten! Muxu haundi bat Ascenen partetik.



Lesakako **MADDI IGOAK** 8 urte bete ditu ekainaren 10ean. Muxu haundi bat familia guztiaren eta bereziki bere ahizpa Leireren partetik.



EKAITZ LOIARTE OTXANDORENA zubietarrak ekainaren 6an 4 urte bete ditu. Auniz urtez eta muxu bat Iker, Naroa, Garazi eta Uxue-ren partetik.



Zubietako **EKAITZ LOIARTEK** ekainaren 6an urteak bete ditu. Zorionak Zubietako familia guztiaren partetik.



Etxalarko **MANEX DANBORIENA** 5 urte bete ditu ekainaren 8an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik!



Zorionak Oizko **UNAI OTEIZA ELIZONDORI**. Gure morroxko polit honek urtea bete du maiatzaren 26an. Zorionak Oizko amatxi eta Labaiengo atautxi-amatxi eta izeba-osaben partetik. Brunbrun buelta bat emanen dizugu opari moduan.



Oizko **UNAI OTEIZA ELIZONDORO** pottolori zorionak zure lehen urtebetetzean. Muxuak atta, ama eta Saioaren partetik. Bizkotxo goxogoxoa prestatuko dizu Saioak eta zuk den-dena jan.



Lesakako **AMAIUR** eta **ANITZE** gure nixka politak ekainaren 16an 4 urte beteko dituzte. Zorionak eta segi horrela gure bizitza alaitzen eta goxatzen! Besarkada goxogoxo bat bakoitzarentzat attatto eta amatoren partetik.



ANDER ZELAIETA EULATE legasarrak 2 urte beteko ditu ekainaren 13an. Auniz urtez eta muxu haundi bat Igantziko familiaren partetik.



JANIRE MINDEGIA aurtiztarrak ekainaren 18an 11 urte beteko ditu. Zorionak Lesakako izeba eta osabaren partetik, nixka on bat izateko.



SAIOA UGALDE ELZAURDIA bertarrak urteak bete ditu ekainaren 8an. Auniz urtez! Espero dugu afari on batera gonbidatzea! Muxu etxekoek partetik.



Donamariako **EKAIN** eta **NAHIA TELLETXEAK** ekainaren 21ean 4 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik. Prestatu merendola on-on!



Donamariako **NAHIA** eta **EKAINEK** ekainaren 21ean 4 urte beteko dituzte. Zorionak gure trastoiei eta muxuak Lesakako osaba eta izebaren partetik.



MIKEL ERASUN IBARRA irundarrak 24 urte beteko ditu ekainaren 28an. Zorionak familiaren partetik.



Gaur, ekainak 15, mila kilo dizugu eskaintzen, beste urte berri bat duzulako hasten! Zorionak aitabai **AURELIANO AMESTOY IRISARRI** zure biloben partetik.



OLAIA OTXANDORENA PETRIRENAK 3 urte eginen ditu ekainaren 26an. Zorionak eta muxu bat familia guztiaren eta bereziki aita eta amaren partetik.




OLAIAK ekainaren 26an 3 urte beteko ditu. Auniz urtez gure printzesari eta mila muxu pottolo Kaxkarra guztien partetik.



Atautxi **PAKO PETRIRENA ARRETKEA** sunbildarrak ekainaren 13an urteak beteko ditu. Auniz urtez familia guztiaren partetik eta bereziki zure biloba Iraide, Garaine eta Ibairen partetik. Ongi pasa eguna eta afari goxo-goxoa prestatu guri. Muxuak.




OLARIXU, GOURI eta **PERU URRA YECORA** lesakarrak 4 urte beteko dituzte ekainaren 22an. Zorionak eta muxu pila gure burhurrtoentzat amatxo eta aitaoren partetik!



Igantziko **ANDREA ETXEBERRIA ELIZALDE** eta Iturengo **OINATZ ELIZALDE** larretxeak lehengusuek ekainaren 14 eta 28an, 12 urte eta urte bat beteko dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik. Berendu goxoa prestatu, muxuak!



Sunbillaiko **XUBAN** eta **ANE ZELAIETAK** 8 eta 5 urte beteko dituzte ekainaren 19 eta 29an. Zorionak eta muxu pottolo bana. Ongi pasa eguna atta, ama eta etxeko guztien partetik.



Berako bi motorzale hauek, **UNAI IPARRAGIRRE** eta **OIHAN TELLETXEAK**, ekainaren 20an eta 30an, 14 eta 4 urte beteko dituzte. Zorionak Berako familiaren partetik!



ttipi-ttapa

inprenta lanak egiten ditugu
ideiatik hasi eta etxean izan arte

1.000 ale → 85€
Buka txartelak / ingurugab
1000 ale, 100 g
BLC 30mm

8.000 ale → 160€
Buka txartelak / ingurugab
8000 ale, 100 g
BLC 30mm

1.000 A4 → 86€
Buka txartelak / ingurugab
1000 A4, 100 g
BLC 30mm

1.000 ale → 107€
Buka txartelak / ingurugab
1000 ale, 100 g
BLC 30mm

Eskatu informazioa:
948 63 54 58
kulturari@ttipi.net

Haztem gure web orria:
www.ttipi.net



ttipi txartelarekin

besti rabaz ten dal

deskontuak + zozketak + aldizkara musutruk

Estekatu zurea: 948 63 54 58 telefonoari

567. ALEKO IRABAZLEAK

- * AQUARIUM 2 SARRERA
Aritz Zubietza Orotelko | BERA
- * LANKU DVD + CD
Bartolome Izpizketa DVD + Omitomikus CD
M^a Pilar Azpiroz | DONAMARIA
- * ONINART KAMISETA
María Iturza | DONAMARIA
- * EREIN 3 LIBURU
Indiaroa + Portolok gaurpasa egin du +
Barkuntzak ziku ttiper
Itzar Iguzkiagena Urbegi | IGANTZI
- * LESAKAKO UDAL IGERILEKUA 2 SARRERA
Jose M^a Maza Agirre | ETXALAR
- * URDONTXAESKOLA PUNPLAPLAN CD + DVD
Marta Etxebarria Emsen | BERA

zozketak



ZAZPIKOLORA CDa
Peritx, Porrotx eta Marmotots
www.katxiporritxa.com



BERAKO UDAL IGERILEKUA 2 SARRERA
Berako Udal Igerilekua
www.berakoutats.net

deskontuak



AQUARIUM



AQUARIUM 2 SARRERA
Donostiako Aquarium-a
www.aquariuma.com

ibaizabal



IBAIZABAL 2 LIBURU
Ibaizabal argitaletxea
www.ibaizabal.com

onddo



KAMISETA BAT
Onddo ta pinto
www.onddotapunto.com

Lanku



LANKU LIBURU BAT + 2 CD
Lanku argitaletxea
www.lanku.com

ttipi-ttapa

Anduizeta 12, 31760 ETXALAR
Tel. 948 635 458 | Faxa 948 635 457
info@ttipi.net | www.ttipi.net

**BAI EUSKARARI
ZIURTAGIRIA**
Balioa eta berrikuntza
948 58 00 06
baieuskarari@bartzangoudala.eu



BAZTAN

Gero eta gehiago dira
**euskararen
normalizazioan
pausuak ematen**
ari diren
entitateak

OIEREGI

- Bertizko Turismo Partzuergoa

• Xalxa Telebista
ORONÓZ

Arraioz

Ziga

ANIZ

Berroeta

Almandoz

- Jauregia Esnekiak
- Jauregia Landa Etxea

Lekaroz

Gartzain

IRURITA

- Ariruri
- Arkupe Gozotegia
- Aroz Berri
- Ti-Tau Erreformak
- Txokoa Ileapaindegia

Elbete

ELIZONDO

- Albaitaritza
- Antxitonea Trinketea
- Anzabal Agentzia
- Arkupe Gozotegia
- Arrupea Farmazia
- Artea Arkitektuak
- Astiz Anaiak Zurgindegia
- Axular Estankoa
- Azken Muga
- Baztan Ikastolako Guraso Elkartea
- Baztandarren Biltzarra Elkartea
- Betizu Albaitaritza Zerbitzua
- Bodegas Arla
- Elizondoko Gaztetxea
- Esarte Harategia
- Eskisaroi Jatetxea
- Fantxike Arropa Denda
- Ilargi Ostalua
- Ipingi Arropa Denda
- J.M. Munarriz Hortz Klinika
- Lindutx Promozioak eta Hargibel Eraikuntzak
- Lur Dantzalekua
- Malmö
- Mañonea Agentzia
- Mapfre Aseguruak
- Nafarroako EHNE Sindikatua
- Panificadora Baztanesa
- Pottoki
- Txaruta Pilota Elkartea
- Xorroxin Irratia

Amaiur

- Altxuko Denda
- Kastonea Landa Etxea
- Zubi Punta Ostalua

ERRATZU

ARIZKUN

- Azkarate Ikuztegia
- Baztandarra Kooperatiba
- Baztangoiza Tailerrak
- Berro Bide
- Dolaetxea Taska
- Etxenikea Landa Etxea
- Jo ala Jo Kultur Elkartea
- Koro Arrutia Farmazia
- Ruiz de Larrinaga Zurgindegia
- Uxo Okindegia